

Goienkaria

2008ko otsailaren 1a > Egubakoitza > VIII. urtea > 318. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

"Euskal
autogobernuaren
alde egiten
duen alderdiari
emango diogu
babesa"

Iñigo Juaristi
Gipuzko Buru
Batzarreko kidea > 09



OSASUNA
ATECE egoitza Aita Mennik
kudeatuko du aurrerantzean > 04

BERGARA
Serafin Esnaola zenaren argazki
bilduma eskuratu du Udalak > 24

ARETXABAleta
Aikia eta Besaide enpresek egingo
dituzte Herriko Plazako lanak > 31

ELGETA
Jone Muxika ziklistari omenaldia
egingo diote hilaren 10ean > 37

OSASUNA > MENDEKOTASUN LEGEA

Hasi dira mendeko pertsonei dirulaguntzak banatzen

ESKATZAILEAK Dirulaguntzak
ez dira adineko pertsonendako
bakarrik, mendekoa den
edonork eska ditzake

BALORAZIOA Mendekotasuna
galdeketa bidez neurtzen dute;
Gipuzkoan 11.700 egin dituzte,
eta lagunza 700ek jasoko dute

LAGUNTZAK Izan daitezke
eguneko zentroa ordaintzeko
zein etxeen pertsona bat
hartzeko, besteak beste > 02-03

G2a

**Urdelardero
Egunarekin egin
diete ongietorria
Aratusteei
Eskoriatzan**

Aho bete janari ospatu zuten
atzo, eguna, Urdelardero
Eguna –Eguen-gizen– esko-
riatzarrek. Modu horretan
ireki zieten atea Aratusteei,
eta Debagoien osoan barrena
hedatzen hasi da jai horren
espiritu. Aurten, gainera,
hainbat berrikuntzarekin
datoz Bergarara, Oñatira eta
Arrasatera, baina oraindik
ere izarra Aretxabaletako
Aratuste-domeka da. > 43-44



AHO BETE JANARI Txorizoa, urdaia, sagarrak... Tripa ondo bete zuten atzo, Urdelardero Eguna, Eskoriatzan. I.B.

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarrikzeta > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-42
Kultura > 45
Sailkatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55

Beherapenak

%40
raino

Koltxoi dendak
bede
Gure denbora zure atsedena da

Zarugalde 25 / ARRASATE Tel.: 943 77 18 35 • Arrizuri 7 / BERGARA Tel.: 943 76 25 91

MUGARRI AUTOAK

Araba Etorbidea, z/g.
ARRASATE-MONDRAÓN



FordFocus
Berria

%0
Matrikulazio
zerga



ERREPIDEAK > AUTOBIDEA

Eibartik Gasteizera 4,6 euro

Eibar eta Gasteiz
lotzen dituen 46,2
kilometroak egitea
kostako da hori > 07

ZERBITZUAK > AUTOBUSAK

Indarrean da txartel bakarra

Gaurtik baliagarri izango da
txartel bakarra, Debagoiene-
ko edozein herritik Bilbo,
Gasteiz edo Donostiaro joateko.
Urria ezkerro ibarreko
herri arteko lineetan baino
ezin zitekeen erabili. Biartit
aurrerako beste berrikuntza
bat da txartel bakarraren
%40ko deskontua egingo
dutela lehen bidaiatik. > 04

ZERBITZUAK > HILTEGIA

Hiltegiaren gaineko foroa gaur

Erabiltzaileen
artean hiltegiari
buruzko hausnarketa
bultzatu nahi dute > 05

OSASUNA > MENDEKOTASUN LEGEA

Balorazioen ostean, hasi dira laguntzak jasotzen mendeko pertsonak

MENDEKOAK Dirulaguntzak ez dira adineko pertsonendako bakarrik; mendekotasuna duen edozeinek egin dezake eskaera udalatako gizarte zerbitzuetan

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Mendekotasun Legea arautzen duen dekretua 2008ko urtarrilaren 8an sartu zen indarrean gurean. Nor bere kabuz molda ezin daitezkeenei dirulaguntzak jasotzeko eskubidea aitortzen die legeak. "Laguntzak ez dira adinekoenda-ko bakarrik, mendekotasuna duen edozeinek eska ditzake", dio Elgetako eta Antzuolako udalatako gizarte zerbitzuetako teknikari Karmele Kortak.

Dirulaguntzak behar dituztenek udalatako gizarte zerbitzuetara jotzen dute eskariak aurkezteria. Ondoren, mendekotasuna zenbatekoa den baloratzeko, etxeen egingo diete galdeketa. "Legearekin egon den aldaketa-rik garrantzitsuena da mendekotasuna baloratzeko sistema bateratua ezartza".

Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntzak emateko gutxieneko hainbat baldintza betar dira: mendekotasuna baloratzeko baremoa izatea; Gipuzkoan errodatua egotea; eta Espanian bizi-zea, gutxienez bost urteko antzinatasunarekin, eta horietatik bi eskaera egin aurrekoak izatea.

BALORAZIOA

Diputazioarena da balorazioaren ardura. Hark Matia fundazioaren bitarte egiten ditu azterketak, mendekotasuna zenbatekoa den baloratzeko eta behar izango dituen laguntzak zehazteko.

HIRU GRADU ETA BI MAILA

Mendekotasunak hiru gradu bereizten ditu, eta horren arabera ematen dituzte dirulaguntzak, baita zerbitzu batzuetarako aukera ere. Hiru mendekotasun gradu daude eta bakoitzaren barruan bi maila. "Autonomoa den pertso-na bat 0 gradu eta 0 mailan egongo litzateke eta mendekota-sun handien duena 3. gradu eta 2. mailan", dio Kortak.

GRADUAK Hiru mendekotasun maila bereizten dira zenbaterako lagunza behar dutenaren arabera: ertaina, larria eta handia

LAGUNTZAK Zerbitzuari lotutakoa, familia ingurukoa edo lagunza pertsonala jaso dezake mendekoak, beharren arabera

Lehenengo graduau daude mendekotasun ertaina dutenak, eguneroko ohiko ekintzak egiteko, gutxienez, egunean behin, lagunza behar dutenak. Bigarren graduau mendekotasun larria dutenak, lagunza hori egunean bi edo hiru aldi behar dutenak, baina zaintzaile bat etengabe alboan izan gabe. Hirugarren graduau mendekotasun handidunak daude. Autonomia fisikoa edo adimena galdu dutelako ezinbestean eta etengabe pertsona baten lagunza behar dutenak. Bestalde, autonomiaren eta behar duten laguntzaren intentsitatearen arabera bi maila bereizten dira.

Balorazioak finkatuko du lagunza noiz eskuratuko duen eskatzaileak. Izan ere, prestazioak gradualki banatuko dira. 2007an hirugarren graduoko izan ziren onuradunak; 2008an bigarren graduoko bigarren mai-lakoak; 2009an bigarren graduoko lehen mailakoak; 2011n lehen graduoko bigarren mailakoak; eta 2013an lehen graduoko lehen mai-lakoak. 2007an dirulaguntza jasotzeko eskubidea zutenek atzera eraginez jasoko dute.

"Mendekotasun Legearekin egon den aldaketa-rik garrantzitsuena da mendekotasuna baloratzeko sistema bateratua ezartza leku guztiarako"

"Lagunza eskatu eta mendekotasun gradu handia izan arren, baliteke dirulaguntza ez jasotza. Izan ere, eskatzailearen diru sarrerak eta beste laguntzarik jasotzen duen ere kontuan hartuko da"

2007 eta 2008rako prestazio ekonomikoen diru kopuruak

PRESTAZIOA	MENDEKOTASUN GRADUA ETA MAILA	GEHIENEKO DIRU KOPURUA	
		2007	2008
ZERBITZUARI LOTUTA	III. Gradua/2. maila	780 euro/hileko	811,98 euro/hileko
	III. Gradua/1. maila	585 euro/hileko	608,98 euro/hileko
	II. Gradua/2. maila	---	450 euro/hileko
ZERBITZUARI LOTUTA	III. Gradua/2. maila	487 euro/hileko	506,96 euro/hileko
	III. Gradua/1. maila	390 euro/hileko	405,99 euro/hileko
	II. Gradua/2. maila	---	328,36 euro/hileko
ZERBITZUARI LOTUTA	III. Gradua/2. maila	780 euro/hileko	811,98 euro/hileko
	III. Gradua/1. maila	585 euro/hileko	608,98 euro/hileko
	II. Gradua/2. maila	---	---

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA



LAGUNTZAK Dirulaguntzak izan daitezke egoitzetako

arteko senide harremanea; mendekotasun mailara egokituko dira zaintzarako lagunza, bizitokia eta bizikidetza baldintzak.

Familia inguruko zaintzari dagokio bigarrena; mendeko pertsona zaintzeaz arduratzen diren senitartekoi zuzendua. Mendekotasuna duenak eta senideak etxe berean erroldatuta egon behar dute; zaintzaileak 18 urtetik gora izan behar ditu eta mendeko pertsonarekiko hirugarren mailara

Lagunza pertsonalerako prestazioa da hurrengoa. Hori jasoko du kontratzen duen zaintzaile partikular bat, zaintze-ko. Kasu horretan ezinbesteko da zaintzaileak 18 urtetik gora izatea eta senidetza loturarik ez edukitzea. Bizileku legala izateaz gain, zainketa bere gain hartze-ko ahalmena eduki beharko du eta lagunza hori modu egokian eman beharko du mendekotasun gradu eta mailari erreparatuta.

Karmele Kortak azaldu digunez, "laguntzak elkarren artean bateraezinak dira. Bestalde, men-



IRATI AGIRREZALDEGI

o edo eguneko zentroetako plazak ordaintzeko zein etxeen zaintza jasotzeko senide batena edo kontratatutako beste langile batena.

deko pertsona eguneko zentro batera joaten bada edo etxez etxezko laguntza jasotzen badu, laguntzak bateratu arren, neurri batean gutxitu egingo dira. Gainera, baliteke laguntza eskatu eta balorazioak mendekotasun gradu handia eman arren, dirulaguntzarik ez jasotzea. Izan ere, eskatzalearen diru sarrerak ere kontuan hartzen dira, baita bestelako laguntzarik jasotzen badu ere".

LAGUNTZAK TRAMITATZEN

Mendekotasun Legea iaz abiari-zi zen, baita mendekotasuna baloratzeko sistema berria ere. Orain aldatu dena da laguntza ekonomikoa, urtarrilaren 8an indarrean sartu zena. Gipuzkoan 11.700 balorazio egin dituzte eta 700ek jasoko dituzte laguntzak. Beharrak handiena dutenak, 104, eguenean bertan hasi ziren jasotzen.

Hortaz, orain buru-belarri dabilta udalaetako gizarte zerbitzuetan laguntzak tramitatzenten. "Jende asko dabil, batzuk tramitzazioan eta beste batzuk informazio eske. Lehenago ezer jakin ez

dutenak beharbada orain balorazio epean daude, ikusten mendekotasuna zenbatekoa den, diru-laguntza horietarako eskubiderik baduten edo beste prestazio batzuk jaso ditzaketen: eguneko zentroak, etxez etxezko zerbitzuak, telealarma... Lehengo prestazioak mantendu egiten dira. Jendeak handik eta hemendik entzun du zerbaite eta udaletxeetara datozen

informazio bila, eta mugimendu handia dago", esan digu Karmele Kortak.

Ematen dituzten laguntzak nahikoak diren galdetuta, Karmelle Kortak esan digu oraindik ez dutela iritzirik jaso. Zera gaineratu digu: "Mendekotasuna duen senide bat etxeen izatea erabakitzten duenak ez du diruari begira erabakia hartzen. Jasotzen dute-

na laguntza bat da, eta errekonozimendua ere. Horrekin ez dira gastu guztia estaltzen. Baina mendekotasuna duena zaintze-ko zaintzeko partikularra kontratatzenten duten askok, seguru aski, jasoko duen laguntza baino gehiago ordainduko dute". Kasu horretan, kontratatzenten den langileak Gizarte Segurantzan alta eman- da egon beharko du.

GOBE
ETXE-ALDAKETAK

Etxe-aldaleta osoak

Altzariak eta materiala igotzeko karga-jasogailu alokairua gidariarekin.

Enpresa eta partikularrentzat

Tel.: 695 71 05 61

www.gorabera.com

SSANGYONG ACTYON SPORTS BERRIA



MERCEDES-BENZ MOTORRAREKIN 200 XDI 141 Z.P.



SSANGYONG

VERTIZ MOTOR

Olaso pol. 27 - ELGOIBAR
Tel.: 943 74 41 10

Frantzia pas. 14 - DONOSTIA
Tel.: 943 29 22 66

Sarroeta pas. 13 - MARTUTENE
Tel.: 943 46 92 99

BALORAZIOA

Balorazioa egiteko orduan mendeko egoerak egonkortuta egon behar du; hau da, istripu bat izan eta berehala, esaterako, ezingo da baloraziorik egin. Baldintza guztiak betez gero mendekoa dagoen etxeen edo egoitzan egiten dituzte balorazioak fisioterapeutek, terapia okupazionaleko teknikariek, sendagileek eta psikologoek. Elkarritzeta bidez egiten dira balorazioak, senidea edo zaintzaleaurrean dela, kasu batzuetan ez direlako gai hainbat galderari erantzuteko. Balorazioetan 11 ekintza hartzen dira kontuan:

> JAN ETA EDAN

TXIZA ETA KAKA EGIN
Txizari edo kakari eusteko gai diren edo ez.

> GORPUTZEKO GARBIKETA

GORPUTZEKO BESTE ZAINKETAK
Orraztea, bizarra moztea...

OSASUN MANTENUA
Sendagilearengana joatea eta sendagaiaik hartzea.

GORPUTZ TRANSFERENTZIAK
Ohean bakarrik sartza eta bertatik altzatza, aulkia batera mugitzea...

> ETXE BARRUAN MUGITZEA

ETXETIK KANPO MUGITZEA
Ohiko guneetan batera eta bestera ibiltzeko gai izatea.

> ETXEKO LANAK EGITEA

NORK BERE KABUZ ERABAKIAK HARTZEA

Aztertzen dutena da mendeko pertsona hori zenbateraino den gai ekintza horiek egiteko. Ez bada gai, zehazten dute buruko arazo batengatik den edo arazo fisikoa den. Hortaz, ikusiko litzateke laguntzarekin egiteko modurik legokeen edo ez. Ekintza bakoitzean dituzten gaitasun eta zaitasunen arabera puntuazio bat lortuko lukete, zeinak mendekotasun maila zenbatekoa den azaltzen duen. Graduaren arabera mendekoak jasoko luke etxez etxezko laguntza, eguneko zentro edo egoitza batean plaza bat edo dirulaguntzak.



EGUTEGIA Legeak dio 400 metro koadro baino gehiagoko komerzioek urtean zortzi jaiegunetan zabal ditzaketela ateak.

GOIENKARIA

EROSKI TALDEA > DENDAK IREKITZEKO EGUTEGIA

Salatu dute Eroskik Aste Santuan dendak irekitzeko asmoa duela

ELA eta LAB sindikatuek gogor kritikatuko dute Eroskik jaiegunetan ateak zabaltzeko asmoa

Eroskik ez du oraindik gai horren inguruko erabakirik hartu

OSASUNA > ARRASATEKO ATECE EGOITZA

Arrasateko ATECE egoitza Aita Menni ospitaleak kudeatuko du aurrerantzean

Arrasateko egoitza Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte ekintzen sarean sartu da

Zortzi lagunendako lekua dago oraindik eta nork bere herriko udaletxeen eskura dezake informazioa

M.A > ARRASATE
ATECEK, hartutako garun kaltea dutenen elkartea, Arrasaten duen egoitza Aita Menni ospitaleak kudeatuko du aurrerantzean. Diputazioko Gizarte Politikako Departamentuaren eta Aita Menni ospitalearen arteko hitzar-

MIREN ARREGI > ARRASATE
Aste Santuko jaiegunetan Eroski taldeak bere dendak zabaldu gura dituela salatu dute ELA eta LAB sindikatuek.

Legearen arabera, 400 metro koadro baino gehiagoko komertzioek urtean zortzi jaiegunetan zabal ditzakete ateak. Sindikatuek diote, baina, Euskal Herrian, langileekiko errespetuagatik, akordio tazito bat dagoela eta komertzioek ez dituztela jaiegunetan ateak zabaltzen. Akordio hori hauts dezakeen lehenengo enpresta Eroskik dela salatu dute. Gaineratu dute igande edota jaiegunetan merkataritzan lan egiten duteen atsedena bermatzeko.

azaldu dute, betiere konpetentziak ateaak zabaltzen ez baditu. Eroskiko estatutuek diote ezin dituztela hiru egunez jarraian euren komertzioak itxi, kontsumitzaileengan horrek eraginditzaketen kalteak direla medio. Gaineratu dute erabakiak hartzeko orduan ez dutela jaiegunen gainerako erabakirik hartuko, baizik eta salbuespen kasu moduan tratatuko dutela gaia; izan ere, hiru jaiegun jarraian izatea ez da urtero gertatzen. Bestalde, argi utzi nahi izan dute erabaki horren inguruan hausnartzeak ez duela jaiegunekiko Eroskik duen jarraira aldatuko.

EROSKI: "ERABAKITZEKE"
Eroskik dio gai horren gaineko erabakirik ez dutela hartztu oraindik. Jaiegunen aurrean, langileen eskubideak kontsumitzaileen eskubideen gainetik daudela

keta modu berriak ez du lan egiteko moduan aldaketa handirik eragingo; izan ere, helburuak berdina izaten segitzen du: hain justu, urritasun handiak dituztenei laguntzea eta euren senitarteko-en bizi kalitatea hobetzea.

ZERBITZUETAN ONURAK

Arrasateko egoitza publiko egiteak erabiltzaileei ekonomikoki onurak ekarriko dizkie. Gainera, lantialdea indartuko da, eta Iñigo Urrutikoetxea neuropsikologoaren zuzendaritzapean, orain arte bertako langile izandakoei, mediku bat eta gizarte laguntzai-

lea batuko zaizkie. Hori horrela, guztira lantialdean, psikologoa, logopeda, fisioterapeuta, hiru monitore laguntzaile eta orain gehituko diren medikua eta gizarte laguntzailea izango dira. Orain arte zentroak izan dituen zazpi erabiltzaileak bere gain hartuko ditu Aita Mennik, eta uste du laster beteko direla bertan eskaintzen diren 15 tokiaik.

Horrez gain, bazkaria eta garraioa ere sartuko da aurrerantzean zerbitzuaren barruan.

Interesatuek nork bere herriko udaletxeen gizarte zerbitzueara zuzendu beharko dute.

AUTOBUS ZERBITZUA

Txartel bakarrarekin hirietara ere joan daiteke

Gaurtik, bidaia txarteletan %40ko beherapena egongo da lehen bidaiatik

MIREIA BIKUÑA > BERGARA
Gaur bertan sartu dira indarrean Debagoienetik Donostiarra, Bilbao eta Gasteizera. Pesak egiten dituen lineatan txartel bakarra erabilera, zein deskontuak. Deskontuak bailara barruko ibilaldieta ere aplikatuko dira.

Txartela duten 35.000 erabiltzailek baino gehiagok %40ko beherapena izango dute lehen bidaiatik aurrera. Gero, 41. bidaiatik 70. bidaia-raino %70eko deskontua egingo da, eta 71.tik aurrera, %90eko. Deskontuak egingo zaizkie txartel bakarra erabilten duten guztiei.

TXARTEL PERTSONALIZATUA

Txartel bakarrak egunkariak saltzen dituzten saltokietan eskura daitezke. Eskatzialek inprimakia bete eta argazki bat eroan behar du, eta bost lanegunen epean gertu izango du txartela. Txartela erosil den saltokian bertan txartela kargatzeko aukera egongo da. Txartelaren prezioa lau euro da.

Ibarreko herri guztietan –Elgetan izan ezik– eskura daiteke txartela: Arrasaten, Martxas eta Portaloiako kioskoetan eta Garai estankoan; Bergaran, Isabel kioskoan eta Ikasbi liburu-dendan; Oñatin, Hirukar liburu-dendan eta Altuna estankoan; Aretxabaletan, Ibarra estankoan eta Alfredo liburu-dendan; Eskoriatzan, Adela liburu-dendan; eta Antzuolan, Altzarte okindegian.

Txatel bakarra 11 lineatan

- Donostia-Tolosa-Beasain-Zumarraga-Bergara-Bilbo
- Donostia-Elgoibar-Bergara-Arrasate
- Donostia-Arrasate (A-8 eta AP-1)
- Eibar-Bergara-Gasteiz
- Eibar-Soraluze-Bergara-Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza
- Bergara-Antzuola-Zumarraga-Oñati-Bergara
- Bergara-Arrasate-Durango-Bilbo (A-8)
- Oñati-Arrasate
- Oñati-Arrasate-Bilbao
- Oñati-Legazpi-Zumarraga
- Elgeta-Eibar



HARAGIA Mankomunitateak kalitatezko haragiaren aldeko apustua egin nahi du.

LEIRE KORTABARRIA

HILTEGIA > HAUSNARKETA

Hiltegiaren gaineko foroa egingo dute gaur

Mankomunitateak antolatuta, Oñatiko hiltegia erabiltzen duten udal guztiak ordezkariek batzarra egingo dute gaur

ERRALDE HILTEGIA

Batzarrean, erabilpenaren inguru datu zehatzak emango dituzte, eta Durangaldeko Erralde hiltegiaren esperientziaren berri jasoko dute. Han, 14 udalen ados-

tasunarekin, aldi baterako hiltegia antolatu dute. Beste neurri batzuen artean, lehengaia prezio lotuetan erosten dute, eta, hiltegi kostua gehituta soilik, prezio onetan merkaturatzen dute.

LEIRE KORTABARRIA > OÑATI

Oñatiko abere hiltegiaren inguru datu zehatzak emango dituzte, eta Durangaldeko Erralde hiltegiaren esperientziaren berri jasoko dute. Han, 14 udalen ados- tasunarekin, aldi baterako hiltegia antolatu dute. Beste neurri batzuen artean, lehengaia prezio lotuetan erosten dute, eta, hiltegi kostua gehituta soilik, prezio onetan merkaturatzen dute.

Hiltegiaren gaineko hausnarketa bultzatzea da helburua, Mankomunitateko Hiltegi batzordeko presidente Pedro Iturbek dioen moduan: "Hiltegiak gure inguruko herri askori eskaintzen die zerbitzua, baita Mankomunitatetik kanpoko herri askori ere. Interesgarria ikusten genuen hiltegiarekin harreman zuzena izan dutenen iritzia jakitea".

Hausnarketa horrekin, "hiltegiaren proiektua udaletan barneratzearen inguruan hitz egingo dugu", dio Iturbek. "Baserri tarrei lagunza eskaini behar diegu; gainera, kalitatezko haragiaren aldeko apustua egin behar dugu, eta, ingurumenari begira, politika eraginkorrik martxan jarri. Udaletan horren inguruko kontzientzia hartu behar dugu, eta hiltegia bezala- ko zerbitzua indartu".

ARATUSTEAK 2008 GOITB-N

BERGARAKO ARATUSTETAKO KONTZERTUA
Astelehenean, otsailak 4an 22:15ean
Martitzenean, otsailak 5ean 15:15ean

"DEBAGOIENEKO ARATUSTEAK"
SAIO BEREZIA
Eguaztenean, otsailak 6an 21:47an
Eguenean, otsailak 7an 14:15ean

Goitb
Goienea Telebista
Ikustekoa!

SINDIKATUAK > LAB-EN MOBILIZAZIOA

Legez kanporatzea salatzeko ekitaldia

Bergarako kaleetan manifestazioa egin zuten, EHAK eta EAE alderdien legez kanporatzearen aurka protesta egiteko

egiteko. Bergarako kaletan egindako manifestazioan Debagoieneko eta Debabarreneko 100 bat ordezkari sindikal bildu ziren. Manifestazioan parte hartu zuten, besteak beste, LAB sindikatuko idazkari Rafa Diezek eta haren laguntzaile Ainhoa Etxaidek.

GOIZEAN, BATZARRA

Manifestazioaren aurretik ordezkari guztiak batzarra egin zuten Miguel Altuna institutuan. Hain zuzen ere, sindikatuak 2008rako dituen ildo nagusiak aztertu zituzten.



PROTESTA Legez kanporatzearen aurkako manifestazioa plazan hasi zen. M.B.



Angel Arbonies > Garaiko berrikuntza arduraduna

"Enpresek onartuta daukate berritu egin behar dutela; zelan berritu da orain kontua"

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Garaia Berrikuntza Guneko innovation coach-a, berrikuntza eragilea, da Angel Arbonies. Kudeaketa ikertzailea da, eta antolakuntza berriak ikertu eta ezartzen ditu. Mondragon Innovation and Knowledge ikerketa zentroa bultzatu du. Eguaztenean inauguratu zuten Garaiko infonomia bulegoa, eta horretaz ere arduratuko da.

Zer da Infonomia?

Infonomia berrikuntza sare bat da, Alfons Cornellà berrikuntza adituak 1995ean sortua; enpresendako eta berritzaleendako gune bat da, eta enpresei berrikuntza arloan laguntzen die, aholkularitza ematen die eta euren-dako ekintzak antolatzen ditu. 17.000 bazkide ditu, eta bi oinarriz: kideei lagunten eta euren arteko konexioa egitea, eta berrikuntza prozesuak bizkortzea, informazioa modu azkarrean bilatuta. Infonomiak hiru ekintza mota egiten ditu: batetik, berrikuntza arloan indar-ideiak edo ideia nagusiak bilatzea; bestetik, bere kideak konektatzeko ekintzak; eta, azkenik, aholkularitza ematea, modu dinamikoan.

Infonomia zabalik eta jardunean dago?

Bai, eguztena ezkerro, zabalik dago. Garaian du egoitza, eta aurten, berrikuntzaren urtean gauden honetan, Euskadin bere zerbitzuak eskainiko ditu.

Garaiko berrikuntza arduradun moduan, zein izango da zure lana?


Bi motatako lanak egingo ditut: batetik, infonomiaren ardura daramat Euskadin, eta, bestetik, Garaiko zuzendari orokorren aholkularia naiz. Garaiko sortzaileen, enpresen eta erakunde publikoen arteko konexioa indartsua izan dadin egiten dut lan. Horretarako, batzuetan Infonomiarekin eta, beste batzuetan, bestelako eragile batzuekin, ekintzak, batzarrak... antolatzen ditut. Innocation izeneko proiektu batekin dihardugu orain: berrikuntza eta I+G zuzendarien komunitate bat da, eta hori orain dela gutxi hasi dugu Garaian.

Infonomiak Garaiko enpresei emango die zerbitzu, edo edozein empresari ere bai?

Edozein enpresarendako zabalik dago infonomia; egoitza Garaian dauka, baina beste enpresta batzuendako ere lan egiten du, batik bat, aholkulari moduan.

Esan duzu 17.000 bazkide dituela. Enpresak dira?

Ez; norbanakoak dira. Bazkide guztietatik 1.000 Euskadiakoak dira. Debagoieneko bazkide asko ere baditugu. Arrasate oso leku



Angel Arbonies.

JUAN LUIS AZKARATE

"Infonomia Garaiko eta kanpoko enpresendako da; aholkularitza zerbitzua ematen du"

"Arrasate berrikuntzan garrantzitsua da, eta oso leku egokia Infonomia ezartzeko"

"Berrikuntza da balio gehitua duten ekintzak bilatzea, eta enpresa mota guziendako da"

egokia da infonomia ezartzeko. Oso leku dinamikoa da, eta berrikuntzarako leku garrantzitsua.

Euskal enpresak ondo moldatzen dira berrikuntza arloan?

Jendeak omartu du ez dagoe-la beste aukerarik, nahi eta nahi ez berritu egin behar dela. Orain, eztabaida ez da berritza edo ez, baizik eta zelan berritu. Badaude hainbat ekintza enpresei laguntzeko berrikuntzan sakon dezaten; gogoeta egin dezaten zelan antolatu, zer egin... Innobasque izeneko erakundea sortu

du Eusko Jaurlaritzak, eta SPRI-ren bidez laguntza ematen dabil enpresek gogoeta egin dezaten. Informazioaren Agenda izeneko proiektuaren bidez, doako aholkulari homologatuak jartzen ditu enpresen esku, edozein tamaina eta sektoretako enpresa bat esan diezaiotan nondik has daitekeen berritzen.

Enpresa mota guztiak berritu behar dute?

Bai. Ez dugu pentsatu behar berrikuntza enpresa handienda-ko bakarrik dela, edo bakarrik teknologian egiten den zerbaite dela. Berrikuntza da balio gehitua duten negozio-gune edo ekintzak bilatzea, eta, horren barruan, edozer gauza sar daiteke.

Infonomian, hasi zarete ekintzak antolatzen?

Bai, bagabiltza horretan, baina oraindik goiz da ezer gehiago esateko. Infonomiaren ekintza batzuk publikoak dira, baina beste batzuk enpresen barruan egiten dira. Batzuetan, enpresa batek laguntza eskatzen digu berrikuntza prozesu bat azkarteko, eta, horretarako, Next izeneko produktu bat daukagu, jakiteko zer gertatzen dabilen, zer datorren...

kontsumoa



Langileen %83k daukate soldata berraztertzeko klausula.

GOIKARIA

547 euro ordainduko diente enpresek langileei, prezioen desbideratzeagatik

J.Z. > BERGARA

Enpresek berrazterte klausularekin dauden langileei batez beste 547 euro ordaindu beharko diente, 2007ko salneurrien desbideratzeagatik. Klausula horrek 7,23 milioi langile hartzen ditu, eta hori esandako batez bestekoarekin biderkatzen badugu, 3.965,9 milioi euroko gastua ematen du, Espainiako Metaleko Enpresaburu Elkarteko Konfederazioaren arabera.

Joan den urtean, 2007an, KPI (Kontsumo Prezioen Indizea) %4,2 izan zen, gobernuak aurreikusitakoa baino %2,2 handiagoa. Eta horrek enpresen lan kostuak igotzea ekarriko du. Hori horrela, ez du askorako balioko sindikatu eta patronalek itundutako soldata igoerak, gobernuak ez baldin badu KPIren kontrolarekiko lana ondo betetzen. Espainiako Metaleko Enpresaburu Elkarteko Konfederazioak dio inflazioaren kontrolik ezak enpresen lehiakortasuna galtzea ekarriko duela.



Txartel batzuetan ez da urteko kuotarik ordaindu beharko

Gero eta basketxe gehiagok eskaintzen dituzten txartel-letan, ez da urteko kuotarik ordaindu behar. Baina doakotasun hori baldintzatzen duten beste faktore batzuk sartzen dituzte, hala nola bigarren urtetik aurrera gutxiengoa gastu batzuk egitea. Estuan, txartelak urtetik urtera gero eta erabiltzai-le gehiago ditu. Hala, 2004an, %17,06 izan zen txartel bidez ordaindu zutenen portzentajea; eta 2005ean %14,32 handiagoa; 2006an, berriz, %10,7 igo zen txartelaren erabilera kopurua.



Aratusteetan, nahiago mozorroak erosi alokatu baino

Dagoeneko heldu dira Aratusteak, eta, mozorroak aukeratzeko orduan, kontsumitzaileek nahiago dute mozorroa erosi alokatu baino. Haur baten mozorroak 22 euro balio du eta helduen mozorro batek, 25 euro inguru. Azken urteetan, jendeak gero eta gutxiago alokatzen ditu mozorroak; askotan, eroslea alokatzea baino merkeago ateratzen delako. Gaur egun, mozorro batek 9 eurotik hasi eta 300 euro baino gehiago balio dezake, erosken den mozo-roaren arabera.

OSAKIDETZA > GREBA

Martitzeneko grebaren ondoren, beste bat deitu dute martxorako

Sindikatuen arabera grebaren jarraipena %82koa izan zen; Osakidetzaren ustez, %35koa

Otsaileko sei egunetarako bi orduko lanuzteak iragarri dira eta greba eguna, martxoaren 6rako

MIREIA BIKUÑA > BERGARA
Asteluhenean gaueko hamarretan hasi zen sindikatuek deitura greba. Erabiltzaileen artean ez zuen aparteko arazorik sortu. Era berean, sindikatuek aurreratu dute otsaileko sei egunetan bi orduko lanuzteak egingo dituztela eta martxoaren 6rako 24 orduko greba deitu dutela.

Debagoineko langileek grebari emandako erantzuna %82koa izan zen sindikatuen arabera; aldiz, %35ekoa ospitaleko kudeatailearen ustez.

APARTEKO ARazorik EZ
Ibarreko ambulatorio gehienetan, Bergaran, Arrasaten, Oñatin, Antzuolan, Aretxabaletan eta Eskoriatzan, zerbitzu minimoezin egin zuten lan erizainek eta administrazioko langileek, eta ez zen arazo handirik sortu. Gainera, mediku gehienek lan egin zuten. Elgetako eta Aramaioko osasun zentroetan, medikuek eta erizainek –mediku eta erizain bana dago– egin zuten lan.

Bestalde, Osakidetzak egunkarietan kaleratutako iragarkiak ika-mika ugari eragin du, baita ibarrekoordezkarien artean ere. Iragarkian dioenez, sindikatuek egindako eskaintzak onartzentzu ditu Osakidetzak, "baina ez haien eskatuko baldintzetan". Hain justu, ez dituzte hainbat puntu onartzentzu; bestek beste, lan-sari finkoetan %37rainoko igoera; 55 urtetik gorakoendako lanaldia murriztea; eta azterketarik egin gabe langileak kontratatzea.



OSPITALEAN Argazkian, martitzeneko kontzentrazioa. TXOMIN MADINA

POLITIKA > HAUTESKUNDEAK

Bi debagoiendar daude EAren zerrendetan

Senaturako zerrendan laugarren Ino Galparsoro Arrasateko alkatea joango da, eta Kongresurako, hirugarren, Bergarako alkatea, Agurne Barruso

JASONE ZABALA > BERGARA
EAk pasa den domekan aurkeztu zituen Hernanin, Espainiako Kongresurako eta Senaturako hauteskundeetan Gipuzkoako hautagaitzako zerrendak. Hori horrela, batean zein bestean boda Debagoiendarrik. Senatu-

rako, Arrasateko alkate Ino Galparsoro laugarren da zerrendan. Kongresurako, berriz, Bergarako alkate Agurne Barruso hirugarren doa. Zerrenda-buruak, berriz, hauek izango dira: Kongresurako, Urretxuko alkate Iñaki Zubala eta Senaturako, Miren

Legorburu Hondarribiko zinegotzia. Hernanin egindako zerrenden aurkezpenean, argi utzi zuen Miren Legorburu Senaturako zerrenda-buruak "etsaiak ere badakiela ezker abertzalea alda-keta politikorako berme bakarra" dela. "Horrexegatik egongo gara

bozalduotan", gaineratu zuen. Bestalde, garbi azaldu zuten alderdi ekintzailearen proiektu politikoa Euskal Herriaren independentzia eta sozialismoa lortzea dela.

Otsailaren 5ean, martitzena, Garzon epaileak deituta, EAren ordezkariak Madrilera joan beharko dute. Bertan, alderdiaren etena aztertuko du, eta baliteke egun berean EAren gaineko erabakia plazaratzea Garzon epaileak.

EZKER BATUAREN ZERRENDA
Ezker Batuak, bestalde, Gipuzkoarako aurkeztutako zerrendetan, boda debagoiendarrik: Senaturako bigarren Karmelo Perez oñatiarra dago. Senaturako zerrenda-buru Isabel Lopez Aulestia izango da eta Kongresurako, Arantza Gonzalez.

POLITIKA

Iratzarrik kanpaina aurkeztu zuen atzo

Aralarreko gazteek eztabaida irekiak sustatzeko asmoz egin dute kanpaina

JASONE ZABALA > BERGARA

Atzo Iratzarrik –Aralarren gazte erakundea– prentsurreko egin zuen Arrasateko Kulturaten, *Jarri zure aho-tsa XXI. mendeko sozialismoari... Etorkizuna ezkerretik dator* kanpaina aurkezteko. Prentsurreko egin zuten: Oñatiako Aralarko zinegotzi Miren Arregik eta Gipuzkoatik Kongresurako zerrendetan dagoen Josu Zugasti arrastearrak.

KAMPAINAREN HELBURUAK

Bertan, kanpainen helburuak zehaztu zituzten: *Denon artean, independentzia!* lelopean egin zen kanpaineri jarraipena ematea eta eztabaida eta parte-hartze guneak sortzea, gazteria ezkertiar eta independentistarentzat.

> 'EUSKAL Y'-A
Otsailean hasiko dira 'Y'-aren Gipuzkoako zatiko lanak

Euskal Y-aren lanek aurrera-pausoak emango dituzte otsaileetik aurrera Gipuzkoari dagokion tartearen. Araban lanekin hasita daude, eta Bizkaian martxoan hasiko dira. Guztira 172 kilometroko trenbidea egingo dute, eta lanen aurrekontua 4.178 eurokoa da. Gasteiz eta Bilbo lotuko dituen trenbide zatia Sustapen Ministerioaren esku egongo da eta Bergarakit Irunea doan Gipuzkoako zatia, Eusko Jaurlaritzaren esku.

> GARRAIOA
Gasteiz-Eibar autobidea 4,6 euro ordaindu beharko da

Urtebete barru Gasteiz eta Eibar arteko 46,2 kilometroak inauguratzen dituztenean, auto batek 4,6 euro ordaindu beharko ditu, Arabako Diputazioak 2003an Gipuzkoarekin hitzartutako irizpideak mantenduz. Horrela, kilometro bakoitzak 0,0841 euro balioko du. Kopuru honetan, sartuta dago 2004 eta 2008 arteko KPIren (Kontsumorako Prezioen Indizea) gehikuntza.

gure artekoak

FORD FOCUS > Ford etxeak bigarren belaunaldiko Focus auto berritua aurkeztu berri du; autoak lehengoaren egitura bera izaten jarraitzen du. Ibarrean, azken hamar urteetan gehien saldu den autoa da Ford Focus.

Rafa Etxabe > Mugarri etxeko salmenta-burua

"Gure ibarrean liderra den autoa berritu egin dugu"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Oraintxe aurkeztu berri dute Ford Focus berritua; 2005ean merkaturatu zuten Focus berriaren itxura aldaketa da. "Orain, berritu besterik ez dute egin; kanpoko itxura zertxobait aldatu diote, etxe bereko beste autoen antza izan dezan. Baino motorrari dagokionez, lehengo bera da", argitu digu Rafa Etxabek, Mugarriko saltzaileak.

Azken hamar urteetan, merkatuko liderra izan da Ford Focusa; ibarrean gehien saldu den autoa izan da, duda barik.

MATRIKULAZIO ZERGARIK EZ

Ford Focus 1.6 TDCI modeloak, esaterako, ez du matrikulazio zergarik ordaindu behar. Izan ere, automobilaren CO2 isurketa 120 g/km baino txikiagoa bada, ez dute zertan ezer ordaindu. Eta, hain zuzen, Focus autoak 118 g/km-ko isurtzen du.

Motorrari dagokionez, aukera zabala dago. Dieselezko bost motor aukera daude eta gasolinazko sei. Aldaketa kaxan, berriz, hiru aukera daude: sei martxa, bost martxa eta sekuentzia kaxa. Azken horrek martxa automatikoa eta eskuzkoa erabiltzeko aukera ematen du.

Segurtasunari dagokionez, merkatuko erreferentzia da Ford



Rafa Etxabe, Mugarri etxeko salmenta-burua.

A.E.

Ford Focus 1.6 TDCI 110 ZP

Prezioa 16.700 eurotik aurrera

Luzera	4,34 metro
Zabalera	2,10 metro
Maletategia	385 litro ⁽¹⁾
Kontsumoa	4,5 litro /100 km ⁽²⁾
Abiadura	177 km/h ⁽³⁾
Otik 100era	12,6 seg.
CO2 isurketak	118 g/km

(1) Gehienezko edukiera

(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barruko eta errepidekoak kontuan hartuta

(3) Gehienezko abiadura

Focus. Bai segurtasun aktiboa eta bai pasiboa ondo zaintzen ditu Ford etxeak bere auto guztieta. Auto modeloaren arabera, prezioa ezberdina izango da: 14.500 eta 27.000 euro artean.

MUNDUKO RALLY TXAPELDUNA

Autoa jende gazteari zuzenduta dago; baina, "segurtasunagatik eta karrozeria gogorragatik, jende helduak ere erosten du", argitu du Etxabek.

Gainera, Ford Focus munduko rally txapelketako irabazlea izan da aurten, auto etxeei dago kienez.

etxeko leihotik



Goiatz Arana > GOITBko erredaktore-burua

Ez noa igogailuan hau idaztean, baina...

E guraldiaz hitz egitera natorkizue oraingo honetan. Aterki behar handirik ez dugu izan urtea hasi genuenetik: urtarriko lehen hamabostaldian bota zituen euri zaparrada batzuk –Arantzazun, 15 egunetan, 81 litro kubiko ur jaso zituzten–, baina hilaren 17az geroztik, ez du tantarik ere egin, eguztenera arte.

Guztiok dakigu beharrezko dela ura eta, horretarako, euria egitea, ezinbestekoa. Baino nago ez ote ditugun prezipitazio horiek hain gustuko. Euria zetorreleta, "eguraldi desatsegina" iragartzen zuen Euskalmetek aurreko baten;

nik, ezetz, gustuen araberakoa zela hori; eta lankideek, nola esan nezakeen halakorik!, euriak ez duela laguntzen haurrekin mugitzeko, erosketak egiteko edota grabatzera irteko. Eta arrazoia. Argudio horiekin, ezingo diet kontrako rik esan, bada! Baino kontatuko banizue niri zenbat gustatzen zaidan aterkipean Ormaiztegitik Gabirriara paseoan joatea, edo zeinen oroitzapen onak ditudan, euriak aurpegian jotzen zigula, piraguan ibili gineko aldi hartaz... Gogoratzen dut eten barik botatzen jar-dun zuen urtebetetze egun bat ere. Ez zen opari txarra izan.

"Euria zetorreleta, eguraldi desatsegina iragartzen zuen Euskalmetek"

> Aratusteetako

festa lehertu zen atzo, eta datorren martitzene-ra arte jai giroak ez du atseden hartuko. Bien bitartean, euriari tregua eskatuko diogu, ez ditzala urak gure mozorroak zapuztu.

> Toki garaietan,
egin dezala elurra, beldur barik, neguan gaudela gogoratzeko bada ere! Eta beherago egitekotan, gerriraino! "Ez dago mugitu ere egiterik, ezinezko da", esateko moduan.

begi-bistan



**Zuhaitzak moztu dituzte
(Oñati)
2008/01/30**

Argazkia: Arantzazu Ezkibel.
Testua: Arantzazu Ezkibel.

Negua izaten da zuhaitzak kimatu edo mozteko garaia. Hala, egun hauetan hainbat herritan ikusi dugun irudia da goikoa. Argazkikoak Oñatioko Errekalde auzoko zuhaitzak dira.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera:
goienkaria@goiena.com

izen propioak



**Koldo
Martinez**

MEDIKUA



**Xabino
San Sebastian**

BERTSOZALEA



**Luis
Laskurain**

MARGOLARIA

Eskoriatzan jaio baina Arrasatearra den Koldo Martinez NA BALKO Senaturako hautagaia izango da martxoaren 9ko hauteskunde orokoretan.

Martinez mediku da eta bioetikan aditua. Era berean, Euskara Kultur Elkargoko presidente da. Maialen Lujanbio eta Josu Goikoetxearen laguntza izan zuen San Sebastianek gidoiak eta gaiak jartzeraoan.

Gaur hasi eta hilaren 28a arte izango dira ikusgai Luis Laskurain margolariei bergararraren lanak New Yorken. Hain zuzen, Madison Avenueko Ezair Gallery delakoan egongo dira Laskurainen margoak; zortzi lan eramango ditu bergararrak New Yorkera.



zabalik

Rufina Olasagasti

Aita eta ama lanean

Oraindik ere ohikoa da gure artean ea amak lanik egiten duen entzutea, eta erantzuna ezezkoa izatea etxeko lanetara dedikatzen den kasuan.

Hau ez da lagunarteko solas eta berriketetan bakarrik gertzen, ordea: familia bizitza eta lan profesionala bateragarri egiteko hainbat lege eta neurritan (amatasun-lizentzia, aitatasun-lizentzia,...) sarritan agertzen da "...aitak eta amak lan egiten dute nean..." espresioa.

Prentsan ere honela agertu ohi da: urtarrilaren 22ko *Berri*-n Liluraldiko, Gipuzkoako familia ugarien elkarteko, presidenteari egindako elkarritzetan dio gizarteko egiturak ez direla aldatu (umeen eskolako egutegia, lantegietako ordutegiak,...), baina bai gizartea: "Emakumeak ez zuen lan egiten; orain bai". Familia osaren etxebizitza, elikadura, jantziak eta zainketa premiak asetzera dedikatzen zen emakumeak ez zuen lanik egiten!

Errekonozimendu gabezia hori eta beste arrazoi batzuk direla medio, etxetik kanpoko lan ordaindua egitera jo du emakumeak, eta luzaroan beste ekonomia arloen artean ezkutuan egondako lan hauek duten balorea hasi da azaleratzen; ordaindu gabeko lanak, baina behar-beharrezkoak familiaren eguneroko bizitzan.

Gaur egun badirudi bietan erantzun behar duela emakumeak: lantegian eta etxeen. Etxeko lanak bikotekidearekin banatu ezean oso nekeza, batez ere seme-alabarik izanez gero. Lantegian promozionatzeko ere, nekeza zao orduz kanpoko formaziorako denbora libratzea. Eta batez beste emakumezkoen soldatak gizonezkoenak baino nabarmen txikiagoak dira.

Mundua mundu denetik lan egin du emakumeak, beste gauza bat da lan horren errekonozimendua, gizonek euren arabera antolatutako gizartean.

Goienkaria

Argiraratzalea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belaustegi **Sailako arduradunak** Leire Kortabarria (Herritarra), Aitziber Aranburuza (Giza), Kabi Urtezai (Kirola), Alex Azkarate (Oiseinua), Mireia Larraga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Maderra, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arrixtu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuria, Arantza Ezkibel, Irati Agirrezailegat **Oinarriko diseinua** Goi Arana **Maletazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larraga, Amaia Mundináin, Zlortza Martín, Iñaki Bereizbar, Fausto Berazadi **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarin, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 19.400 ale • Difusioa: 19.056 ale.



OJD erakundeak
ikuskatutako asteakaria

LAGUNTAZIALEAK



herriarrak galdezka

FAMILIENDAKO ORIENTAZIO PSIKOLOGIKORAKO ZERBITZUA

Bergarako Udaleko Gizarte Ongizate Sailak iazko urtarrilean familiiei orientazio psikologikoa emateko zerbitzua jarri zuen martxan. Arrasateko irakurle batek sei urteko neskatoa duka eta jakin nahi du urte berriarekin batera martxan jarraitzen ote duen zerbitzuak, eta nora bideratu behar dituen galderak.

Udaleko Gizarte Ongizate Sailaren arabera, iaz oso erantzun ona izan zuen zerbitzuak. Hala, aurten ere martxan jarraitzen du. Euskal Herriko Unibertsitateko fakultatetik ematen dute, Etxadi taldearen bitartez, eta 0 eta 19 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta dago. Doako aholkularitza zerbitzu pertsonalizatu eta konfidenzialia da eta ondoko eskaintzen du: guraso eta seme-alaben arteko harremanak hobetzeko informazioa; seme-alaben garapen pertsonala sustatzeko orientazioa eta jarduera estrategiak, familial gertatzen diren heziketari buruzko zalantzak argitze aldera.

Zerbitzua erabil daiteke hiru modutan:

Telefonoz dei daiteke 944 05 15 49 telefono zenbakira: egunetan, 11:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 17:00etara egin daitezke kontsultak.

Mezuak bidal daiteke posta elektronikoz: familiek Bergarako Udaleko webgunera jo dezakete -www.bergara.net- eta han Etxadi taldearen webguneararen esteka aurkituko dute.

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratura bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaligu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxe: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

LANDA GARAPENERAKO BULEGOAREN INKESTA

Landa eremuarekiko ohitura onen gidaliburu kaleratu zuten urte amaieran Debarroko landa garapenerako bulegoek. Han jasotzen zen inkestari erantzuteko azken eguna noiz den jakin nahi du irakurle batek.

Otsailaren 15a da azken eguna –baita iradokitunak egiteko ere–. Inkestok helbide hotetara bidali behar dira: Deba Garaia bulegoa, Urteaga 23, 20570, Bergara. Webgunean ere erantzun daiteke inuesta: www.landagipuzkoa.org/deben. Parte-hartzaleen artean, baserriko produktuz osatutako bost otarre zozkatuko dituzte.

marrakiz

Unai Busturia



Erromako gizonen musuak

Joxe Arantzabal
www.goiena.net/blogak/farao

Axularren hitzak dira ondorengoak. Ez dakit kontakizun hau zenbatearaino den egia, baina ederkir erakusten du gure abadearen mundu ikuskerak:

Lehenago Erromako emazteek ez zuten bat ere arnorik edaten. Zeren bertzrentzat ere itsusi da sobera edatea, baina emazteentzat are

itsusiago eta perilosago. Handik uste dut etorri zela usantz, arrotz kalean, kanpotik etortzean, gizonek emazteei pot egitea, musu emaitza, jakiteko ea arno usainik bazutenz.

'Sinco'

Elena Laka
goienkaria.net/blogak/elena

Aitortzen dut joan zen egunean Bilboko zentroko okulista trajedun

haren kontsultan, entzun nionean Oierri "sinco" esaten zenbat urte zeukan galdeitu ziotenean, lotsa apur bat sentitu nuela. Gauzek baina okerrera egin dezakete, eta okulistak berriro galdezu zionean "cuantos años tienes?" mutikoak "tiengo cinco años" erantzun zuen. Errematea.

Onartu behar da, Oier gaztelera ikasten dabil, eta nahiz eta ondo samar ulertu, hitz egiterakoan askotan sartzen du hanka, aditz irregularrarekin, artikuluekin, generoarekin, sintaxiarekin.

- Tiengo cinco años.
- Ahí está cocodrilo uno.

plazara

Musikaren berehalako eraginak ezagunak ditugu: poza edo tristura sentitzea, abestea, dantza egiteko gogoa, barrea eragitea... Bai-

na musikak baditu beste hainbat onura eta preziatuenetako da norberaren ezagutza eta garape- nerako martxan jartzenduen pro-

zesua, Aintzane Aranaren arabera. Are gehiago, Aranaren esanetan, horixe da musikak eskaintzen duen altxor ezkutua.

Aintzane Arana *

Musika: norberaren eta gizartearen altxorra

Gure bizitza osoan zehar baloratu izan den artea da musika. Adin guztietako pertsonek gozatu eta baloratzen dute.

Emozioen espresioarekin lotu izan da musika sarritan eta "emozioen hizkera" ere deitu izan zaio. Horrela, emozioen horizontzaile gisa eginkizun garantzitsua betetzen du gizartean, espresio-bidea ematen baitie bestela agertzeko modu errazik aurkituko ez luketen ideia eta emozioei. Iku ditzagun, adibidez, min eta galera kasuak; kasu horietan oso zaila da gure sentimendurik sakonenak adierazteko hitz egokiak aurkitzea.

Aldarrakapen sozialei eta mugimendu kultural eta soziallei erreparatzeko badietu, argi ikusiko dugu musika era onarrigarria dela bestela polemiko edo onartezin izan litezkeen ideiak adierazteko. Atxagak dio gelditzen den azkeneko gauza kantua dela. Hizkuntza eta ohiturak galdua ere, kantuak irauten dueña. Eta kantuak inguruuan biziak asko daude.

Musika pertsonen artean amankomunean dugun elementua da eta, gainera, ahalmen anitzak dituzten pertsonak behar ditu bere izaera osoa izateko, erlazio eta garapenaren bultzatzaileko.

Gaur egungo gizartean hainbat betekizun ditugu: komunikazio eta giza-interakziorako gaitasunak lortzea, arreta hobetzea, garapen kognitibo eta motriz ahalbidetzea, etab. Baina gero eta zailagoa da lanean, bikotearen artean eta familiaran komunikazioa eta elkarrizketa emozionala.



Gaur egungo presakako bizi-moduak *gure denbora* lapurtu digu.

Bizitza osasuntsua izateko ezinbestekoak dira, ordea, atal psikologikoa, emozionala eta energetikoa.

Yllana taldeko Ara Malikian biolin jotzaile trebeak joan den astean egindako elkarritzeta batean zioen berak ezagutzen duen droga sano bakarra musika dela. Eta gaineratzen zuen: "Agian nahiz eta guk ez jakin terapia garrantzitsuenetako da".

Musikoterapiak musika pertsonari itzultzen dio. Pertsona oro gai da musika egiteko bere ongizaterako. Musikaren bidez sormen prozesuan murgiltzen da

"Sorkuntzarako era eta maila infinituak daude, baina kasu guztietan pertsonari bizirik dagoen sentsazioa ematen die"

"Musikak norberaren ezagutza eta garapenerako martxan jartzenduen prozesua da musikaren altxorra"

pertsona. Denok erabili dezakigu musika autoespresio eta komunikazio baliabide gisa.

Sorkuntza ez da jenioena, gizakiarena baizik. Sorkuntzako era eta maila infinituak daude, baina kasu guztietan pertsonari "bizirik" dagoen sentsazioa, askatasun zentzua eskaintzen dio.

Musikoterapiak aukera berria eskaintzen du, musika egin eta entzutean gertatzen den prozesuaz eta honek pertsonaren garapenerako martxan jartzenduen aldaketaz arduratzan delako. Sentimenduak eta emozioak musikaren bidez adierazi eta heztekogunea eskaintzen du.

Proustek pertsonaren lau dimentsio hartzen ditu kontuan: zer-nolako pertsona den, zer-nolako pertsona izan behar duen, zer-nolako pertsona izan daitekeen eta zer-nolako pertsona izan nahi duen. Musikak zer izan nahi duen eta zer izan daitekeen dimentsioak lantzen ditu.

Musikaren berehalako eraginak denok ezagutzen ditugu: abesti bat entzun, abestu edo jo onoren, tristura, poza, dantza egiteko gogoa, erlaxazioa, etab. sentitzen dugu. Baina musikak norberaren ezagutza eta garapenerako martxan jartzenduen prozesua da benetan musikaren altxor ezkutua. Edgar Morinek bere autobiografia liburuan dio: "Musika nire bizitzan sartu zen eta hor dago beti niri gehien axola zaidana eta hitzez adierazi ezin dudan hori esateko".

*Aintzane Arana, musikoterapia irakaslea da

zer deritzozu?

www.goiena.net

Publizitateak eragiten dizu eroasterakoan?

BAI	%75
EZ	%25

> EROSKETAREN ARABERA

Egidako erosketaren arabera. Arropa erosteko bida, kasu egiten diet markei, baina janaria erosteko bida, ez. Arropa-en kasuan nahiko kontuan hartzen dut markena.

Mikel

> BAI

Iñak bezala, arroparen kasuan eragina du nigan publizitateak. Baian horrez gain, etxerako garbiketa produktuak erosio behar ditudanean ere fijatzen nai publizitatean. Askotan erosten ditut publizitatean oinarritutako produktuak.

Maitane

> ZALANTZA KASUETAN BAI
Marka ezezaguneko produktu baten eta ezaguneko beste baten artean uste dut egiten dugula ezagunaren alde. Nahiz eta, agian, bestea hobea izan.

Leire

> EZ

Gaur egun markari baino prezioari begiratzen diogu.

Aitor

DATORREN ASTEKOAK: Zer deritzozu abortoari? Legeztatu egin behar da?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

koplak

Julen Iriondo

Karnabal, karnabal

Neguan bete-betean eta arbolak jada loratan. Negua udaberriz jantzita etorri da urte hontan.

ANV kanporatzea eta bozak bereizita, Garzon orain ari da epaile onan kareta jantzita.

Berriki ibili da Elgetan Iban Arantzabal bera mikroa eskuetan hartuta Bertin Osbornen antzera.

Aiestaran ez zegoen ados ta dimisioa eman; Badiola ez al da izango Donostiako Piterman.

Zapateroren promesak orain eta Rajoyrenak gero: bi hauetan zein da Aita Noel, eta zein da Olentzero?

Karnabaletan jende arrunta mozarrotu gaitezela, ta normalean daramatenak behingoa ken dezatela.

edadetua, gipuzkoar zein bizkaitar, ez nahitaez herri hain txikietakoa. Gauzak primeran azaltzen dituzte, euskaraz, baina gaztelera gutxi dake. Ulertu bai, berba gutxi. Eta orduan, epai-sistema guztia eraldaduna denez, euskaldunak ezjakin arlotea ematen du,

kaxero bat. Itzultzalearen laguntzarekin batzueta, itzultzalea onarta barik bestetan, bere ezjakintasuna hain nabarmen izan ez dadin, ozta-ozta erantzuten dio galde-tutakoari, berba solteekin, loturarik ez daukaten esaldiekin, genero eta artikulu aldetik eskasa den kastellanoa erabiliz.

Menperatzen duten hizkuntzan galdetzen ez dietelako. Epaitegia, beste tokia asko moduan, eraldaduna delako.

Txalatu, aupatu, diruz laguntzen ditugu euskara ikasten dutenak, geure hizkuntzaren maila apaltzen dugu beraiendako. Eta ez dago gaizki. Baina badaude baita ere meritua miresten diegun euskaldun berri horiek euskaraz bezain trakets hitz egiten dutenak gaztelera. Horiek euskarra (ona) baino ez dakiten *kaxero*-ak dira. Umeak eta zaharrak, gehienbat.

"Piska bat, es mucho". Un poco, zenbat da?

- Tú no das daño a mí. Ikasiko du, ez daukat dudarik, hori da nahi duguna, geure umeek ahalik eta gauza gehien ikas ditzaten.

Baina onartzen dut gazteleraz hain gaizki hitz egiteak batzuetan *kaxero* itxura ematen diola, oraindik oroitzen baitugu Txomin del Regato hura.

Ze umea berbetan oso ondo moldatzen da, baina euskaraz.

Tokatu izan zait epaitegi tan berbetan oso ondo moldatzen zen jendea, komunikazio-rako erraztasuna zeukan, epaitegian erabat ezjakin itxura eman zuena: gazteleraez gaizki dakinak. Batez ere jende

Elkartasunaren adierazpena

Maria Francisca Gonzalez

(Aspanovas-Gipuzkoako presidenteoa)
Donostia

Gipuzkoako Aspanovas elkarteaaren (Gipuzkoako Haur Minbizidunen Gurasoen elkartea) izenean gure eskerrik onena eman nahi genizkieke Super Amara SLri eta Okendo nahiz Victoria kafetegiegi gure elkarteari emandako laguntza guztigatik.

Super Amarari, 3 ordenagailu eramangarriren finantzakatagatik, helburu pedagogiko eta entretenigarria duen tresneria, Donostiako Ospitalean dauden haur minbizidunen atseginerako.

Era berean, entitate honek abenduaren 29an Kursaalen ospatu zuen elkartasuneko galari eskerak, bertan lortu ziren irabazietako zati bat elkarteari eman baitzitzaien. Okendo eta Victoria kafetegiegi, Errege Eguneko elkartasun errosoiak egitearen ideia politagatik eta lortutako diru irabaziak Aspanovas-Gipuzkoari emateagatik.

Era berean, Errege Egunean, Pediatrian zeuden haur guztietaz gogoratzeagatik, bereziki haur minbizidunak, eta errege-errosoiak pertsonalki eramateagatik Donostiako Ospitalera.

Gutun horretan ere eskerrik eman nahi genizkieke lagundu diguten erakunde eta pertsona guztiei. Ordizia, Urretxu, Bergarako udalei, beraien udalerriean egin diren ekitaldiengatik. Caja Laboral-Euskadiko Kutxa entitateari, Aspanovas-Gipuzkoari laguntzeagatik. Irizar SI enpresari; bere laguntzari esker aurten gure elkartea X. urteurrena ospatuko du Kursaalen. Pirritx eta Porrotx pailazoei (Katxiopretxa Kooperatiba Elkartea), *Eskerrik asko* izena daraman proiektu onagatik (ikuskizuna, abesti CDa, unitate didaktikoa...), haur minbizia goxotasunez eta naturaltasunez tratatzagatik. Merkataritza zentroei: Eroski (Garbera merkataritza gunea) eta Carrefourri (Oiartzun eta Olaberria)... gure ekintzetarako produktuak emateagatik.

Era berean, elkartean diru irabazi asmorik gabe lan egin duten boluntarioei eta elkarteko

ak aurrera segi dezan beraien elkartasuna eman diguten pertsona ezezagun guztiei.

Eskerrik asko, bihotz-bihotzez.

**73.327 euro
(12.200.586 pezeta)**

Basili Ormazabal
(Parrokiaren Zaharberritze Komisioaren izenean)
Antzuola

Goian dagoen diru kopurua etxez etxe egindako diru eskaeratik herritarrengandik jaso duguna da. Egia esanda, gure aurreikuspenetik gain dagoen diru kopurua izanik, Antzuolako parrokiaren zaharberritzean lanean ari garen guztiak aldetik, letra handiz idatziko dugun eskerrik asko besterik ez zaigu une honetan bururazten. Baino, aldi berean, ziur egon zaitezte, jendearen ekarpen honek gogotsuago lanean jarraitzeko motibatzen gaituela.

Une honetan kanpoko obra nola doan bistan dago, handik

eta hemendik ikusten delako. Erreteila martxa onean doa, eta uste baino gapirio gehiago aldatu bada ere, laster batean hasiko dira teilak jartzen.

Kanpandorrean ekiteko aldamioek ere adierazten digute kanpandorrearen eta bere fatxadaren konponketa eta berritze lanari laster ekingo zaiola. Baita elizarako egin nahi den sarrera berriari ere. Esan dezakegu, bada, aurreikusitako epeetan ari garela lanean; izan ere maiatzean bukatu nahi da obraren lehen aldi hau.

Beraz, lanean jarraitzeko gogoz gaude, motibatuta gaude. Hurrengo erronka elizaren barrua da: pintaketak, argiterria, soinua, organoa, aldarea... Laster batean aurrekontuak eskatzen hasiko gara, eta lehen fasea bukatu orduko, bigarrenari ekin nahi diogu. Orduan ere, ziur gaude zeuon laguntza izango dugula.

Baina etxez etxe banatutako eskutitzen honen helburua eskerrik zuei ematea da, egin duzuen diru ekarpenarengatik. Beraz, Parrokiaren Zaharberritzko Komisioaren aldetik, eskerrik asko eskaini duzuen laguntzarengatik.

Epaiketak

Irat Martínez
Arrasate

Beste behin argi geratu da hedabideek egiten dutela, sarritan, errudun edo errugabe norbait. Horretarako, gainera, sekulako zala parta sortuz. Enaitzen gurasoekin justizia egin ei da. Norbaitek ez badaki, bizikletan errepidek zohoala auto batek harrapatu eta hil egin zuen mutikoa da Enaitz.

Autoaren gidariak jokabide moral eta etikoki kritikagarria erakutsi du. Enaitz harrapatu zuenean autoa mazpildu zitzainez, konponketaren gastuei aurre egitea gurasoiekin justizia egin die. Eta kritikagarria da hedabideek erabili duten jokabidea, kasu batzuetan. Baino, era berean, autoaren jabeak eta mutikoen gurasoek hedabideak erabili dituzte.

Epaileei dagokie justizia egitea, baina hedabideek eman dute epaia. Ez hori bakarrik, gurasoak autoaren jabea epaitegietara eroateko bidea zabaldu dute. Gizajoa autoaren jabea. Batzuetan isilik egotea komuni da...

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeo. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefona:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goinkaria@goina.com

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Hedabide guztietarako telefono berria eta bakarra

943 25 05 05

Goitb
Goiena Telebista

ASTELEHENKO
Goienkaria

ARRASATE
IRRATIA

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria



EGIN TXOTX! sagardotegietan



Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 605 70 64 51

- Sagardoa eta txakolina txotxetik.
- Postreetan aukera zabala.
- Ostegunetik igandera irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- Eserita. Jangela 100 lagunentzat.
- Bertako janaria.



Larre-Gain

Larre-gain sagardotegia
HERNANI
943 55 58 46 / 616 28 78 67

- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Bakailoa saltsan, aurrez deitura
- Astegunetan, gauetan bakarrik zabalik
- Egubakoitzetan eta zapatueta egin osoa zabalik
- Domeketan, eguerdira arte zabalik
- Astelehenetan, itxita
- “Tolare” sagardotegia



Ixaun

Elosu auzoa / BERGARA
943 85 32 50


- Egubakoitzak, zapatuak eta domekak zabalik
- Sagardotegiko menua
- Baserriko oilaskoa eta arkumea enkarguz
- Bertako janaria
- 55 lagunendako lekua



Elutxeta

Elutxeta baseria / URNIETA
943 55 69 81

- Urte osoa zabalik.
- Apiril bukaera arte txotxetik.
- Astelehenetan itxita.
- Erretegia urte osoan.
- Bertako janaria.
- 200 lagunendako lekua, eserita edo zutik
- “Tolare” sagardotegia



Rezola

Ipintza baseria / ASTIGARRAGA
943 55 27 20 / 608 14 33 32
rezolasagardotegia@euskalerria.org

- Urte osoan zabalik.
- Zutik edo eserita.
- Berezitasunak arkumea eta txerrikumea burduntzian (enkarguz).
- Igande arratsaldeak itxita.
- “Tolare” sagardotegia



Arratzain

Arratzain Zahar baseria
Arratzain auzoa / USURBIL
943 36 66 63

- www.agroturismoarratzain.com • info@agroturismoarratzain.com
- Sagardotegia, nekazaritza turismoa eta jatetxea.
 - Urtariletiak maiatzera arte sagardotegia irekita
 - Urte osoan erretegia
 - Janaria sagardotegiak jartzen du
 - Lekua: 120 lagun, eserita edo zutik
 - “Tolare” sagardotegia



Begiristain

Iturrioz baseria / IKAZTEGIETA
943 65 28 37
s.begiristain@terra.es

- Urtariletiak uztail bukaera arte zabalik, sagardoa txotxetik
- Afariak astelehenetik zapatura, bazkariak eguenetik zapatura
- Sagardotegiko menua
- Arkumea burduntzian enkarguz
- “Tolare” sagardotegia



Añota

Elosiaga auzoa, 434 Urraki errepidea
AZPEITIA
943 81 20 92

- Urte osoa zabalik (oporrak Gabonetan)
- Bazkari eta afariak egunero
- 250 lagunenzako lekua
- Berezitasunak: zezina tortilla eta zezina arrautzeztatua
- Sagardo botilen salmenta
- “Tolare” sagardotegia



Otatza

Otatza baseria / ZERAIN
943 80 17 57
ramonilopetegi@hotmail.com

- Maiatz bukaerara arte zabalik
- Domeka gaua eta astelehena egun osoa itxita
- Bertako janaria
- Aste bukaera eta jai egunetan egun osoz zabalik
- 170 lagunendako lekua eserita
- Eguerditan enkarguz zabalik
- Sagardo botilak urte osoan salgai baserrian.
- “Tolare” sagardotegia

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEVERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

LORENZO M. JOOSTEN

Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)

Bergara / Zurradero 6, behea / 943 76 70 67 / 607 48 71 19

ETXEVERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / Zerkaosteta 19, behea / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriozt 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfonso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

OÑATI / ATZEKO KALEA 6, BEHEA / 620 124 843 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

GAES

Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93

Bergara / Zurradero 10 / 943 76 94 55

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ITZIAR UGARTE OPTIKA - AMPLIFON

Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA

Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96

ARZAK MIREN

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

BASTERRETXEA MARIA

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA

Bergara / Burdiñate 2 / 943 76 21 31

IRATZARRI FISIOTERAPIA LOGOPEDIA ZENTROA

Arrasate / Uribarri etorbidea 7 / 943 53 39 90

UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.

Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

IRATZARRI LOGOPEDIA FISIOTERAPIA ZENTROA

Arrasate / Uribarri Etorbidea7 / 943 53 39 90

MASAJISTAK

ABUIN JOSE LUIS

Arrasate / San Josepe 10, behea D – Kiroldegin

943 77 01 33 / 943 77 16 77

ARANTZABAL SAIOA

Elgeta / Domingo Iturbe 10 / 646 50 00 29

ARANTZETA JUAN MARI

Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

CASANELLAS JABIER

Bergara / Boni Laskurain 5-2E / 943 76 03 78

ELORTONDO FLOREN

Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

ETXEVERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

OPTIKAK

ARRASATE OPTIKA

Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

ITZIAR OPTIKA

Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88

ITZIAR UGARTE OPTIKA

Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95

Bergara / Ibargarai 16 / 943 76 15 75

PORTALOI OPTIKA

Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

ETXEVERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

AZPIAZU ARANTZAZU

Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerlekuk zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

AGIRRE ENARA - PSIKOTERAPEUTA

Antzuola / Olaran etxea 3, MA10 / 670 45 19 62

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-32 Oñati > 33
Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **ARRASATE**
Herrian egingo diren proiektu nagusiez berbetan alkatearekin > 19



> **BERGARA**
On Serafin Esnaola zenaren argazkiak Udalak dauzka orain > 24



> **ARETXABAleta**
Koadrilen desfilea, bazkaria eta beste ospakizun batzuk izango dira etzi > 32



> **OÑATI**
Urtebeterako hitzarmena egin dute Udalak eta Aloña Mendik > 33

BERGARA > ARTEA

Hogei erakusketa hartuko ditu Aroztegik 2009ko urtarrihera arte

AURKEZPENA

Egitaraua eta iazko balorazioa aurkeztu zitzuten arduradunek

ARTISTA EZAGUNAK

Muniategiandikoetxea, Azkargorta eta Amasorrain daude erakusleen artean

IRIZPIDEAK

Kalitatea eta herrikoitasuna dira bi irizpide nagusiak

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Bergarako Aroztegi aretoak geru duka hemendik eta 2009ko urtarrihera bitarteko erakusketak agenda, eta joan den egunean jakinarazi zuten prentsurrekoan. Aurten ere kalitatea eta herrikoitasuna bateratzen saiatu dira Aroztegiko Aukeraketa batzordeko kideak; eurek erabakitzen dute zer erakusten den.

Datorren eskauntzan izen nabarmenak daude: besteak beste, Manu Muniategiandikoetxea –Espainiako margolarri ospetsuenetariko batzuekin ikasi izan du Artelekun; eta Euskal Herrian eta Spainian, hainbat sari irabazi ditu–, Fernando Azkargorta –Simon Arrietaren dizipulu gogo-koena, Pintura Eskolako bultzatzaileetako bat, euskal margolaririk onenetakotzat dute adituek–, Joxerra Elortza –Eusko Jaurlaritzan Gure Artea lehiaketako irabazlea... Horiek, manganoritzan; argazki erakusketak ere egongo dira, eta Txomin Amasorrain bergararrarenara nabarmenzen da; haren jaiotzaren 100. urteurrena da, eta Aroztegiko arduradunek omenaldia egin nahi izan diote.

Bestelako erakusketa batzuen artean, Txotxongilo Mostraren harira antolatuko da bat, nahiz eta oraindik edukiak zehaztu



BATZORDEA Aroztegiko batzordeko kideak: Maider Osa teknikaria, Enara Minguez zinegotzia, Bingen de Pedro margolarria eta Xabier Aranburu museologoa. L. KORTABARRIA

gabe dauden; baita, abuztuan, euskal akuarelagileen taldeko erakusketa bat ere; euren elkarrekin antolatzen du hori.

OREKA
Aroztegiko batzordea Bergarako Udaleko kideek eta Beart Bergarako arte elkartekoek osatzen dute.

Kideetako bat da Bingen de Pedro margolarria, eta, hark dioenez, "era-kusketa aukeratzerakoan, oreka lortzen saiatzen gara: irizpide

nagusia erakusketen kalitatea da, baina Bergarako egileei ere tartea egiten diegu. Bergararrek gustuko izaten dute herriko egileen lana ikustea, baina kanpoan egiten dena ere erakutsi nahi diegu". Oreka hori lortzen ondo asmatu dute, De Pedrok dioenaren arabera: "Orain arte oso maila handiko erakusketak izan ditugu: Menchu Gal, Txopitea, Javier Sagarzazu, Iñaki Moreno Ruiz de Egino...; horiaz, zaila izango da aurrerantzen holako kalitate mailari eustea".

Aroztegiko egutegia, 2009ko urtarrihera arte

	ERAKUSKETA MOTA	INAUGURAZIOA	AZKEN EGUNA
Herriko taldeak	Taila eta zeramika	2008-01-04	2008-01-13
Taldeak: Beke	Emakumeek egindako hainbat lan	2008-01-18	2008-01-27
Aitor Etxeberria	Margolanak	2008-02-01	2008-02-17
Pol-Pol	Argazkiak	2008-02-22	2008-03-02
Celedonio Otaño	Karikaturak, margolanak, grabatuak	2008-03-07	2008-03-30
Fernando Azkargorta	Margolanak	2008-04-04	2008-04-20
Joxerra Elortza	Margolanak	2008-04-25	2008-05-18
Bergara Hiria argazki lehiaketa	Argazkiak	2008-05-23	2008-06-01
Bergarako Udal Artxiboa	Hainbat dokumentu	2008-06-06	2008-06-29
Esther Astarloa	Margolanak, eskulturak	2008-07-04	2008-07-27
Euskal akuarelistak	Margolanak	2008-08-01	2008-08-24
Txomin Amasorrain	Argazkiak	2008-08-29	2008-09-16
Kirol argazki lehiaketa	Argazkiak	2008-09-19	2008-09-28
Txotxongilo mostra		2008-10-02	2008-10-05
Mari Paz Alustiza	Margolanak	2008-10-10	2008-11-02
Manu Muniategiandikoetxea	Margolanak	2008-11-07	2008-11-30
Taldeak: filatelia	Seiluak	2008-12-05	2008-12-14
Taldeak: Beart	Margolanak	2008-12-19	2008-12-28
Herriko taldeak	Taila eta zeramika	2009-01-02	2009-01-11
Taldeak: Beke	Emakumeek egindako lanak	2009-01-16	2009-01-25

ITURRIA: BERGARAKO UDALEKO KULTURA SAILA

KILOMETROAK, IKUSIENA

Arduradunek iazko ekitaldia "oso positiboa" izan zela esan zuten. Hala, iaz 14 erakusketa izan ziren, eta 318 egunean egon zen zabalki aretoa; 15.210 bisitari izan zituen, eguneko 48, batez beste.

Ikuagle gehien Kilometroak jaiaren argazki erakusketak izan zituen: 1.767, hain zuzen ere. Segidan, bisitari gehien izan zituzten beste erakusketak ere herriko taldeek egindakoak ziren: Beart (1.284 bisitari), taila eta zeramika taldeak (1.270 eta 1.131, bi erakusketa), eta musika banda eta filatelia taldea (1.233).

zerbitzuak**GUARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

Zapatua, 2	Etxeberria	Zarugalde, 42	943 77 16 30
Domeka, 3	Etxeberria	Zarugalde, 42	943 77 16 30
Astelehena, 4	Azkoaga	Ferrerias, 1	943 79 15 15
Martitzena, 5	Azkoaga	Iturriozt, 17	943 79 79 99
Eguaztena, 6	Fernandez	Maisu Aranbarri, 1	943 79 22 26
Eguena, 7	Irizar	Erguin, 11	943 79 12 39
Egubakoitza, 8	Amezua	Santamarina, 32	943 79 09 74

BERGARA

Zapatua, 2	Alvarez	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Domeka, 3	Alvarez	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Astelehena, 4	Urrutioetxea	Oxirondo, 4	943 76 11 74
Martitzena, 5	Zabala	Barrenkale 25	943 76 16 87
Eguaztena, 6	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguena, 7	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Egubakoitza, 8	Alvarez	Iparragirre, 2	943 76 12 15

OÑATI

Zapatua, 2	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Domeka, 3	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Astelehena, 4	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Martitzena, 5	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguaztena, 6	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguena, 7	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Egubakoitza, 8	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28

ARETXABAleta

Zapatua, 2	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Domeka, 3	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Astelehena, 4	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Martitzena, 5	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Eguaztena, 6	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Eguena, 7	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Egubakoitza, 8	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK**((112))
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larraldia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Oasun Etxeak	
Arrasteko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramaio.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 03 54 30
Udalzainaogak.....	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 78 04 11

GARRAIOAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak.....	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaio.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Onati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltiegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegia alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Onati.....	943 78 36 67
Kiroldegiaik	
Aramaio.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Onati.....	943 71 63 75

ARASATE**URBANOAK****ARRASATE**

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.

IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Arimazubi, Alecop, Uriarrbi, San Andres, Garibar, ospitalea, Biterrí, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.

IBILBIDEA: Eroski, Erguín B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguín A eta Gorostiza.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.

IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibar, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uriarrbi, Erguín A eta Gorostiza.

BERGARA

San Lorentzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40,

12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00,

19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torre), Amillaga (Manso), S. Lorenzo (Soraluze), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martxo gainenean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaiarieta (Ekonoma-toan) eta Zabala jatetxea.

Labegaiarieta/Olabarrenetik irteerak

07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20,

12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 14:20, 17:00,

(Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaiarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martxo, San Antonio, Espolio (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubietza, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ARAMAIKO AUTOBUSAK


Arrasate	Aramaio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19	

kale inuesta

Salbador kaleko lanak hastear dira. Zer deritzozu?



Eugenio Bolinaga
Erretiratua
Elgeta



Imanol Olabe
Erretiratua
Elgeta



Fermin Iribar
Langilea
Elgeta



Xabier Ezpeleta
Langilea
Elgeta



Arrate Aistutu
Langilea
Elgeta

Beharrezkoak ikusten ditut lanak. Uraren hodiak apurtuta daude eta beharrezko da horiek konpontzea. Ni 13 urte noa hemen bizi izaten, eta berrikuntza behar du kale horrek.

Gauzak hobetzeko baldin bada, oso ondo. Ikusi beharko da amaitzen dutenean nola gelditzen den. Guk hemen garajea daukagu autoa sartzeko, eta beste norabait era-man beharko dugu.

Nik garajea dudan neurriean, kaltetua naiz. Bileera infomatzailean egon nintzen, eta ur hodiak aldatu beharra egoki ikusten dut, urte asko dituzte eta. Ea epe barruan amaitzen duten.

Erabat ados nago egingo diren lanekin. Nik taberna eta biltegia kale horretan ditut. Udalak bere partetik ahalik eta era-gozpen gutxien sortzen saiatuko dela esan digu negozioak ditugunoi.

Ez dakit nola konponduko garen. Kale horretan okindegia daukagu guk. Hala eta guztiz ere, udalak esan digu lanak hasi aurretik erraztasunen batzuk emango dizkigu-tela; ea horrela den.

txistuak



GOIENKARIA

Iturria egoera txarrean



Eskoriatzako auzotar batek bidali digu ondorengo irudia. Arbiñoste inguruko *Iturri zahar* izeneko iturria zeharo abandonatuta dagoelako. Duela 6-7 urtetik ez dago urik iturri horretan, eta etxe berriak egiteko proiektua hasi zenean utzi zuen abandonatuta Udalak. Beraz, eskatu du tokatzen zaionak konpon dezala hainbeste urte dituen iturri hori.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

1.800

Horiek dira Pirritx eta Porrotx pailazoek bihar Bergaran eskainiko duten ikuskizunerako salgai jarri den sarrera kopurua. Hain zuzen, pasa den urtarriaren 22an jarri ziren salgai eta ordubetean agortu egin ziren.

usteak uste

Jasone Zubala

Aratusteetan non dago lotsa?

Urtero, urtero kontu bera. Aratuste-domeka pasa eta dagoeneko hurrengo urteko Aratusteetako mozorroan pentsatzen hasi behar. Hau da buruhaustea! Egia esan, batzueta ilusioa handia izaten da horrelako egunetan, baina lotsatiok askotan arazoa izaten dugu. Kalean desfilatu behar beste 25 pertsonarekin batera, suhiltzaile jantzita, pitufo jantzita... Egun bakarra da eta eutsi egin behar... Kontua da datorren domekan mozorrotea tokatzen zaigula guztioi, nahi duenak behintzat bai, eta betiko moduan, eta askok egiten duten legez, azken momentura arte zertaz mozorroto erabaki gabe. Baina buruari buelta pare batzuk eman, eta topatu dugu mozorro egokia.

Nagusi edo gazte, neska edo mutiko, haur edo gazte... denok daukagu ileorderen bat etxearen, amaren gona zaharren bat, ez da importa, kontua lotsa galtzea da, egun honetan ez dago lotsarentzako lekuriak.

Datorren domekan, Aretxabaletan mozorrotoko naiz koadrilarekin. Erabakita dugu mozorroa, niri asko gustatu zait. Mozorro egokiaz eta giro ederraz, Aratusteetan non dago lotsa?

5 galdera...

Sergio Colominas

Arratxo animalia dendakoa Bergara

1. Zer dela eta ireki duzu animalia denda bat Bergaran?

Bost urtez eduki nuen animalia denda bat Bilboko merkatari-za-gune batean, eta estresagarria zen zeharo. Denda oso espezializatua baldin bada, horretaz dakien jendeari ez zaio ardura non dagoen kokatuta eta berta-rajoango da, aldez aurretik badakielako nahi duena topatuko due-la bertan.

2. Zein animalia mota salduko dituzu Arratxo dendaran?

Besteak beste, txakurak, katuak, lur eta uretako dortsak, txoriak, ur hotzeta, ur beroko eta itsasoko arrainak eta ornogabeak. Baita narrastiak, anfibioak, mapatzeak, hudoak, katagorriak, kirikinoak, untxi txikiak... ere. Guztira 200 espeziek gora.

3. Zein da jendeak gehien eskatzen duen animalia mota?


Bi esparrutan bana dezakegu: alde batetik, betiko animaliaren bila datorrena, hau da, ur hotzeta arraina, dortoka txikia, kania-rio, perikitoa, txakurra eta katuak; bestetik, zerbait ezberdi-na erostra etortzen den jendea: narrastiak, uroak, txintxilla, tropikoko arrain arraoak...

4. Animaliak ez ezik, akuarioak, kaiolak,... ezta?

Bai. Otsailaren 9 eta 10eko asteburuan egingo dut inaugurazioa. Animaliez gain, haiendako, jana, bizilekuak, osagarriak eta baita aldizkariak ere eros ditzake bertara joaten den edonork. Aholkularitza lana ere eskain-tzen dut.

5. Edozein animaliak behar dituen oinarritzko zaintek zeintzuk dira?

Animalia mota asko daude, eta bakoitzak behar dituen zaintzak oso ezberdinak izan daitezke: bizilekuak, jana, temperatura, hezetasuna... Etxera animalia-ren bat eraman nahi duenari gomendatuko nioke benetan atsegin duelako eraman dezala.



A photograph of a furniture store named ALDEDI at night. The store has large arched windows displaying various pieces of furniture like sofas and chairs. The name 'ALDEDI' is prominently displayed in large white letters at the bottom left of the building's facade. The interior is brightly lit, showing shelves and displays.

ALDEDI

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



iKER

Zatoz eta ikus itzazu!

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
BAINUAK: ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR

Ino Galparsoro > Arrasateko alkatea

"Ez dugu aurreikusita merkataritza-gunea erdigunean zabaltzea"

UBANE MADERA > ARRASATE

Udal aurrekontuarekin batera, lau urteotarako inbertsio plana aurkeztu zuen udal gobernuak. Proposatuako inbertsio nabarmenek gaineran eta plan horretan azaltzen ez diren bestelako egitasmo garrantzitsuen gainekeo galderak erantzun ditu Ino Galparsoro alkateak.

Inbertsio planetik zein egitasmoak izango dute lehentasuna?

Zerrajerako hiritarzte lanek ezinbestean lehentasuna izan behar dute, esparru hartan egiten ari diren etxebizitzei lotuta daudelako eta, eraikuntza aurrera doanez, haien bukatu orduko bukatuta egin behar dutelako.

Abaroaren kasuan, proiektua eginda dago; horrez gainera, Iturbide egoitza berregokitzeko obrak direla-eta, ezinbestean handik irten behar dute nagusiek.

Zein egoeratan daude musika etxe eta Industria Museoa?

Musika etxearen kasuan, proiektu zirriborro eta gastu ugari eginda aurkitu genituen, baina benetako bat ere ez. Lehenengo, erabaki behar dugu non kokatu.

Industria Museoari dagokionez, batetik, aztertu behar dugu bideragarritasun tekniko-finantzarioa; eta bestetik, zein motatako museoa sustatu behar dugun. Guk museo bizia nahiko genuke, ez erakustoki hutsa; hezkuntzarekin eta enpresekin ere lotura zuzena izango lukeena.

Zer gertatuko da Aprendizien Eskolarekin?

Lehenengo esan beharra dago Aprendizien Eskola ez dela Udalarena, baizik eta SPRIrena. Oso egoera txarrean dago; beraz, zail ikusten da hura birgaitzea. Dena den, ahaleginduko gara SPRIk ere ekarrentxoa egin dezan herriaren alde. Hala ere, han ekipamendu publiko bat dago aurreikusita.

Elmako eraikina birgaituko

duzue; erabakita dago zertarako erabiliko duzu?

Erabakitzeko dago zer koka-tu; eta, noski, birgaitze proiektua, erabaki horren arabera moldatu beharko da.

Udal Artxiboa non kokatu era-bakita dago? Monterronen?

Ez dago erabakita, baina, lehen burutapenen arabera, ez du ematen Monterronen denik lekuri-k egokiena; eraikin ospetsuena, beharbada, bai, baina funtzionaltasuna ezinbestekoa da artxibo batendako, eta hori ez du Monterronek eskaintzen.

Dena den, azken galderai lotuta, azterketa orokor bat egin beharra dago, hainbat eraikuntza eta proiektu elkarren artean ondo lotzeko. Perspektiba horrekin ari gara denak aztertzen.

Zela bideratuko duzue Herritarren Partaidetzaren egitasmoa?

Lehenengo, herritarrei modu naturalean eta interesa daukaten gauzez hitz egiten utzita eta entzunda. Dena den, modu formalera eman nahi diogunez, ordenantza lantzeko asmoz gabiltza: baditugu eredu pare bat, baina Arrasatera ondo egokitzen den zerbaite lortu nahi dugu.

Gizarte Zerbitzuei bultzada emango diezuela esan duzue; hasi zarete hori egiten?

Ematen dugun zerbitzua hobetu nahian, lantaldea handitu egin-

go dugu eta antolaketa dauden beharretara egokituko dugu. Bestalde, kooperaziorako diru-sarerra arrunten %0,7 emango dugu, 2006an eman zenaren bikoitza. Horrez gainera, guk uste dugu, udalok, arlo horretan gastatzan den diruaren adinako sarrerak bermatuta izan beharko genitzukeela eta ez goragoko administrazioen irizpideen menpe.

Zer gertatuko da merkataritzagunearekin? Zabaletarekin?

Zabaletako proiektuaren inguruan, esparru horren azterketa juridiko-teknikoa aztergai dugu. Egia da gehiengoak haren aukako jarrera azaldu duela. Hala ere, erdigunean horrelako gune bat zabaltzeko aurreikuspenik ez dugu.

Eroski handitza, merkataritza txikien esanetan, "beste mehatxu bat" da; zein iritzi duzue?

Ibai-Artek helegitea aurkeztu du Eroskiren handitza proiektuaren aurka, baina Eroskiren egoera ez da berdina, askoz aurreratuago dago. Kasu horretan ere, ezinbestean azterketa sakon baten oinarritu beharrean gau-de. Han, geltoki intermodala egiteko aukera ere badago, eta Arruenako parkea dagoenetan utzi nahi dugu; beraz, gauza ugari begiratu eta lotu beharra dugu.

Biteri plazarekin ika-mika handia piztu zen; aurreikusita

"Musika etxearen kasuan, lehenengo erabaki behar dugu non kokatu"

"Aprendizien Eskola oso egoera kaxkarrean dago; beraz, zail ikusten da hura birgaitzea"

"Gizarte Zerbitzuetako lantaldea handitu egingo dugu, zerbitzua hobetze aldera"

"Eroskiri handitzeko baimena eman edo ez erabakitzeko azterketa sakona egin behar dugu"



Ino Galparsoro alkatea, udaletxeko balkoian.

U.M.

duzue aldaketaren bat egitea?

Egia da oso kritikatua izan zela eta dela. Ez dugu garbi ikusten zela konpondu. Diru gehiegia gastatu da eta oso deseroso geratu da. Baina plaza horrek duen dimentsioa eta kokapena kontuan hartuta, zerbaite txukuna egin beharra dago. Asmoa da birmoldaketa minimo batzuk egin eta ondo pentsatu gero zer egin; herritarren parte-hartze zuzena jasotzeko moduko proiektu moduan ikusten dugu.

Urteotan aldaketa handia egin dute herriko zirkulazioarekin. Dagoenetan utziko duzue?

Buelta ematen gabiltza. Susmoa dut Mugikortasun Plana egin zenean, planteatzen ziren neurriak, epe eta ordenari dagokionez, modu desordenatuan jarri direla praktikan. Orain, erabakiok birbideratzea zaila da; baina aldaketaren bat-edo egongo da; ea oraingoan asmatzen dugun. Edozelan ere, herritarren

laguntzarik gabe zirkulazioaren gaia zuzentzea ezinezkoa da. Oinezkoen eta garraio publikoaren alde jokatu behar dugu eta herri barruko garraio publikoaren antolake-ta berria aztertzen ari gara.

Beste ezer esan nahi baduzu...

Zelan ez! Ezin ahaztu zein errealtitate bizi dugun Euskal Herrian eta bereziki Alderdien Legea dela-eta geuri, EAE-ANV-ri ezarri nahi diguten ilegalizazioa. Egun hauetan, lehendik ohi-tuta bageunden ere, jasaten ari garen gezur, irain eta presio mediaticoek Franco diktadorearen on egiten dute; jazarpen mai-la horrek ez du tokirik zuzenbi-dezko sistema baten; eta funtsean onartu ezin dutena Euskal Herriaren bizi iraupenerako kemena eta gaitasuna da; erre-primitzen ari diren guztia zilegi-tasun osoz egindakoa da, eta horrek pentsarazten dit zerbaite ondo egiten ari garela.



S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82



PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 beheha (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Juan Ramon Azpitarte > Imuntzo eta Beloki taldeko soinu-jolea

"Momentuan aurrean dugun egoeraren arabera jotzen ditugu kantuak erromerietan"

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Aratusteak direla-eta, Imuntzo eta Beloki talde gipuzkoarrak dantzaldia girotuko du bihar, 19:30ean, Herriko Plazan. Taldeko soinu-jole Juan Ramon Azpitarte Imuntzorekin hitz egin dugu.

Zergatik Imuntzo eta Beloki izena?

Aspaldian trikitilariek ohitura zuten taldeei, norberaren izeina eta abizena baino gehiago, baserriaren izen jartzeko. Imuntzo nire baserriaren izena da. Belokik, berriz, bigarren abizena aukeratu zuen.

Zenbat urte daramatzazue plaza plaza?

Gutxi gorabehera 17 urte izango dira. Gogoz hasi ginen. Lehenengo proiektua maketatxo bat izan zen, Arrate Irratira eraman genuena. Gero, berehala etorri zen lehenengo diskoa eta handik aurrera, hiru bat urtean behin, disko bat atera dugu.

Asko aldatu dira dantzaldiak ordutik hona?

Bai, baina ez esaten den hainbeste. Gaur, akaso, ez da hainbeste dantzatzen, lehengo grina ez dut ikusten. Hala ere, ez dut uste egungo egoera hain txarra denik.

Joan zen urtean seigarren disko argitaratu zenuten. Lan horren abestirik entzungo dugu bihar Arrasaten?

Hala da. Bai azken diskokoa eta baita aurrekoena ere. Betiko kantuak ere ez dira falta dantzaldian. Normalean, aurrelik pentsatuta dugu zer joko dugun. Baina, ez dugu zerrendarik egiten. Momentuan aurrean ikusten dugun egoeraren arabera jotzen ditugu kantuak.

Zer da jendeak gehien eskatzen duena?

Orduaren araberakoa da. Hasieran umeak ere egoten dira, eta, beraz, haurrendako eta gura-soendako abestiak jotzen ditugu.



Irudian, Juan Ramon Azpitarte, Imuntzo.

ELKAR

"Azken urteetan baxua, gitarra eta bateria sartu ditugu. Lagungarriak dira eta janzen dute"

"Hurrengo diskorako ez daukagu data zehatzik. Ziurrenik datorren urtean grabatuko dugu"

Gero, dantzaldia non den ere kontuan hartu behar da. Jendeak dantza egin nahi badu, fandangoak eta arin-arinak jotzen ditugu. Ez dago formula zehatzik.

Debagoienera askotan etorzen zarete?

Egia esan, eskualde horretara ez gara askotan joaten. Baina, azken urteetan, Bergaran izan gara eta oroitzapen polita daukat. Pazkoetan egon ginen eta oso giro ona topatu genuen han.

Zer dute trikitiak eta panderoak beste musika tresna batzuek ez dutena?

Trikitia, tonu aldetik, osatugabea da, baina, alde berean, duen soinua oso berezia eta bizia da. Horrek astintzeko eta mugitzeko gogoa ematen du. Panderoak, bestalde, bikotekide ona egiten du trikitia doinuarekin.

Azkenaldian, hala ere, ausartu zarete beste instrumentu batzuk erabiltzen...

Bai, hala da. Azken urteetan baxua, gitarra eta bateria sartu ditugu. Ez bakarrik diskoetan, zuzenean ere horrela funtzionatzen dugu-eta. Lagungarriak dira eta asko janzen dute.

Amaitu aurretik, zazpigarren diskoa noizko?

Oraingoz, ez daukagu data zehatzik. Baina, materiala beti dago kutxan gordeta. Ziurrenik, datorren urtean grabatzen ibiliko gara.

JAIAK > ARATUSTEAK 08

Egitarau zabala prestatu dute Aratusteei begira

Bihar bazkaria dago eta martitzenean Arrasate Musikalekoak izango dira, besteak beste

U.M./M.B. > ARRASATE

Udalak egitarau zabala prestatu du aurtengo Aratustearako. Bihar, zapatua, eta martitzenean izango dira ekimenak. Biharko egitarauari dagokionez, umeen mozarro tailerrak iragarri dituzte 11:30erako, eta ordu erdi geroago, pregoia irakurriko dute, plazan.

Horrez gainera, herri bazkaria egingo dute aurten ere. Jende mordoa kalera aterako du ekitaldi horrek; izan ere, 700 lagunendako lekua prestatu dute Uarkapen. Sarrera guztiak salduta daude dagoeneko.

Bazkaldu ostean, 17:30ean, kalejira irtengo da Uarkapetik, txaranga bat lagun. Jarraian, 18:00etan, herri jolasak egongo dira, eta 19:30ean, berriz, Imuntzo eta Belokirekin dantzaldia.

Martitzenean, arratsaldean hasiko dira ospakizunak. 16:30ean aterako da mozorroen desfilea Herriko Plazatik. Gero, 17:00etan pailazoen saioa izango da Amaia antzokian.

ARRASATE MUSIKAL

Arrasateko erraldoi eta kiliten kalejira bertan behera geratu da. Ordu berean irtengo da Arrasate Musikaleko banda eta ballet taldea. Bost urte daramatzza Arrasate Musikaleko banda Aratuste egunean kalera irteten eta aurten ere horri eutsiko dio.

Kristauz eta mairuz jantzia irtengo direla jakinarazi dute. Kalejiran 60 bat partaide izango direla ere esan dute. Monterronetik abiatuko dira eta handik alde zaharrean sartuko dira.

Aurretik ballet taldekoak joango dira, bandak jotzen dutena dantzatzen. Ibilbidean zehar, Abaroa egoitzatik ere pasatuko dira Arrasate Musikaleko bandakoak.

Aratuste kontuekin buktzeko, 20:00etan eta 22:30ean, Joselu Anaiek jardungo dute arrasatearrak dantzan ipintzen eta 23:30ean agur esango diete Aratusteei, sardinaren ehorzketarekin.

> MUSIKA

Mondra Underground Sounds-en '25 hits of Mondra' CD berria aurkeztu dute gaur

Gaur aurkeztuko dute 25 hits of Mondra disko, Mondra Underground Soundsen lana. Arrasateko 25 musika talderen abestiak jasotzen ditu CD berriak. Talde esanguratsuengun punk, rock-and-roll, punk-rock, oi!, streetpunk, country eta blues estiloko kantuak dira, besteak beste. Gaurko aurkezpenaren ondoren, disko horretan parte hartu duten taldeek kontzertuak eskainiko dituzte datozen asteetan Arrasateko tabernetan eta gaztetxeen.

> MUSIKA

UK Subs, The Vibrators eta Total Chaos taldeak arituko dira gaur gauean 3.60 aretoan

Kontzertu bikainak egongo dira gaur gauean 3.60 aretoan. UK Subs, The Vibrators eta Total Chaos taldeak agertokira igoko dira, 23:00etan. Euskal Herrian, Arrasaten baino ez dute joko talde horiek. Amaitean, 04:00ak aldera, Gonzalo Morbid disko jartzailearen txanda izango da. Sarrerak aldez aurretik eros daitezke Ekaitz tabernan eta Musical Lazkanon, 15 euroren truke. Leihatilan, berriz, 18 euro balioko dute.

**KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK**

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

Txitxinpe


Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealeku 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

INAUTERIETAN EZ GAZ DANOK!




KEPA URRA




JON AGIRRE




JOSU URBETXEVARRIA



LUIS MARI AZKARGORTA



PREMIN SANPEDRO




TXUS GOIKOETXEA



JOSU ARKAUZ




UNAI PAROT




ARATZ GOMEZ



JOSE I. GAZTAÑAGA



JESUS MARI ZABARTE



JOSE GABRIEL URIZAR



IGOR LETONA




KRISTINA GOIRIZELAIA



AMAIA ARRIBA



GORKA AZTIRIA



GAIZKA OLABARRIETA



NATALE LANDA



ERREFUXIATUAK

ETXLEAN NAHI DITU GU!

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:
Iturriotz, Irati, Iluntz, Ekaitz, Basati, Jai-Zale, Muxibar, Taupa, Dat.

SASKIBALOIA > LEHENENGKO MAILA

MUk ez du Aratusterik: La Salle du zain

Iñaki Merinoren taldeak 14. garaipena du buruan, jarraian eskuratuko lukeen zazpigarrena

La Salle nekez egongo da igoera fasean, eta garaipenak ez luke balio bikoitzik izango

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Joan den asteko partidua amaitu berri, taldeko kapitain Jagoba Gamarra adierazi zuen datozen asteotan MUk izango dituen kontrarioak seguruenik ez direla igoera fasean izango, baina garaienak berdin-berdin balioko duela, taldea dinamika positiboa jarraitzeko lagungarri izango da-eta. Eta arrazoi du. Kontua da igoera fasean zuri-moreekin batera egongo diren kontrario zuzenei irabazita, MUk balio bikoitzak duten partiduak irabazi dituela orain arte, baina biharkoak ez du bizarri hori izango; ez du aparteko motibazio hori izango. Hala ere, Easok joan den astean erakutsi

zuen moduan, kategoria horretan ezin da inor gutxietsi.

Zapatuan MUk ez zuen horrelakorik egin, ez zuen inor gutxietsi. Beste barik, gaur egun dituen arazoak ahalik eta ondoen gaindituta-jokalari gutxi, esaterako-eginkizun aurre jokalari beteranoak dituen Easori. Gainera, Merinok geroago eta minutu gehiago banatzen ditu gazteen artean-juniorren artean 60 minuto jokatu zituzten-, eta haiek ere denbora behar dute.

LA SALLE, ZAIN

Hain zuzen ere, MUk bihar izango duen kontrarioak ondo menderatu zuen Easo orain dela bi



KINTANA MUko jokalaria Easokoan artean aurrera egin guran.

I.A.

aste (74-66). Bilbotarren eta donostiarren arteko derbian, La Sallek Easoren kontura zuzendu zuen aspaldiko bolada txarra; azken postuetara bultzada nork egin erabakitzeko lehian, Bilbokoak nagusi. Eta, Easok lanak eman zituen zapatuan; horrenbestez...

Bestalde, kadete mailakoak albiste dira orain ere. Hain zuzen ere, MU-B taldeak ligako partidu guztia irabazi ditu, eta

jarraian, lehenengo kadete mai-lara salto egiteko lehiatuko dira. Orain arte izan dituzten emaitzei begiratua eginda -batez beste partiduko 78 puntu egin dituzte, eta 39 jaso-, bistan da kategoria txiki geratu zaiela, kontrarioek ez dute-eta aparteko zailtasunik eman. Aurrerantzekoa, baina, bestelakoa izango da. Javier Zubanok onartu duen moduan, lan handia dute egiteko.

> ARETO FUTBOLA
Bihar eta etzi ez dute norgehiagokarik jokatuko Zaldibarren

Aratustea direla-eta, asteburuan deskantsua izango da Zaldibarko Areto Futbol txapelketan.

Joan den asteari dagokionez, kopako kanporaketa jokatu zuten, eta hauek dira aurrera egin duten taldeak: Lasagabaster, Dublin Irish Pub, Betrayer, Dribling, Cipris, McAwen Dauen, Ekaitz eta HLB 108. Martxoaren 15ean eta 16an jokatuko dute kanporaketa hori; liga egongo da lehenago.

> MENDIA
Besaidek gertu ditu otsaileko mendi irteeren egitaraua

Oinez egiteko bi irteera eta mendiko eschia egiteko beste irteera bat antolatu ditu Besaidek otsailerako. Otsailaren 3an Urkizutik Bidaniako porturaino egingo dute oinez, eta sagardotegira joango dira gero bazzaltzera -izenematea: otsailak 28, 29 eta 30-. Otsailaren 17an, berriz, Debatik San Migelgo portura joango dira. Eta otsailaren hirugarren astean egingo dute mendiko eski irteera, Frantziara.

**LORAMENDI
KIROLAK ARRASATE**

INTERSPORT®

% 50

arrasatearrak kanpoan

Aitor Berasaluze > Kimika ikasten ari da
Finlandian bizi da

"Finlandiarak hotzak dira, baina beti laguntzeko prest"

JASONE ZABALA > BERGARA
Pasa den irail hasieran, Finlandia
ra joan zen Aitor Berasaluze, Kimi-
kako azken kurtsoa egitera. Ika-
ketak direla-eta etxetik kanpo,
Donostian bizitakoa da, baina Fin-
landiako esperientzia oso polita
izaten ari dela dio. Etxera bueltan,
San Juanjaien inguruan etorrikoda.

Helsinkitik 700 kilometro inguru
dagoen Oulu herrian bizi da
Aitor Berasaluze. Herri handia
da, 130.000 lagun bizi dira, baina
mugimendu gutxiko herria da.
Unibertsitatea herritik lau kilo-
metrora dago, bizi den erresi-
dentziatik kilometro batera; erre-
sidentzian beste finlandiar bate-
kin bizi da. Bizikleta beharrezko
du Berasaluzek unibertsitatera
joan eta etortzeko.

Bertan egun normal bat nola
pasatzen duen galdeitu eta zera
esan digu Berasaluzek: "Goizean
goiz jaikitzen naiz, 09:00ak edo
10:00ak aldera, eta unibertsitate-

ra joaten naiz azken kurtsoko
proiektua aurreratzten joateko.
Bazkaldu ondoren, hainbat gau-
za egiten ditut: futbolean jokatu,
lagunen baten etxera film bat
ikustera joan, eta 15:30ean dago-
eneko ilundu egiten du".

Finlandiarak definitze
orduan, oso hotzak direla esan
digu Berasaluzek: "Arrasateko
jendea eta orokorrean euskaldun
jendea ez nuke ezergatik
aldatuko. Oso isilak dira hemen,
lotxiak, ez dira batere irekiak,
ez bertakoekin ezta bertara joa-
ten direnekin, baina beti daude
laguntzeko prest". Eguraldiari
dagokionez, hotz handia egiten

**"Janari aldetik, amaren
etxeko jana igartzen dut
faltan. Finlandian
sukaldean aritzeko
ohitura gutxi dute"**



Aitor Berasaluze.

rako, beste urte batzuetan,
30 gradu zero azpitik egin izan
du. Nik jasan dudan baxuena, bai-
na, zero azpitik 18 gradu izan dira.
Dagoen hotzarekin euria egiten
badu, dena izotzen da, eta arris-
kutsua izaten da".

FINLANDIERA, ZAILA

Finlandian gehiengoek finlan-
dieraz hitz egiten dute, baita sue-
dieraz eta ingelesez ere. "Finlan-
diera oso zaila da. Hasi nintzen
ikasten, baina klaseak goizegi
ziren", esan digu Berasaluzek.

Janari aldetik, amaren etxe-
ko jana igartzen du faltan. Fin-
landian sukaldean aritzeko ohit-
turak ez dute.

Orain arte, Finlandiako hiri-
buru Helsinki, Tallin eta Stock-
holm bisitatu ditu. "Finlandiako
hiriburua ez zait askorik gusta-
tu, Tallin eta Stockholm ordea,
badago zer ikustekorik", esan
digu Berasaluzek.

Asteberuetan bidaiatzera joa-
ten da Berasaluze, baita parran-
daren bat edo beste bota eta hoc-
key partiduren bat ikustera ere...
Finlandian jarraitzaile gehien
dituen kirola da hockeya.

Arrasatera bueltatzen dene-
an, Finlandian ezagutako jendea
igarriko duela faltan adiera-
zi du Berasaluzek, zaila izango
delako berri zere haien noizbai-
ten ikustea.

bere ustez



Jokin Etxeberria

Bilbo arroса kolorekooa

A spaldian Bilbo aldean
nabil lanean, Iurben-
tia Bilbao Basket taldea
jarraitzen.

Bitxia da Tauren jarrai-
tzaile izanik Bizkaiko hiriburu
jo izana saskibaloia
jarraitzen, baina *ces't la vie*.
Dagoeneko Kanpanzarreko
bihurguneak buruz ezagu-
tzen ditut, *astopistatik* joate-
ak ez baitu gehiegiz merezi.
Bidaia honek askotan nire
ikasle garaietara narama.
Orduan ez nuen *Hiriarekiko*
gehiegizko loturarik egin.
Astebururo etxera, eta kale-

**"Donostia aldean
Badiolare
inguruan sortutako
zikinkeria ere argi
bihurtuko ote da?"**

tik ahalik eta gutxien ibili,
gauzerrebeza bat eskuan nue-
la ez baldin bazen behintzat.
Orain, lana medio, egunez
gehiago ibiltzen naiz (ez gehie-
gi) eta bertako talde bat jarrai-
tzeak Bilborekin nolabaiteko
lotura edukitzera eraman nau.
Agian, arrazoietako bat
Iurbentziak Athletici, non eta
bere etxean, itzala egiten ari
zaiola izan daiteke, eta Real-
zale moduan, horrek gustu
txiki bat ematen du. Orain,
Bilbao Basketen dena da arro-
sa kolorekooa. Hiriburuko
zikinkeria ematen duen
iluntasuna argi bihurtu da
Vidorretaren taldean, eta
horrela jarraitzen duen
bitartean, bejondeiela!
Donostia aldean Badiolare
inguruan sortutako zikin-
keria ere argi bihurtuko ote da?
Baietz espero.

Okendoko ludotekak urteurrena ospatu zuen

Pasa den egubakoitzean,
urtarrilak 25, Arrasateko
Txatxilipurdi elkartea
antolatuta, Arrasateko herri
erdialdean dagoen Okendo
ludotekaren urteurrena
ospatu zuten.

Hara, Okendokoaz gain,
Usaetxeko ludotekatik eta
Santa Marinakotik 49 neska-
mutiko joan ziren autobusez;
gutzira, ehun bat haur eta
hezitzaire.

Urteurrenen ospakizunak
arratsaldeko bostetan hasi
ziren txokolate jan goxo
batekin, eta ondoren, ludote-
kako nagusienak, 9-12 urteko
neska-mutikoak, bertako
txikienekin tailerren antola-
tzaile gisa aritu ziren. Horren
ostean, aurpegia margotu eta
maraka egin zituzten. Amai-
tzeko, antzerki bat egin zuten
haur guztiek. Guztien artean
egun oso polita pasatu zuten,
eta, argazkian azaltzen den
moduan, umeek oso pozik
pasatu zuten arratsaldea.



**((112))
SOS DEIAK**

ONDAREA > ARGAZKIAK

On Serafin zenaren argazki bilduma eskuratu du Udalak

2.330 diapositibak, 1.266 negatibok eta 188 irudik osatzen dute, 1965ean hasi eta 1982ra artekoak

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

On Serafin Esnaola abadea zenaren argazki bilduma eskuratu du Bergarako Udal Agiritegiak. 60ko eta 70eko hamarkadetako argazkiak dira batik bat, eta orduko gizartearen informazio iturri paregabeak dira. Gutxi gorabehera, 1965ean hasi eta 1982ra arteko argazki bilduma da eta, guztira, 3.784 irudi batzen ditu: 2.330 diapositiba, 1.266 negatibo eta 188 argazki. Irudion egoerari dagokionez, fondoak, oro har, oso egoera onean dagoela azaldu du Udal Agiritegiko arduradun Arantzazu Oregik.

BERGARAREN ISPILU

Oregik azpimarratu du halako bildumak eskuratzea oso garrantzitsua dela, "informazio ugari

dutelako euren baitan". On Serafinen fondoari dagokionez, "60ko eta 70eko hamarkadetan Bergarako gizartea nolakoa zen ikus daiteke: umeekin egiten zituen ekintzak direla -katekesia, Donostiara irteera...-, Pol-Pol mendi taldearekin egindako irteerak direla, jaiak direla, San Antonio auzoa dela, kirol ekitaldiak direla...". Horien guztien eta gehiagoren lekuo izan zen On Serafinen argazki kamera, eta urte haietakoak gaur egunera iristea ahalbidetu duela ere azpimarratu du artxiboko arduradunak. Bestetik, azpimarratu du On Serafinen figura nabarmeneko fondoa ere badela, "herria bultzatzeko egin zituen ekimen guztientzat".




1970. urtea. Orduan, Komenio kalean, Pol-Pol gainean zegoen Koldo Eleizalde ikastola. 1969/70 ikasturtea zen, eta ikastola legeztatu gabe zegoenez, haurrok ofizialki Urretxun matrikulatuta zeuden. Argazkian agertzen dira, ezkerretik esku mara, makurtuta: Marina Hernando, Bittor Zangitu, Iñaki Zangitu, Jon Ander Larrañaga, Nerea Larrañaga, Jose Jabier Agirre, Xabier Errasti, Antonio Astiazaran eta Iñaki Arregi. Zutik: ezezaguna, Iñaki Barrutia, Elisabet Bergara, Ane Miren Bengoa, Isabel Sanz, Mikel Laskurain, Miren Narbaiza, Ane Aranburu (G.B.), Kristina Larrañaga, Miguel Angel Elkoroberezibar, Maite Agirrebeña (andereñoa) eta Elias Aranburu. ARGAZKILARIA: SERAFIN ESNAOLA / MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR FONDOA.

Txuringo taberna

Pintxoak eta ogitardekoak

Zabalik eguztenetik egubakoitzera

Osintxu auzoa - Bergara



KONDE PANADEROKUA




Burdinatxe 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

> AISIALDIA

Jai batzordean parte hartzeko interesa duten guztieei dei egiten die Udal Kultura Zerbitzuak

Udaleko Jai batzordean parte hartzeko dei egin du Kultura Zerbitzuak. Batzordeak otsailaren 7an, eguna, egingo du batzarra, 20:00etan, kultura etxearen. Hala, interesa dutenei hara joateko gontzia egin diete. Batzarrera joango direnei eskatzen diete hurrengo bileretara joateko konpromisoa hartzea.

> HIRUGARREN ADINA

San Joxepe elkartean informatika ikastaroak emango dituzte martxora bitartean

San Joxepe erretiratuen elkartean lau informatika ikastaro emanago dituzte otsailean hasi eta martxo erdialdera bitartean. Hasta pen ikastaroa, edizioa, PowerPoint eta Photoshop ikastaroak emanago dituzte. Ikastaroaren arabera, goizez edo arratsaldez izango dira eskolak. Informazio gehiagorako, deitu 943 76 30 09 zenbakira.

> JAIAK

San Blas jaiak ospatuko dituzte gaur hasi eta domekara arte Murinondoko auzotarrek

Gaur, barikua, auzokoek afaria egingo dute, 20:30ean. Bihar, zapata, 20. Mus Txapelketa jokatuko da, 16:00etan. Izenematea 15:30ean hasiko da eta bikote bakoitzak 12 euro ordaindu beharko ditu. Domekan, meza nagusia egongo da 11:00etan, eta opilak bedeinkatuko dituzte eta 11:30ean, dantza erakustaldia egongo da Aranzadi eta Moises Azpiazuko dantzariekin. Gero, umeendako kukainak egongo dira.

> EUSKARA

Jardun euskara elkartearik hikaz berba egiten ikasteko ikastaroa antolatu du martxorako

Hitanoaren erabilera areagotzeko Jardun euskara elkartearik hikaz berba egiten ikastaroa antolatu du. Martxoaren 3tik 13ra izango dira eskolak, astelehenetik egunera, 19:00-21:00 ordutegian, kultura etxearen, eta Juan Martin Elexpuru izango da irakaslea. Izena emateko edo informazio gehiagorako, deitu 943 76 36 61 zenbakira.

> ELKARTASUNA

Sahararren aldeko Bubisher elkartearik josteko makinak batu nahi ditu Saharara bidaltzeko

Josteko makinak batzeko ahaleginean dabil Bubisher elkartea. Hala, etxeen erabiltzen ez dugun josteko makinariak izanez gero, eurekin harremanetan jartzeko eskaria egin dute -943 76 58 05-. Otsailaren 5era arte dago makinok emateko. Bubisherrek sahararren kanpalekuetara bidaliko ditu batutako makinak.

> ELKARTASUNA

Haitin elikatze gune bat janzen laguntzeko elkartasun bazkaria egingo dute sierbetan

Jacmel hirian (Haiti) elikatze gune bat janzen laguntzeko elkartasun bazkaria deitu dute otsailaren 16rako, zapata, 13:30ean, sierbetan. Bazkarira joateko txartelak salgai daude 10 eurotan parrokiatoko sakristietan -bezpera eta jaiegunetako mezen ostean.

UDALA > OHIKO OSOKO BILKURA

Euskal herritarren torturaren aurkako mozioa onartu du Udalak

EAren mozioari alternatiboa aurkeztu zion EAJk, baina ez zuen aurrera egin

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
Asteleheneo ohiko osoko bilkuran torturaren kontrako mozioa onartu zuen udalbatzarrak.

EAE-ANVk aurkeztu zuen torturen gainekeo mozioa, Igor

Portu eta Mattin Sarasolak salatu dituzten torturen harira. Baino EAJk mozio alternatiboa aurkeztu zuen eta horixe bozkatu zuten lehendabizi, halakoetan ohi den moduan. Hala, EAE eta EAren aldeko sei botoekin, EAE eta PSE-EEren kontrako zortziekin eta Aralarreko hiru zinegotziengabekin ez zuen aurrera egin jeltzaileen mozioak.

Bai, aldiz, Eusko Abertzale Ekintzarenak. Aralarren eta EAren aldeko bederatzi boto

jaso zituen eta EAJ, EA eta PSE-EEren kontrako zortzi boto.

Mozio hori onartuta, Udalak gogor salatu ditu "Igor Portuk eta Mattin Sarasolak jasandako tortura latzak eta baita azken urteetan pilatu diren milaka tortura kasuak ere". Horrekin batera, azpimarratu du "torturatzen duen Spainiako poliziak eta inpunitatea bermatzen duen justizia aparailuak ez dutela inolako zilegitasunik Euskal Herrian", eta eskatu diete eragile politiko,

sozial eta sindikalei, horiei biei babes aportzea, "horrek tortura ahalbidetu besterik ez duelako egiten". Azkenik, mozio hori onartuta, Udalak salatu du "tortura helburu politikoekin erabiltzen dela, euskal independentismoaren aurka eta Euskal Herriko eskubideen ukazioa iraunkortzeko asmoz". Hortaz, udalbatzak marko demokratikoaren beharra azpimarratu du "eskubide urraketa horiekin guztiak amaitzeko".

MOZIOAREN ERAGINAK

EAren mozioari erantzunez, Alderdi Sozialistako ordezkariek testu bat irakurri zuten: EAren mozioa "demokraziaren kontrako zortzat" jotzearekin batera, hau esan zuten: "Zuzenbide estatuarren bermeetako bat da errugabatasun-presuntzioa eta hori Portu-Sarasola kasuko guardia zibilentzat eskatzen dugu". Bukatzeko, hauxe esan zuten: "Hiritarren askatasun eta segurtasun faltan errudunik egotekotan, hori ETA da".

Herritarrek ere izan zuten berba egiteko aukera. Hala, herritar batek hitza hartu eta EAJko ordezkariei zuzendu zitzainen lehendabizi eta honako galdera egin zien: "Halakoetan zergatik aurkezten du EAJk mozio alternatiboa eta ez dio behingoz zezenari adarratik eusten?". Horrez gain, euren mozioan ikusitako hutsuneak ere aurpegiratu zizkienean; bestea beste, Auzitegi Nazionala ixtearen beharra aipatu ez izana. Bestetik, "Ertzaintzak ere torturatzen" duela ekarri zien gogora.

Alderdi Sozialistako zinegotziendako berbak ere izan zituen, eta honakoa esan zien: "Arazoa ez da ETA. Biolentzia poliziak eta gobernuak berak egiten dute". Horrekin batera, "gezuriak" ere badirela leporatu zien, "Euskal Herrian torturatzen egiten delako".

Interbentzio hori eta gero, bi herritarrek plastiko poltsa bana laga zieten mahai gainean EAJko eta PSE-EEko ordezkariei, modu sinbolikoan.

JAIAK > ARATUSTEAK 08

Mozorro desfilea, pailazoak eta musika izango dira Aratusteetako izarrak aste bukaeran


Bedelkar dendarien elkartek saritu egingo ditu desfileko mozorrorki onenak, eta zapatu gauean banatuko ditu sariak

M.B. > BERGARA
Gaur, egubakoitza, hasi eta martxenera arte ekitaldiz josita datoz Aratusteak. Lehenengoak mozorrrotzen Aranzadi eta Mariaren Lagundiko ikasleak izango dira, gaur. Lehenak 15:15ean batuko dira, seminarioan, eta han danza egin eta gero, kalez kale ibiliko dira; bigarrenek 15:00-16:30 ordutegian egingo dute kalejira.

Bestalde, Jardunek umeendako jolas ugari egingo ditu, 17:30etik 19:30era San Martin plazan. 18:30ean, Aratusteetako kartel lehiaketako irabazoleak, Bergarako Ruben Monterok, saria jasoko du eta, horrekin batera, lehiaketan parte hartu duten lanekin egindako erakusketa irekiko dute, kultura etxearen 22:30ean, berriz, Udal Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak kontzertua egingo dute, Mexiko gaiaren bueltan.

Inauterietako berrikuntza nagusia, mozorro desfilea, zapatauan izango da, 19:00etan. Herriko kaleetan izango da, The Txortains txarrangak lagunduta, eta 00:30ean, sari ematea egingo dute Bedelkar dendarien elkarteko kideek, San Martin plazan. Aurrelik, 23:00etan, Bisaya eta Los del Gas taldeek kontzertua egingo dute.

Aratuste-martxzena ere txikienetan eguna izango da. 16:15-19:15 ordutegian disco festa eta karaokea egongo dira, plazan, eta San Martin eskolakoak kalez kale ibiliko dira 15:00-16:30 ordutegian.



SARIA Desfileko mozorroen artean erabakiko du irabazlea Bedelkarrek. GOIENKARIA



M.B.

Egun osoko greba egin zuten Candyn

Eguaztenean egin zuten, "enpresako zuzendaritzak oraindik ez duelako egoera konpontzeko urratsik eman", enpresa komiteko ordezkarien esanetan. Urtarrilaren 9a ezkerro dihardute mobiliziotan, eta abuztura arteko mobilizazio egutegia dute prest. Besteak beste, soldata igoera negoziatu nahi dute.

Herran BERGARA

Sukaldeko altzariak: Matxiategi 4 • 943 76 37 53

12 urteko garantia
vegasa

UGARTE
AROTZTEGIA - ALTZARIAK

K21

arotz lanak orokorrean
leihoak
ateak
horma-armairuak

altzari denda
ikerlek zeharbidea · bergara
tel.: 943 03 46 30

erakusketa eta tailerra
san juan 1a · bergara
tel.: 943 76 54 91
faxa: 943 76 08 04



JAIAK > ARATUSTEAK 08

Aratusteetako kontzertua egongo da gaur gauean Udal Pilotalekuau

'Mexico Lindo'
ikuskizuna eskainiko
dute orkestrak eta Udal
Bandak gaur;
Aratusteetan egiten
dut 20. kontzertua
izango da aurtengoa

JASONE ZABALA > BERGARA
Udal Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak Aratusteetako kontzertua eskainiko dute gaur, Udal Pilotalekuau, 22:30ean. Sarreera 5 euro izango da, eta ordubete iraungo du.

Aratusteetan duela 20 urtetik hona egiten duten legez, eta ohiturari jarraituz, aurten ere bandakoak eta orkestrakoak mozarrotu egingo dira. Aurtengo Aratusteetarako aukeratu duten gaia *Mexico Lindo* izan da.

Egitarauak bi zati izango ditu: lehenengoan, Udal Musika Bandak arituko da eta bi lan eskaini-



ARATUSTEETAKO KONTZERTUA Irudian, 2006. urteko emanaldia.

GOIENKARIA

ko ditu: *Moment for Morricone* (E. Morricone) eta *Tequila* (C. Rio). Ondoren, Orkestra Sinfonikoak bere lana eskainiko du bakarka.

Lanaren izena *The Mask of Zorro* (J. Horner) izango da. Bigarren zatian, Udal Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak batera

eskainiko dute ikuskizuna. *Mexico Lindo* izenarekin hainbat lan eskainiko dituzte bandakoek eta orkestrakoek. Urtero egiten duten

moduan, agertokia eta baita ber- tan bilduko diren 120 musikariak Mexiko gai hartuta mozarrotu egingo dira. Amaieran, instrumentua jotzen duten musikari batzuek, beraien instrumentuak utzi eta antzeztu egingo dute.

HOGEI URTE ARATUSTEETAN

Pasa den urtean *Les gitans* ikus- kizuna eskaini zuten, munduan zehar dauden ijitoak izan ziren ikuskizunaren oinarri, eta aurten, eta urtero-urtero egiten duten legez duela hogeitik hona, Aratuste eguneko kontzertua hel- tzean beti zerbait berria egiten nahi izaten dute.

Banda eta Orkestrako zuzen- dari, Alfredo Gonzalez Chirlaque- k esan digunaren arabera: "Urte bakoitzera aukeratzen dugun mozarroa erraza izaten saiatzen gara, norberak egin behar izaten duelako. Ikuskizun horrekin herriko Aratusteak animatzea da asmoa eta jendea mozarrotzera animatzea, urtetik urtera gure herriko Aratusteetako espirituua gal ez dadin".

UMEAK > IKUSKIZUNA

Pirritx eta Porrotx eta Txan magoa, umeen gozamenerako

Dagoeneko agortu dira Pirritx eta Porrotx pailazoek bihar egingo duten emanaldirako sarrerak; Txan magoaren ikuskizuna domekan izango da

J.Z. > BERGARA
Bihar Pirritx eta Porrotzek ikus- kizuna eskainiko dute Bergaran. Pailazoek bi emanaldi egin- go dituzte Udal Pilotalekuau, 16:30ean lehenengoa eta 18:30ean bigarrena. Dagoeneko sarrera guztiak agortuta daude. Guztira 1.800 sarrera jarri ziren salgai, 4 eurotan. Salgai jarritako lehen

egunean, urtarrilaren 22an agor- tu ziren, ordubetean gainera. Horrela, biharko ez dute sarre- rarik salgai jarriko pilotaleku- ko leihatilan.

Pailazoen emanaldira joan e- zinik geratuko denak izango du aukera etzi, domeka, Txan magoak eskainitako *Saio Magi- koa* izeneko ikuskizunera joate-

ko. Ikuskizun hori ere, pailazo- ena bezalaxe, Udal Pilotalekuau izango da, emanaldi bakarra, 17:30ean. Sarrerak 3 euro balio- ko du, eta erosi nahi duenak, kul- tura etxera edo Udal pilotaleku- ko leihatilara joan daiteke nahi izanez gero. Pertsona bakoitzak baina, ezin izango du 6 sarrera baino gehiago erosi.

> ERAKUSKETA

Aitor Etxeberria Mendaroko pintorearen lanak egongo dira ikusgai Aroztegi aretoan

Gaurtik hasi eta datorren hilaren 17a arte Aitor Etxeberria pintore mendaroarraren pintura erakusketa egongo da Aroztegi aretoan. Guztira 15 lan egongo dira ikusgai. Bertara hurbildu nahi duenarentzako ordutegia ondorengoa izango da: martxinetik egua- kitzera, 18:00etatik 20:30era, zapatueta, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era. Domekan 12:00etatik 14:00 arte.

> ERAKUSKETA

Aurtengo Aratusteetako kartel lehiaketako lanen erakusketa egongo da kultura etxeen

Gaurtik hasi eta datorren otsailaren 9a arte, aurtengo Aratuste- etako kartel lehiaketako lanak egongo dira ikusgai. Guztira sei lan aurkeztu ziren eta sei lan horiek ikusi nahi dituenak, irabaz- lea izan zen Ruben Montero Millan irabazlea barne, kultura etxe- ra hurreratu baino ez du. Ordutegia ondorengoa izango da: astele- netik egua- kitzera 18:00etatik 21:00 etara eta zapatueta, 12:00et- atik 14:00 etara.



POL-POL
Taberna

943 76 07 78. Bergara



IRURAK MARGOAK

DISEINUAK, S.L.

Era guztiako lanak

Moketa eta sintasola

Iztuku esponjatura

Paper pintatuak

Harea zorrotada

Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984

Faxa: 943 76 09 32

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala

Errekalde auzoa 5, 1.a

ANTZUOLA

Tel.: 943 76 62 02 /

666 517 295


BEDELKARREN GABONETAKO FIDELIZAZIO KANPAINA

600 eurotako

2 sari



4.950 zenbakia
Mª Pilar Aranburu
Maher oihalak



32.971 zenbakia
Ez da irabazlerik agertu
Agirrebeña oinetakoak



300 eurotako

6 sari



12.643 zenbakia
Ez da irabazlerik agertu
Mizpildi okindegiaik



41.437 zenbakia
Eider Domenech
Jolas opariak



28.818 zenbakia
Oscar Teran
Infordelta informatika



52.075 zenbakia
Nora Arenaza
Mari Kruz harategia



29.387 zenbakia
Afrika Mateos
Barceló bidaiaik



71.805 zenbakia
Ana Mari Elgarresta
Zubikua jantzi denda

Zorionak!



ABY KEM

DANBAKA)))))) LEHIAKETAKO II. EDIZIOKO IRABAZLEA

DISKO BERRIA ZURE ESKU



CDA: **10 euro**

Asteleheneko Goienkariako harpideduna bazara: **8 euro**

Eskaera egiteko deitu: 943 25 05 05 telefonora.

Ordutegia: 9:30-13:30 eta 15:00-18:30 edo bidali e-posta: idazkaritza@goiena.com helbidera.

Nahi baduzu, 3 euroren truke, etxera eramango dizugu.

UDALA > DIRULAGUNTZAK KIROL ELKARTEEI

Kirol elkarteendako 2007ko dirulaguntzak zehaztu ditu Udalak

Udalak 65.000 euro izendatu zituen kirol elkarteen artean banatzeko; balorazio sistema berria erabili dute, lehengoa zaharkitua zegoelako

EDU MENDIBIL > BERGARA
Udalak onartu ditu kirol elkarteendako 2007ko dirulaguntzak. 65.000 euro izendatu zituen kirol elkarteen artean banatzeko eta, besteak beste, elkartea bakoitzeko kirol-lizentzia kopurua, elkarrekin bakoitzak dituen modalitate ezberdinak, entrenatzale lizentzia kopuruak, bazkide kopurua eta hauen diru ekarpena eta taldeen aurrekontua izan dituzte kontuan. Aurrekontuari dagokionez, entitate pribatuetako dirulaguntza duten taldeak saritu dituzte bereziki.

Udaleko iturriren arabera, banaketa justua egitea eta jolaserrako diren kirolak ere saritzea izan dira helburuetako bi. Lehenengo balorazio sistemak zaharkituta zeuden eta egoera berrira egoritzeko irizpide berriak zehaztu dituzte. Jasotako datuen arabera, gaur egun 31 kirol elkartea dau-



FUTBOLA Bergara KEko futbol sailak jaso du dirulaguntzarik handiena.

JOSEKO ARANTZABAL

de Bergaran eta azkenaldian hainbat talde berri sortu dira, tartearen Hanka Labanka patinzelena, skate taldea edo karate talde berriak.

LAGUNDUTAKO KIROL EKITALDIAK
Bestalde, koadroan ikus daitezkeen dirulaguntzez gain, Udalak honako diru partidak zuzenduko dizkie taldeei, herrian anto-

latutako kirol probengatik: Antxintxika (1.950 euro); BKE, eskubaloia saila (893 euro); BKE, futbola (2.317 euro); BKE, pilotxa (7.789 euro); Ariznoa gimnasia

2007ko dirulaguntzak

Lokatza	3.217 euro
Badminton	541 euro
Pol-Pol	4.540 euro
BTLS KE	4.109 euro
BKE Futbola	13.579 euro
BKE Saskibaloia	4.109 euro
BKE Eskubaloia	4.811 euro
BKE Pilotxa	5.462 euro
Igeri Elkartea	3.909 euro
Antxintxika	4.861 euro
K-Tri	188 euro
Skate	802 euro
Ariznoa	4.861 euro
Shotokan	5.011 euro

ITURRIA: UDALEKO KIROL ZERBITZUA.

eritrikoa (360); Hanka Labanka (286 euro); Bergarako Automobil Elkartea (500 euro); Oialgorra elkartea (936); Karate Shotokan (290 euro); Bergara Igeri Elkartea (200), Lokatza (8.824 euro), Beti Busti (300) eta, azkenik, Xake kirol elkarteari 1.509 euro.

Onartutako dirulaguntzak bi ordainketa bidez egingo dira eta 3.000 euro baino txikiagoa denean, hilabeteko epean %90 jasoko dute.

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Basauriren kontrako porrota ahaztu nahian

Bergarak garrantzi handiko partidua jokatuko du bihar, Urdaneta bizkaitarren aurka, 17:00etan

E.M. > BERGARA
Kolpe latza jaso zuen Bergara KEko senior mailako eskubaloia taldeak joan den zapatuan. Basauriren kontrako porrota alde batera uztea eta garaipena eskuratzeari Jose-txo Muniategiren mutilen helburu bakarra biharko. Aratusteetan ligak ez du etenik eta bergararrek Urdaneta izango dute bisitari Labe-garaietako kantxan. Ohi baino lehenago hasiko da zapatuko partidua. 17:00etan da hitzordua.

Zalantzariak gabe, hil ala bizi-ko partidua da zapatuko bi taldeentzat. Muniategi entrenatzaileek bi puntuen garrantzia azpimarratu du astean zehar. Izan ere, bi taldeak sailkapeneko beheko postuetan daude. Bergara 12. tokian dago zapzi punturekin eta jarraian Urda-

neta dator, 6 punturekin. Joan den zapatuan Basauriren aurka erakutsitako jokoa errepikatzeko gauza badira, garaipena etxekeko esku egon daiteke. Bergararen lasaitasunetako, datu adierazgarri bat: bizkaitarrek etxetik kanpo jokatutako zortzi partiduak galdu dituzte orain arte. Edozein modutan, bi taldeek hortzak estutuko dituzte zapatuan garaipena eskuratzeko. Zaleek zerikusia izan dezakete eta bergararrek dei egin diete zaleei, Labe-garaietara joateko eskatuz. Basauriren kontra ohi baino zale gutxiago izan ziren kirolegiko harmailetan.

Bergararrak, joko aldetik, boloada onean ditugu. Joan zen zapatuan, seigarren tokian dagoen Basauri taldea menderatu zuten ia partidu



ERASOAN Basauriren aurkako partiduko une bat, zapatuan.

JOSEKO ARANTZABAL

osoan zehar. Partidu hasieran eta neurketako azken segundoan jarri ziren aurretik Basaurikoak. 31nako berdinketa markagailuan zela, Bergarak aldeko penalti bat izan zuen, baina Iñaki Manuelek huts egin zuen zapzi metroko marratik eta jarraian Basaurik garaipenaren gola egin zuen (31-32 izan zen azken

emaitza). Zur eta lur geratu ziren Muniategiren mutilak eta Bergarako entrenatzailea bera ere bai.

Edozein modutan, etxearen maila ona ematen ari da Bergara eta mailari eusteko urrats garrantzitsua eman dezakete bihar, baldin eta Urdanetari irabazten badiote behinik behin.

> PILOTA Udaberri Txapelketako bi partidu Antzuolan

Bergara KEko pilotxa saileko ordezkariak Udaberri Txapelketako bi partidu jokatuko dituzte gaur, egubakoitza, Antzuolan, 20:00etan hasita. Bigarren mailako kadeteek Oiartzunen aurka jokatuko dute eta senior mailako bikoteak Ilunpe 2 taldekoak izango ditu aurrez aurre.

> FUTBOLA Hiru partidu jokatuko dituzte asteburuan Ipintzan

Ohorezko mailako infantil taldeak Kostkas Miren Bihotzaren aurka jokatuko du domekan, 11:30ean. Infantil mailakoak Aloña Mendi izango du bisitari zapatuan, ordu berean.

Bestalde, emakumezkoen igoera fasearen barruan, BTLS taldeak Anaitasuna hartuko du zapatuan, 15:30ean.

Adindunak

Egubakoitza / 2008ko otsailaren 1a / **Arduraduna:** Iker Barandiaran / **Maketazioa:** Oxel Arrieta / **Publizitatea:** Mireia Larrañaga



**Aisialdiaz
gozatzeko
sasoian**

■ BIDAIAK

Urteko edozein sasoitan bidaiatzeko aukera

IKER BARANDIARAN

Erretiratuek gero eta gehiago bidaiatzentz dute. Orokorrrean osasun hobeagoarekin erretiratzen dira eta aisia-diaz gehiago gozatzeko gogoa izaten dute. Maioristek, hotelek eta bidaia agentziek, hori jakinda, eskaintza bereziak egiten dituzte, behe-denboraldian ere opor-lekuak jendez beteta egon daitezten.

Erretiratututa daudenek bidaukate beste herritarrek ez daukagun abantaila bat, gutxienez: gura duten sasoian oporretan joan daitezke. Eta horrek aukera ematen die ostatu merkeagoa eskuratzeko edota eskaintza ego-kiak lortzeko.

Erretiratuekin lotuta ezagunena den bidaia programa Imsersoren da; ezagunena eta merkeena. Horregatik dauka halako ospea. Interesatuek udaletako gizarte zerbitzuetara jo behar izaten dute izena ematera eta lehentasunak aukeratzera.

Horren ostean, Imsersok erretiratuak taldean banatu ondoren, egun baten eskaerak egin behar izaten dituzte bidaia agentzien bidez. Zoritzarrez, plaza mugatuak izaten dira.

IMRSO, URRITIK AZARORA

Bidaia agentzietako arduradunek jakinarazi dugutenez, Imsersoko egonaldiak urritik azarora bitartekoak izaten dira, baina erretiratzen gehienek martxoan joan gura izaten dute; eta hori ezinezkoa da.

Bestalde, badira beste denboraldi batzuetan bidaiatzeko beste aukera ekonomiko batzuk: erretiratuen elkarteen bidez, Kutzarekin edota bidaia agentziek hirugarren adinekoendako eskaintzen dituzten bidaia bereziekin, hain zuzen ere.

**BENIDORMEK DAUKA ESKAERA HANDIENA**

Bidaia agentzietan argitu digute Benidorm aukeratzea ez dela topikoa. Alacanteko hiri horrek mikroklima berezia duka; eta hotel ugari dituenez, behe-denboraldian prezioak asko jaisten dituzte. Horrez gainera, urte osoan giro oso berezia duka. Hala, erretiratuendako, besteak beste, ekintza ugari antolatzet dituzte, eta asmo horrekin joaten dira hemengo erretiratuetako asko.

**LLORET DE MAR, KATALUNIA BESTE AUKERA BAT**

Penintsulatik atera barik, bada aukera Kataluniako beste hainbat lekutara joateko. Horien artean, Gironako probintzian kokatuta dagoen Lloret de Mar da izarretako bat. Urte osoan eguraldi ona ziurtatuta ez badago ere, epela da hango giroa eta hotel eskaintza handia dute bertan. Hortaz, Kataluniako kostak ere oso harrera ona du hemengo erretiratuen artean.

**KANARIAR UHARTEETARA, BEROTASUN BILA**

Erretiratzen gehienek oporetara joaterakoan eskatzen duten baldintzetaako bat bero egitea izaten da. Kanariar uharteetan badute horren aukera, eta Benidorm baino garestiagoa bada ere, negu aldean batez ere eskaintza merkeagoak izaten dira. Uharte horietan giroa alemaniarra-goa izan ohi bada ere, hondartzak ederren eta giro lasaiagoaren bila jotzen dute opor-leku hori aukeratzentz.

**DOMINIKAR ERREPUBLICA, SALTO BAT HARATAGO**

Ez da irteera ekonomikoena, baina handizkariek (maioristak) ateratzen dituzten eskaintzei adi egonez gero, bada aukera diru asko ordaindu barik Dominikar Errepublikara joateko. Bidaia agentzietan esan digute erretiratzen askok oso gustuko dutela halako parajeetan egonaldiak egitea, eta bereziki guztia barne edukitzearren formula hori asko atsegin dutela.

Barceló Bidaiaiak Horietakoa al zara?**3. Adineko Bidaiaik**

BENIDORM 480€
Oasis Plaza Hotelak 3*
PO + edariak + autobusa Bergarako
Maiatzak 17tik 31ra

LANZAROTE 569€ + tasak
Barceló La Galea Apartahotelak 3*
PO + edariak + autobusa Bilbotik
Apirilaren 2tik 16ra

* Pertsonako prezioak. PO: pentsio osoa

Aholkularitza hoberena:

BERGARA: Ibargarai, 8 | **ARRASATE:** Maalako errabala, 31

GRAN CANARIA 567€+tasak
Beverly Park Hotelak 3*
PO + edariak + autobusa Bilbotik
Apirilak 7tik 21era

TENERIFE HEGOALDEA 694€+tasak
Hesperia Troya Hotelak 4*
PO + edariak + autobusa Bilbotik
Apirilak 1etik 15era



■ ELKARRIZKETA: JOSE RIVIERE / DEBAGOIENEKO ERRETIRATUEN PRESIDENTEA

"Erretiratuak asko eta oso bizirik gauden taldea gara"

IKER BARANDIARAN

Jose Riviere arrasatearra herri bereko Abaroa erretiratuen elkartean ibiltzen da burubelarri, hango idazkaria da-eta. Horrez gain, baina, Debagoieneko erretiratuen elkarteko presidentea ere bada. 2002an hartu zuen ardura hori eta gogor dabil herritar talde horren eskubideak aldarrikatzen eta hainbat erakunderekin eztabaidatzen.

Zer premia nagusi dituzue Debagoieneko erretiratuok?

Zerrenda oso handia izan daiteke. Lehenik eta behin, esango nuke zaharrendako egoitza gehiago behar direla. Gero eta gehiago gara hirugarren adina osatzen dugunok, eta gaur egun ibarrean dauden egoitzak txiki gelditu ziren aspaldi.

Bestalde, azken urteotan udalak eta Aldundiak lan handia eginen dabilta euren kabuz baliatu ezin direnei laguntzeko, baina premia askoz handiagoa da: lagunza ekonomikoak eman, etxerik etxeko lagunza zerbitzua ziurtatu, eta eguneko zentro gehiago jarri beharko lituzkete, besteak beste. Azken finean, helburua da edadetut bat ere ez dadila bakarrik edo lagunza barik gelditu.

Bestalde, aspaldian Debagoieneko erretiratuok hainbat kexa helarazi dizkiezue erakundeei garraioarekin lotuta...

Bai, oso haserre gaude Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Gipuzkoatik arlo horretan diskriminatuta gauden eskualde bakarra garelako. Ez dago eskubideetik. Beste eskualdeetan erretiratuek beherapenak dituzte garraio publikoan, baina hemen ez daukagu ezer. Bestalde, iazko udal eta Aldundiko hauteskundeen



Debagoieneko erretiratuen elkarteko presidente eta Arrasateko Abaroa elkarteko idazkaria da Jose Riviere.

IKER BARANDIARAN

"Helburua da edadetut bat ere ez dadila bakarrik edo lagunza barik gelditu"

"Haserre gaude Aldundiarekin, diskriminatuta gauden eskualde bakarra garelako"

"Eskualdean dauden zaharren egoitzak txiki gelditu dira, ez dira nahikoa"

aurretik, Debagoienaren eta EAEko hiriburuen arteko garraioa zertxobait hobetu zuten, baina denbora pasa ahala autobus kopuru gutxitu egin dute. Inozoa garela eta iruzur egingo digutela uste dute, baina ez da horrela.

Bestelako eskaerak ere badituzue...

Bai, baina honako hauek orokorrakoak dira, erretiratuei moduan beste edozein herritarri ere eragiten diete-eta: adibidez, dagokion erakundeari esku gura diogu PESAko autobusetako batzuek eskualdeko ospitalean geltokia izan dezatela. Ez da bidezkoa autorik ez duenak ospitalera edo anbulatoriora joateko bi autobus hartz beharra. Horregatik, eskaera hori egin gura dugu.

Horrez gain, oso garrantzitsua deritzogu NA egiteko hiriburuetara joan behar ez izateari. Arrasateko bulegoa kentzen saiatu dira, baina azkenean bertan egiten jarraitzea erabaki dute.

Zelan koordinatzen zarete Debagoieneko eskualde mailan?

Eskualdeko batzarrak oso funtzionamendu ona dauka, baita eskualdean dauden erretiratuen elkartek ere. Hala ere, hobeto funtzionatuko genuke Gipuzkoako mailako elkartea gehiago implikatuko balitz. Gipuzkoako osoko elkarteko indarra batera egingo bagenu, askoz lorpen gehiago izango genituzke.

Edozelan ere, egia da apur bat banatuta gaudela. Iraganean elkartegu guztiok Aldundiaren menpe geunden, baina azken urteotan udalek dute horren eskumena. Hortaz, horrek eragiten du nork bere aldetik problematika lantzen joatea. Argi dagoena da gero eta gehiago garela, eta oso bizirik gauden herri-taldea garela.



**Hirugarren
adinakoentzako
eskaintza**

• Armazoia eta
lente monofokalak **68 €**

• Lente progresibo parea
arraien aurkakoarekin **169 €**

ZABALA

o p t i k a

Iñigo Zabala optiko-optometrista PRS:170 / 04

Barrenkale 25 BERGARA Tel.: 943 76 16 97

■ OZTOPO ARKITEKTOKOEN EZABATUZ

Traba arkitektonikoak saihesteko aukera asko

IKER BARANDIARAN

Oztopo arkitektonikoak saihesteko gero eta behar eta ardura handiagoa dago gure gizartearen. Horretarako gailuak fabrikatzen dituzten hainbat enpresa daude; eta hainbat erakundek laguntzak ematen dizkiete zaitasun fisikoak ditutzenei edo 70 urtetik gora ditutzenei, halako gailuak jarri ahal izateko.

Debagoiendarrak gero eta osasuntsuago erretiratzen diren arren, urteek aurrera egin ahalia mugitzeko edota ibiltzeko zaitasunak izan ditzakete. Halaber, horrekin oso lotuta daude non-nahi ditugun oztopo arkitektonikoak.

Hainbat udal oztopo horiek kentzeko ahaleginetan dabiltzan arren, asko dago egiteko oraindik, ugari. Kalean bai, baina etxeen ere hainbat oztopo daude.

Horren harira, badirudi herriarrok oztopo horiekin lotuta gero eta kontzienteagoak garela; eta badira eskailerak eta bestelako trabak saihesteko gailuak fabrikatzen dituztenak.

JASOGAILU ELEKTRONIKOA

Gaur egun fabrikatzen dituzten gailu ohikoenak plataforma berzikak, plataforma inklinatuak eta eskailerak saihesteko jarlekuak dira. Horien bitartez, eskailerak saihestu eta zaitasunak dituztenek oso erraz igo ahal izango dituzte maila horiek. Baliagarriak dira, gainera, ata-

ritik igogailurainoko bidea egi-teko; edota duplex baten goiko solairura igo ahal izateko.

Baina badira beste batzuk: bainunotziarako jasogailuak, igerilekuetarako garabiak, arrakalak eta bestelakoak.

DIRULAGUNTZAK ESKURAGAI


Bada, gailu horien kostuei aurre egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta udal batzuek dirulaguntzak ematen dituzte.

Dirulaguntza horiek eskatze-rakoan kontuan hartzen da eska-tzaileak zaitasun fisikoak izatea edo gutxienez 70 urte beteta edukitzea.

Laguntzak hainbat motatakoak dira: kreditu bigunak ematea, zerga-arinketa ezartzea eta beste.

Horrez gain, hainbat komunitatetako atarietan halakoak jartzeko ere laguntza esanguratsuak ematen dabiltza.

**Foru Aldundiak,
Jaurlaritzak eta
hainbat udalek
dirulaguntzak
ematen dituzte**



Atari askotan plataformak jartzen dihardute aspaldian.

OXEL ARRIBA

Elevalift


Iribar plaza 2, 1. 11. bulegoa

DONOSTIA

Tel.: 943 21 48 08

- Elbarrientzako sarrerarako eskailera-igogailuak eta plataforma bertikal eta inklinatuen instalazioa
- Eraikin zaharretan igogailuen instalazioa
- Traba arkitektonikoen ezabatzea
- Gremioen koordinazioa
- Dirulaguntzen gestioa eta aholkularitza

www.elevalift.com



■ ALZHEIMERRA

Senideen artean zainketa txandatzea

IKER BARANDIARAN

Bizitza-esperantza handitzeko dementzia kasu gehiago ekarri ditu; horien artean alzheimerra. Oraindik sendabiderik ez badu ere, gaixotasunaren sintomak arintzeko ahaleginak egindaitezke.

Alzheimer gaixotasuna areagotu egin da, gero eta bizi-esperanza luzeagoa daukagulako. Horrez gain, pertsona gaixoak zaintzeko ardura handiena emakumeek

eraman dute luzaroan, isilean. Orain, berriz, emakumeetako batzuek etxetik kanpo lan egiten dutelako, gizartea gaixoaren arazo horretaz jabetu da: inork ez ei dauka denborarik senideak zaintzeko.

Adituek azaltzen dute ezin-bestekoa dela familiak medikuganga jotzea eta gaixoari probak egitea dementzia zenbaterainokoan den jakiteko. Horrez gain, oso garrantzitsua da gizarte zerbitzuetara jo eta horiekin aztertzea zer balibide dauden laguntasuna jasotzeko.



Gero eta jende gazteagoari antzematen diote alzheimerra.

GOIENKARIA

GAIXOAREN ZAINZAILEA ZAINDU

Modu berean, adituek azpimarratzen dute gaixoaren zainketa txandatu eta familiakoen artean banatu egin behar dutela. Horrekin lortu gura dena da gaixoaren zaintzailea bera ere zaintzea.

Are gehiago, komeni da familiarteek gaixotasunaren bilakaerari aurre egitea.

SINTOMAK ARINTZEKO AHALEGINA

Orain arte ikertutakoaren arabera, alzheimerra ezin da sendatu. Hala ere, sintomak arintzeko lan handia egin daiteke, eta emaitzak begi bistean egoten dira.

Dementziaren lehenengo aztarnak oroinmenean agertzen dira. Aspaldiko kontuak gertukoak baino hobeto gogoratzan

dituzte gaixoek. Orientazio arazoak ere izaten dituzte: zer egun den eta abar. Sarritan lo txarto egiten dute, eta horrekin batera, ohikoa da aparailuak, dirua eta argiaren etengailuak erabiltzeko arazoak izatea.

Adituek uste dute dementzia zenbat eta gazteago hasi, azkarra go garatuko dela.

ELENA BEREZIBAR / AITA MENNI-KO SAIL SOZIOSANITARIOKO ARDURADUN ASISTENTZIALA.

PUBLIERREPORTAIA

"Orain eguneko zentroak asteburu eta jaiegunetan ere izaten ditugu zabalik"

Zer arlo nagusi lantzen ditu Aita Mennik?

Lantzen ditugun arlo nagusienak psikiatria, psikogeriatría eta burmuineko lesioak dira.

Psikogeriatría barruan eskaera eta mota askotako zerbitzuak eskaintzen dituzue, ezta?

Bai. Premia handien duten pazienteek ospitalizazio osoan daude; bestalde, bada aukera baita ere zatikako ospitalizazioa egiteko. Hau da, eguneko zentroan 09:00etatik 18:00etara egotea eta egunero lo egitera etxera joatea.

Baina baditugu bestelako zerbitzu puntualak: esaterako, neurologia konultak jartzen ditugu alzheimerraren eta bestelako dementzien probak egiteko. Horrekin lotuta, zaharren hainbat egoitzatan psikogeriatriako laguntza teknikoa ematen dugu, psikologoak hara bidaltzen ditugu eta egoilirrei laguntza ematen diente.

Ospitalizazio osoa egiteko hainbat egoitza dituzue?

Bai, eta horietako asko Osakidetzarekin eta Aldundiekin hitzartuta daude. Arrasaten 334 ohe ditugu, eta Gesalibarko ospitalean beste 30. Eta Txurdinaga eta Durangoko egoitzak batuz gero, beste 341 ohe dauzkagu.

Eta eguneko zentroak non dituzue?

Arrasateko Uribarri auzoan Arrasatekoak eta Aramaikoak hartzen ditugu eta 30 plaza dauzkagu; Eskoriaztakoan Aretxabaletako eta Eskoriatzako pazienteendako 15 plaza daude; Txurdinagan eta Durangon, biak batuta 140 daude, Bizkaiko Aldundiarekin hitzartutakoak; eta Deustuan beste 35 plaza, hain zuzen ere.

Azken urtean, gainera, asteburu eta jaiegunetan ere zabalik izaten ditugu eguneko zentroak; eta Oñatiako udal zentroan langileak ditugu eta laguntza teknikoa ematen dugu.



HERMANAS HOSPITALARIAS
del Sagrado Corazón de Jesús

HOSPITAL AITA MENNI OSPITALEA

Jesusen Bihotz Sakratuaren
AHIZPA OSPITALARIAK

Gesalibar, 15
Tel. 943 794 411
www.aita-menni.org

■ ERRETIRATUEN ELKARTEAK

Erretiratuen elkarteak dira giltza aisialdia antolatzeko

IKER BARANDIARAN

Erretiratuek ustez denbora libre luzea izaten dute, eta bai, behintzat, gauzak egiteko gogo handia. Horregatik, ibarreko elkarrekin ekintza asko antolatzen dituzte, eta mota askotakoak, gainera: bidaia, berbaldiak, ikastaroak, txapelketak eta abar.

Debagoieneko erretiratuak gero eta gehiago dira, eta gero eta aktibagoa. Hori errez ikusi daiteke kalera irten edota edozein zerbitzu publikora jotzen badugu. Edonon daude, gauzak egiteko gogoarekin, ez dute etxeen gelditzeko inolako asmorik, eta bizi-bizirik daude oraindik.

Erretiratu asko euren kabuz ibiltzen dira, bikotekidearekin edo lagunekin, arrantzan edo ehi-zan, bidaia egiten edo karta jokoan, bilobak zaintzen edota kaleko obrak gainbegiratzen. Oraindik ez dago atsedenik har-tu beharrik. Zertarako?

ELKARTEAK, TOPAGUNE

Beste aukera bat da erretiratuen elkarrekin bazkide egin eta taldean beste hainbat ekintza egitea. Debagoieneko herri guztietan daude halako elkarrekin eta guztietan bazkide asko daude lanean eta ekintzak egiten. Aipatu beharra dago Elgetako Deba-barreneko elkarrean dagoela, ger-tutasunagatik.

Arrasaten lau elkarrekin daude: Abaroa (erdiguneko) eta beste hiru, auzoetan kokatuta daudenak (Musakola, Uribarri eta Toki-Argi).

Gainontzeko herriek elkarrekin bana dago: Antzuolan Antzuola izeneko, Aretxabaletan Basotxo, Bergaran San Josepe, Leintz Gatzagan Toki-Eder, Oñati Pake Leku eta Eskoriatzan Olatzar.

ELKARTEAK DIRA, EZ EGOITZAK

Komeni da erretiratuen elkarrekin eta zaharren egoitzak bereiztea. Hau da, egoitzak bizilekuak dira, baina elkarrekin beste gauza bat dira: topaguneak, hain zuzen ere. Bertan elkartu eta hainbat ekintza egiten dituzte bazkideek.

Debagoieneko erretiratu elkarrekin guztiek alde batetik taberna daukate; eta bestetik, bulegoa edota bestelako ekintzak egiteko gela bat edo batzuk.

Badira ekintza batzuk guztiek edo ia gehienek egiten dituztenak: eskulan edo bestelako ikastaroak, berbaldiak, irteerak, joko lehiaketak, gastronomia txapelketak, bidaia eta beste.

OROIMEN TAILERRAK

Tarteka hainbat elkartetan egiten duten ekintza bitxi bat da oroimen tailerrena. Tailer edo langintza horien bitarbez ahalegintzen dira erretiratuek adimena eta oroimena gal ez dezaten. Hala, hainbat ariketa egiten dituzte,

edonorendako oso lagungarriak direnak. Helburua da adimena garatzea edo *herdoiltzen* ez uztea.

DANTZA DA PASIOETAKO BAT

Gero eta handiagoa da sasoian egoteko ardura. Horregatik, elkarrekin askotako bazkideek gimnasia ikastaroak egiten dituzte astero, euren herrietako gimnasioekin egindako tratuen bidez.

Baina erretiratuen benetako pasioa dantzatzen da, eta dantza latin-darrak badira hobeto. Gaur egungo gazteek apur bat galdua dute hori, baina erretiratuek ez, eta adinari erreparatu barik edozer dantzatzeko prest egoten dira, ikastaroek eguna noiz helduko den zain. Ikasitakoa ondo praktikatzen dute parean jartzen zaizkien aukeretan.

Herri bakoitzean elkarrekin dantza dago eta Arrasaten, berriz, lau elkarrekin guztira

Ibarreko elkarrekin mota askotako ekintzak egiten dituzte elkarrekin urtero



Argazkian Oñati Pake Leku erretiratuen elkarrekin hainbat kide argazkilari digitalaren gaia

EKINTZA BATERATUA

Aipatutako ekintza guztiez gain, badira hainbat eskualdeko eta Gipuzkoako elkarrekin guztiek batera egiten dituztenak.

Esaterako, ikasturtero elkarrekin guztietan mahaiko eta mugimenduko hainbat jokoren txapeltaketa egiten dute. Tute, mus, briska, billar eta bestelakoak izaten dira aukeratutakoak. Herri bakoitzeko irabazleak ibarreko finalera joaten dira; eta ibarrekoak Gipuzkoakoa.

Gastronomia txapelketekin ere gauza bera egiten dute elkarrekin artean. Finalerdiak egiten dituzte eskualdeka, eta, jakina, txapeltaketa horiek guztiek ospakizun bilakatzen dira, elkarrekin desberdinak partaideak elkarrekin eta ondo pasatzeko.

Bestalde, badira beste hainbat ekintza urtero egiten dituztenak. Horietako bat da Gipuzkoako erretiratuen ibilaldia. Urtero 700 bat erretiratua batzen dira lehiakortasuna alde batera utzita esku-hartzea saritzen duten proba horretan esku hartzeo.

ABESBATZEN TOPAKETAK

Aipagarria den beste ekintza bat abesbatzen topaketena da. Urtero Gipuzkoako herriren baten erretiratuen hainbat abesbatza batu eta emanaldiak egiten dituzte. Orain dela 2 urte, gainera, Arrasaten egin zuten, eta arrakasta itzela izan zuen.

Ibarreko erretiratuen elkarrekin guztiek ez dituzte abesbatzak, baina horietako batzuek bai, eta, orokorrean, abesteko zaletasun

- Iku-smenaren kontrola
- Iku-smenaren analisia
- Begi tentsioaren neurketa
- Audiometria

DOAN

- Iku-smenen errehabilitazioa
- Kanpimetria
- Erretinografia

P. MANSO
optika

Otsailean
Eskaintza bereziak erretiratuentzat

Irizar pasealekua 2 BERGARA Tel.: 943 76 27 86



TXOMIN MADINA

handia izaten dute. Ibarrean bi bakarrik daude: Bergarakoa eta Oñatikoa. Hala ere, Arrasateko parrokiako abesbatzako partaide gehienak erretiratuak dira.

Bestalde, jakin badakigu tarreka atseden ere hartzen dutela, eta dagoeneko elkarrekin batzuk itsas-bidaia bat antolatzen dabilta aurtentegiteko.

Debagoienekeko erretiratuen elkartea

HERRIA	ELKARTEA	BAZKIDEAK
Arrasate	Abaroa	2.133
Arrasate	Musakola	564
Arrasate	Toki Argi	675
Arrasate	Uribarri	973
Antzuola	Antzuola	310
Aretxabaleta	Basotxo	632
Bergara	San Josepe	1.700
Eskoriatza	Olatzar	640
Leintz Gatzaga	Toki-Eder	47
Oñati	Pake-Leku	1.098
Guztira		8.772

OHARRA: 2007KO ABENDUAREN 31KO DATUAK DIRA. ELGETAKO DEBABARRENEKO ELKARTEAN DAGO.

Jendaurrean ibiltzen dira batzuk abesten eta antzezten

I.B.

EIkarteak oso dinamikoak dira eta aisialdirako ehunka aukera ematen dituzte. Baino batzuk ez dira jasotakoarekin konformatzen, eta eurek eman gura izaten dute. Horren adibide dira abesbatza eta antzerki taldeak sortu dituzten Debagoienekeko erretiratua batzuk.

Ibarreko erretiratuen elkarrekin batzuk ekimentsuak diren arren, Oñatikoko Pake Leku nabarmendu gura izan dugu, beste aldean bereizgarri batzuk ere badituelako.

Oñatikoa eta Bergarakoa dira abesbatzak dituzten Debagoienekeko elkarrekin batzuk. Oñatikoa orain dela hiru urte sortu zuten. Hasieran meriendetan eta antzeko ospakizunetan abesztun zuten, eta poliki-poliki emanaldi serioak egiten hasi ziren. Izan ere, ibarreko erretiratuen kultura aste gehienetan abestu izan dute.

KANTU HERRIKOIAK
Euren errepertorioa kantu herrikoiekin osatuta dago. Horien artean, euskal, katalanez, galegoz eta gazteleraez kantatutakoak daude. Ez dira inoiz falta izaten, adibidez,

Mikel Laboaren *Hegoak, La paloma* habanera eta *Elurra mara-mara*.

Azkenaldian, berriz, bandako zuzendarri Inazio Ibarrondok idatzitako *Pake Leku* kalejira prestatzen dabilta. Euren asmoa da ekainaren 1ean Oñatin bertan pieza hori bandarekin abestea.

Gaur egun abesbatza 50 kidek osatzen dute. Horietatik 33 emakumeak dira eta 17 gizonenekoak.

IKUSI MAKUSI ANTZERKI TALDEA
Abestea nahiko ohikoa bada ere, bitxiagoa da antzerkia egiteko pausoak ematea. Hori hala bada ere, Oñatikoko Pake Leku elkarteko hainbat kidek antzerkia egiten hastea erabaki zuten orain dela hiru bat urte.

Hasierako asmoa zen Oñatikoko San Martin egoitzan bizi diren nagusiendako ikuskizunak egin eta entretenimendu apur bat ematea. Zazpi emakundeak estreinaldi bakarrik izaten dute ikusteko aukera. Horren ostean, ia behartuta egoten dira emanaldi gehiago egiten. Halakoetan herritar guztiei zabalki egoten da, eta sarrera sinbolikoa eskatzen dute.

me hasi ziren abentura horrekin eta banaka-banaka jende gehiago batu da. Gaur egun bederatzi aktorek eta Asun Artzaga zuzendariak osatzen dute. Ikusi Makusia antzerki taldea.

URTERO ANTZEZLAN BAT

Oñatin bost bat aldiz egin dituzte antzezlanak Santa Ana antzokian. Dagoeneko hiru ikuskizun estreinatu dituzte: Virginia Marratek idatzitako *Estoy harta, En dos palabras: impaciente* eta *Nos vamos de vacaciones*, azken hori Asun Artzaga idatzitakoa.

Estreinaldi bakarrian erretilatuek bakarrik izaten dute ikusteko aukera. Horren ostean, ia behartuta egoten dira emanaldi gehiago egiten. Halakoetan herritar guztiei zabalki egoten da, eta sarrera sinbolikoa eskatzen dute.

Dagoeneko Gipuzkoako eta Bizkaiko hainbat herrikoan egon dira antzezlanak egiten.

Bergaran eta Oñatin daude Debagoienekeko erretiratuen bi abesbatzak

Oñatikoko Pake Leku elkarteko Ikusi Makusia hiru antzezlan egin ditu dagoeneko



Argazkian Oñatikoko Pake Leku elkarteko Ikusi Makusia antzerki taldea Santa Ana antzokiaren sarreran.

GOIENKARIA

Gizadi Elkartea

Gaixo eta nagusien arreta eta zainketa

- Lantale profesionala • 24 orduko zerbitzua
- Lan eta jai egunetan



Zerbitzuak:

- Garbiketa pertsonala
- Onuradunen egoera gainbegiratzea
- Jaten laguntzea eta gainbegiratzea
- Etxeko garbiketak
- Joan-errieta laguntzea
- Oinarritzko gestioak egiteko laguntza ematea
- Ospitaleetan zainketa

■ OSASUNA

Osasun azterketak egitea da nork bere burua zaintzea

IKER BARANDIARAN

Nork bere burua zaintza eta sarritan osasun azterketak egitea dira osasun arazoak saihesteko modu onenak. Hala argitu digute kontsultatu ditugun adituek. Edozelan ere, gaur egungo adindunak, gizarteko beste edozein talde moduan, gero eta gehiago zaintzen dira.

Erretiratuek edota adindunek osasun arazoak dituztela topikoa da. Gizaki guztiak dauzkate osasun arazoak. Hala ere, egia da adinak aurrera egin ahala, zaintze handiagoa behar izaten dela. Hori da-eta gakoa. Argibideak eskatu dizkiegun osasun adituek azaldu digute garrantzitsuna dela sarritan alor bakoitzeko espezialistengana joatea eta azterketak egitea.

Lehenik eta behin, podologo batengana jo dugu. Hark azaldu digu berak dituen bezero adindunek hankaren azpialde eta puntan minak eta, orokorrean, gogortasunak izaten dituztela.

ZAPATA ESTUAK, TXARRENA

Arazo horiendako konponbide ohikoekin izaten dira oinetakoetan plantillak jartzea, edota aspaldian sortu duten beste berri-kuntza bat erabiltzea: atzamarraren artean jartzen dituzten sili-konazko piezak, hain zuzen ere.

Podologia adituen esanetan, adindunen hanketako arazo handiena takoidun zapata estuegiak erabiltzetik dator. Batzuen ohiturekin lotuta ei dator horiek janztea, baina oinendako oso txarra da.

Horrenbestez, adituen gomendioa da kirol zapatilak ahalik eta gehien erabiltzea, gomazko zola dutelako, forma zabala dutelako eta barrutik joskeria txikia dutelako.



Nork bere burua zaintza da garrantzitsuna. Kirola egitea, esaterako, oso onuragarria da.

XABIER URTZELAI

Zapata estuak janztearen erruz, adindun batzuek arazoak izaten dituzte oinetan

DIABETIKOEK, ARRETA HANDIAGOA
Horrez gain, oso apropo da oinetan krema hidratatzalea ematea atzamar artean eta oinazpian, batez ere. Eta makurtzeko zaitasunak dituztenendako, trinkimailu bat: toalla baten krema

Gero eta inplante gehiago jartzen dira, eta nork bere haginak kontserbatzen ditu

eman eta toalla hori zapaltzen ibiltzea. Horrela, gogortasunak leundi egingo dira.
Bestalde, azaldu digute diabetikoek argi ibili beharra dutela; izan ere, diabetiko batzuek sensibilitatea galdu egiten dute, eta,

Ikusmena zaintzeko apropo da optikara azterketa egitera joatea

hortaz, egunero oinei arretaz begiratu beharko diete, edozein zauri edo gogortasun agertuz gero ahalik eta azkarren osatzeko.
Optikoarengana ere jo dugu, adindunek zer premia nagusi izaten dituzten jakiteko. Adindune-

tako askok adinean aurrera egin ahala gertutik ikusteko arazo gehiago izaten dituzte; baina ez beti. Egoten dira, baita, katartak dituztenak ere.

Betaurrekoen graduazioa berrikustera jotzen dute batez ere optiketara, eta han badute aukera ikusmenaren azterketa egiteko.

OPTIKATIK OFTALMOLOGOAREN GARA

Hori da garrantzitsuna: optikan ikusmenaren azterketa egitea. Han antzematen dute ikusmena zelan duten; eta horren arabera, kasu batzuetan oftalmologora joateko aholku ematen diente. Hain zuzen ere, optikatik adituen esanetan, gutxinez bi urtean behin joan behar da azterketa hori egitera.

Bestalde, jakinarazi digute adindunek betaurrekoak erabiltseko ohitura handia dutela, baina poliki-poliki lentilla progresiboak ibiltzeko joera handitzen doala. Lentilla progresiboek ahalbideratzen dute gertura eta urrunera onto ikusi ahal izatea.

GERO ETA HORTZORDE GUTXIAKO

Dentistarengana ere sarritan joan behar izaten dute adindun askok eta askok. Gehienetan haginak ipintzera, berritzera edo berreskuratzen joaten dira.

Ibarreko dentista batzuek jakinarazi dugutenez, topiko hutsa da adindun gehienek hortzordeak dituztela. Topikoa besterik, gaur egun orokorrean osasuna eta estetika gero eta gehiago zaintzen ditugu-eta. Horren ondorioz, hortzak lehen baino askoz gehiago kontserbatzen dira.

Gainera, adindunek gero eta joera handiagoa dute inplanteak jartzeko; hala esan digute. Dentisten aholkuak ohikoak dira: alegia, urtean behin azterketa egitea eta nork bere hortzak ondo zaintza.

Estella ortopedia

Javier Estella, ortopedia teknikari tituluduna
OSAKIDETZAREKIN HITZARTUTAKO ZENTROA

Etxez etxeko laguntzarako altzariak eta osagariak


Matxiategi 5 BERGARA
Telefona: 943 76 19 63

Eskailera-igogailu elektrikoa

Etxez etxeko laguntzarako altzariak eta osagariak

Bathroom accessibility equipment

RPS 421/97



CLINICA DENTAL BERGARA

Hirugarren adinakoentzat deskontuak

Odontologia orokorra
Inplanteak • Protesiak • Hortz-estetika
Periodontzia • Endodontzia



Bidekurutzeta 36, behea BERGARA 943 76 05 77

 **URRATS** Podología Zentroa



- Kiropodiak
- Azazkal inkarnatuak
- Oin diabetikoen ultzerak
- Garatxoak
- Miaketa biomekanikoak
- Neurrira egindako plantillak
- Oinetako onddoen aurkako tratamenduak
- Silikonazko protesiak

Bidebarrieta 20 OÑATI Tel.: 943 53 36 37
Ordutegia: 09:30etik 13:30era - 15:30etik 20:00etara



AGIRRE
HORTZ KLINIKA

Ibargarai 9 -1... B. BERGARA
Tel.: 943 76 00 23 - 665 72 36 28

Beti, zuen ondoan...

■ GAIXOARI ETA ZAINTZAILEARI, BIEI LAGUNDU

Etxez etxeko zerbitzua eta eguneko zentroak, irtenbideetako bi

IKER BARANDIARAN

Bizi-esperantza geroago eta luzeagoa da, eta adinak baurrera egin ahala zaitasun fisiko eta psikikoak handitzen joaten dira. Halako kasuetaroko eta familiak ardura guztia har ez dezan hainbat bitarteko daude: eguneko zentroak eta etxerik etxeko zerbitzua, besteak beste.

Bizi-esperantza geroago eta luzeagoa da. Horrek alde onak ditu, asko, baina baita txarrak ere: hain zuen ere, pertsona nagusia goa den neurrian, gaitz edo gaixtasun gehiago hartzeko arriskua dauka.

Izan ere, gaur egun geroago eta demenzia psikiko gehiago diagnostikatzen dituzte. Horrez gain, pertsonak zahartzen diren neurrian, batzuek bere kabuz baliatzeko zaitasun gehiago dituzte, ahultasun fisikoak dituztelaiko edo osasun makala dutelako.

Lehen ez zegoen batere ohi-turrik familiarteko batek dependentzia handia zeukanean kampora laguntza eskatzeko, edo beste irtenbiderik emateko. Kasu gehienetan etxeko emakumeren bat egiten zen zaitasunak zituen adineko horren kargu. Horrekin lotuta egon da, baita ere, emakumezko askok etxetik kampo lan egin ez izana.

GARAIAK ALDATU DIRA

Baina garaiak asko aldatu dira. Emakume asko nekatu egin dira lan horren kargu egiteaz, eta, horrez gain, haietako asko gaur egun etxetik kampo lanean dabil-

tza. Horrez gain, familia unitateak geroago eta txikiagoak dira eta, familia askotan, senitartekoari laguntzeko beste konponbide batzuen bila hasi behar izan dute.

Bestalde, aurreiriztiak txiki-tutz doazen arren, jende askok ez du gura izaten senideak egoitzatara eramatea.

ERDIBIDEKO IRTEBIDEAK

Horien erdibidean, geroago eta joera handiagoa dago bere kabuz baliatzzen ez diren pertsonak eguneko zentroetara eramateko; edo bestela, adinduak etxeen bizi ahal izateko profesionalen laguntza eskatzeko.

Neke fisiko eta psikiko handia da 365 egunean eta 24 orduan senitarteko zaintza

Eguneko zentroak eta etxerik etxeko zerbitzua dira erabili ohi diren irtenbideak

Azken urteotan eguneko hainbat zentro zabaldu dituzte Debagoienean. Lehen, bakarra zegoen ibarrean, eta gaur egun lau daude: Arrasaten, Eskoriatzan, Bergaran eta Oñatin. Horien bitartez, laguntzeko premia daukan adineko pertsona hori egunez zainduta dago eta gauetan etxera joaten da, senideekin gaua pasatzera.

ETXERIK ETXEKO LAGUNTZAK

Beste zerbitzu mota bat da etxerik etxeko laguntza: hain zuzen, formazioa eta esperientzia daukaten langileek adinduaren etxera jotzen dute hari arreta egitera.

Zerbitzu hori kontratatzeko hainbat bide daude; izan ere, badira zerbitzu hori eskaizten duten enpresa espezializatuak. Horiengana jo dezake gura duenak. Dena dela, udalak eta Aldundiak diruz laguntzen dituzte horietako zerbitzu batzuk. Eta beste aukera bat da zuzenean langile bat kontratatzea.



Eguneko zentroetan igarotzen dagoen bere kabu

ZAHARRAK BERRI SAIOA

R zaharrak
BERRI

Aste honetan:



NOIZ: Urtarrilak 30 eta 31

NOR: Amaia Diaz de Monasterioguren
Dietista

GAIA: Idorreria.

Zure intereseko elkarrizketak, erreportajeak eta tertuliak batzen dituen programa berria daukazu **GOITBn**

EGUAZNETAN 20:15ean
EGUENETAN 13:15ean

Kutxako Urrezko Zerbitzuko kide bazara,
SARIAK IRABAZTEKO AUKERA!
Deitu programan zehar **943 00 08 34** telefonora

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

Babeslea:

URREZKO
kutxa ZERBITZUA



IKER BARANDIARAN

Ondo bereizitako zerbitzu, eginbehar eta lan ardurak

IKER BARANDIARAN

Exterik etxeko zerbitzuaren barruan bi alderdi nagusi daude. Bakoitzak premia batzuetara egokitura dago, eta komeni da zereginak ez nahastea. Horixe aholkatzen dute horretan dabiltsan profesionalek. Profesional horien zereginak duintzen dihardute aldi berean.

Adinduak zaintzeko edo haiei laguntzeko premia gero eta han-diagoa denez, eskari handia dago halako langileendako. Bada jende asko halako lanetan bere kontu aritzen dena, baina badira baita zerbitzu hori eskaientzen duten enpresak ere.

Udalak eta Aldundiak seniarteko bat menpeko duten-dako laguntzak eskaientzen dituzte. Hala, nagusiaren dependencia maila, egoera ekonomiko eta beste kontuan hartzen dituzte. Eta, horren arabera, etxerik etxeko zerbitzuaren kostua ordaintzeko laguntzak ematen dituzte. Horretarako, gainera, aipatutako enpresaren batekin harremanetan jartzenten dira.

ERDIBIDEKO IRTEBIDEAK
Zerbitzu horien artean bi multzo daude: bata, etxekoak; eta bestea, pertsonala.

Etxeko zerbitzuaren barruan honako zereginak aurreikusita dituzte: etxearen garbiketa, ohea egitea, janaria presztatzea, etxeko oinarritzko kudeaketetan laguntza, arropa

garbitu eta plantxatzea, etxeko konponketa txikiak egitea eta erosketa txikiak egitea.

ZERBITZU PERTSONALA
Aspaldian eskari gehien daukan zerbitzu pertsonala da. Horren barruan daude ohetik altzaraztea eta sartzea, janzten eta eranz-

ten laguntza, jaten laguntza, garbiketa pertsonala ziurtatzea, konpainia egin eta harekin berba egitea, besteak beste.

Zerbitzu horiek ematen dituzten enpresek jakinarazi digute alor horretako langileak profesionalizatzen eta duintzen ahalegintzen direla.

Etxerik etxeko zerbitzu pertsonala da gehien eskatzen dutena

Alor horretako profesionalak duintzen saiatzen dira zerbitzu horien enpresak



Helburua da adindunei behar duten lagunza ematea.

I.B.



Simon Arrieta 2a (Solairu artea B)
Tel.: 943 76 72 16 Faxa: 943 76 07 23

Goiz Argi

Etxez etxeko lagunza

- **Pertsona nagusiendako edo ezinduendako lagunza pertsonala eta etxeko lanetarako lagunza.**
- **Pertsonal aditua.**

Aulas kutxa, aisialdi eta kultura eskaintza Debagoieneko pertsona nagusientzat

Aurreko urteetan bezala, **kutxak**, bere Gizarte Ekintzaren bidez, aisialdi eta kulturako programa zabala diseinatu du gipuzkoarren aisialdi eta kulturako eskariari erantzuteko. Horren haritik, bereziki aipatzekoak dira kutxa ikasgelak. Ekimen horren helburua trebakuntza osatzeko eta zaletasunak lantzeko aukera eskaintza da, eta hori bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko, oso gogoan izanda ingurumena, garapen iraunkorra eta ekosistema zaintza bezalako gaiak.

Eskaintza Gipuzkoa osora zabaltzen da eta askotariko alorrik hartzen ditu, denak gaurkotasun handikoak: ingurumena, soinketa, osasun-, teknika-arte- eta literatura-jarduerak, hitzaldiak, dantza eta antzerkia, estetika, gastronomia, norberaren garapenerako trebetasunak, informatika, joste-lanak, musika edo bisita gidatuak... beste proposamen batzuen artean. Jarduera horiek **kutxako** edozein bezerorentzat dira, 16 urtetik gora baldin baditu eta, beraz, baita hirugarren adinekoentzat ere. Bestalde, **kutxak** programa berezia jarri du abian, *aulas kutxa Etxerik Etxe* deitua, elbarrientzat edo eskoletara joateko garraiobiderik edo astirik ez dutenentzat.

Gainera, **kutxaren** Gizarte Ekintzak aurten ere badu eskaintza bat kutxa ikasgelen esparruan, pertsona nagusientzat bereziki pentsatua. Batez ere, hitzaldiak dira, Gipuzkoako Erretiratuen Elkarte eta Egoitzen bidez antolatuak, zentro horien erabiltzaileentzat. hain zuzen ere.

2008rako eskaintza oso zabala da, eta bertan gai asko sartzen dira: ingurumen-gaiak, osasuna (alergiak, gernu-jarioa, etxeko arriskuak eta lehen laguntzak, oinak zaintzea...), afektibilitatea (besteekin komunikatzen ikasteko eta harremanak hobetzeko jardunaldiak, afektibilitatezko dolua edo nola onartu galerak, bakardadea edo maitasuna eta pertsona nagusien afektibilitatea, besteak beste). Halaber, **kutxak** aurtengo urterako bi lantegi programatu ditu pertsona nagusien egoitzetarako: istripu eta erori-koen prebentzia, eta zentzumenen estimulazioa. Labur esanda, askotariko eskaintza da, gure zaharren behar eta kezketara egokitua.

Zalantzak gabe, **kutxak** aisialdi eta kulturaren eremuan duen ekintza-bide nagusietako bat da kutxa ikasgelak, baina ez bakarra. Gainera, **kutxaren** Gizarte Ekintzak jarduera-eskaintza zabala du pertsona nagusientzat, Urrezko Zerbitzuaren bidez antolatua, eta hor urrezko bidaiaik eta txangoak sartzen dira. Giza Zientzietako unibertsitate-titulua.

nagusientzako omenaldiak edo talasoterapia. Eskaintza zabal eta askotariko honekin, gizarteak eta bereziki adinekoek aisialdi eta kultura alorrean dituzten gero eta kezka han-diagoei erantzun nahi die **kutxaren** Gizarte. Ekintzak **Kutxak** uste du iarduera-proposa-

men hau beste bide bat dela berak zerbitzatzen duen gizartearen garapena eta ongizatea sustatzeko.

Argibide gehiago: www.kutxasocial.net
Telefona: 902 540 040

2008ko Informazio-jardunaldiak

gizarte ekintza

aisialdia eta ingurumena

Berriro ere **kutxak**, bere **Gizarte Ekintzaren** bidez, jardunaldi batzuk eskaintzen ditu⁽¹⁾, **Gipuzkoako Erretiratuen Elkarte eta Pertsona Nagusien Egoitzetara** zuzenduak, pertsona horien bizimoduan ohitura osasuntsuak sartzen laguntzeko helburuarekin. Erretiratuen Elkarteetara zuzendutakoetan **gehienez ere 5 jardunaldi** eska daitezke, eta Nagusien Egoitzetarako diseinatuetan **gehienez ere 2 lantegi**. Izen-estatea **2008ko otsailaren 8tik 22ra** egingo da.

- Internet bidez: www.kutxasocial.net
 - Telefonoz: **902 540 040**, astelehenetik ostiralaera 8:00etatik | 4:30era.

Bertan aurkituko duzu behar duzun informazioa ere.

(1) Jardunaldiak 2008ko martxoaren 10etik aurrera izango dira, eta ordu eta erdikoak izango dira.

“Sakelako telefonoa eta pertsona pagusiak”

Jarduera paregabea sakelako telefonoa erabiltzen ohitzeko, oso erraza eta adibideko praktiko eta errealeen launtzarekin.



zer nahi duzu bihar?

kanpotarrak Bergaran

Charllene Feitosa > Brasildarra
Bergaran bizi da

"Brasilgo jendeak duen alaitasuna igartzen dut faltan"

JASONE ZABALA > BERGARA
Charllene Feitosa brasildarra da, Bahia estatuko, hain zuen ere. Pasa den urteko uztailean etorri zen Lizarrara (Nafarroa). Bertan, Bergarako mutil bat ezagutu zuen, eta hiru hilabete geroago, urrian, harekin etorri zen Bergarara. Oraingoz ondo dago gure artean, eta hemen gelditzeko asmoa dauka.

Lizarran mutil-laguna izango zena ezagutu eta orduan etorri zen Charllene Bergarara. Esan digu desberdintasun asko daudela Brasil eta Bergararen artean. Janariari dagokionez, "Brasilen prestatzen diren feijadak —bab-

rrunak mota askotariko okelein nahastuta— igartzen ditut faltan, baina, hala eta guztiz ere, oihu naiz hemengo jakietara", esan digu Charllene Feitosak.

Jendearen aldetik, euskalduenak brasildarrak baino isilagoak ei gara, alaitasun gutxiagokoak, eta alaitasun hori faltan igar-

"Brasilen ere badaude mendi berde ugari, baina hemengo mendien berdetasuna gehiago gustatzen zait"



Charllene Feitosa.

zen du. Gure paisaia, baina, asko gustatu zaio: "Brasilen ere badaude mendi berde ugari, baina hemengo berdetasuna gehiago gustatzen zait". Gutxi irtenetan dela esan digu, eta gure artean denbora laburra daraman arren, dagoeneko bisitatu du Gasteiz.

Arrasaten Bergaran baino giro hobea dagoela esan digu. Gainera, gutxi irtenetan den arren, domekero Arrasatera joaten da, mezatara. Brasilgoa izanda ere, Aratusteak ez ditu faltan igarriko, ez zaizkio-eta askorik gustatzen.

ALABA TXIKIA, BRASILEN
Brasilen utzitako alaba txikia igartzen du faltan Feitosak: "Brasilen, alaba, gurasoak, anaiak eta ilobatxoa utzi ditut. Ahal dudanean haien telefonoz hitz egiten dut, baina hain urrun egonda, faltan igartzen ditut".

Charllene Feitosak, aukera ikusten duenean, alaba bere ondora ekartzeko asmoa du, gusura dagoelako gure artean.

bere ustez



Jose Angel Mikeo

Komunikazioak arazo ditut

Angiozar-Bergara taxibus zerbitzua jarri da martxan pasa den urtarrilaren 25ean. Apuntatu data. Astean behin egongo da zerbitzua, baina ikaragarrizko aurrerapena da. Ia bi urte egon gara inolako zerbitzu barik. Aurten 20 urte beteko dira etxeetan telefonoa jarri zigutela. Bai, bai, 1988an. 2006an ia ehun etxek izena eman genuen Wimax sistema jartzeko eta, beste edonork bezala, Interneterako sarreera izan dezagun. 2008an %70ek ezin dute eduki zerbitzua bailara hau ilunpean

"Errekaren izena ere ez dute jarri gaineko aldean, azpian pasatzen denaren oroigarri"



JOSETXO ARANTZABAL

San Paulo jaietan patata tortilla lehiaketa

Pasa den asteburuan ospatu ziren Bergarako Ubara auzoko San Paulo jaiak. Zapatuan, herriko frontoian, patata tortilla lehiaketa egin zuten. Aurtengoarekin, 5. aldia da lehiaketa hori jokatzen dena. Guztira, hamar bikote aurkeztu ziren lehiaketara, eta, antolatzaileen esanetan, tortilla guztiek goxoak zeuden arren, hiru izan ziren irabazleak: lehenengo saria

Irene Zenitagoiak eta haren biloba Maddik osatu zuten bikoteak eraman zuen, urdaiazpiko eder bat; bigarren saria, kilo bat txuleta, Maria Asun Aranak eta haren biloba Jokinek eraman zuten; eta hirugarrena, baserriko oilasko bat, Jose Gazteluren bi alabek. Bestalde, auztarrek egindako bildotsaren zozketako zenbaki saritua, 1.112 zenbakia izan zen.

omen dago eta... 25 urte pasa dira bailara honetako auzoak bidez elkartzeko proiektua aurkeztu zenetik. Ez dugu ezer aurreratu. Bitartean autopistak bailara itxi du. Errekaren izena ere ez dute jarri gaineko aldean, azpian pasatzen denaren oroigarri. Orain Y-aren erdi-ko puntu a gara. Angiozar ez da azaltzen inongo mapatan: Bergara-Elorrio, Bergara-Aramaion... Izena ere ukatu digute eta ahotsa ere bai. Zerbait esan orduko terrorista gara. Europan ote gaude? Mozambiketik, lagun batek telefono mugikorretik deitu dit Interneterako sarrera jarri diotela esateko... sukaldeko mahai gainean neukan telefonoa eta han ez dago estaldurarik...




Ibargarai 10 • Tel.: 943 76 00 85 • BERGARA

10% eko deskontua
kosmetikan eta lurrinetan

*Lurrindegia
Estetika zentroa*


Aratusteaak Ihauteriak Inauteriak

Ondo pasa!!



EGUZKIGRAF
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com
Web orria: www.eguzkigraf.com



GUREA

Gora Inauteriak!

TABERNA

Durana 32 Aretxabaleta

Tel.: 943 79 20 64

UDALA > OHIKO OSOKO BILKURA

Aikia eta Besaide enpresek egingo dituzte Herriko Plazako lanak

Hiru enpresa aurkeztu ziren Herriko Plazako lanen deialdira, eta Arrasateko Aikiak eta Besaidek osatu duten aldi baterako elkartea hautatu zuten

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta
Ohiko osoko bilkura egin zuen Aretxabaletako udalbatzak astehenean, eta aho batez onartu zituzten gai zerrendako puntu guztiak. Eztabaida galdera-eskaeren atalean sortu zen, Eusko Abertzale Ekintzak aurkeztutako mozioa irakurtzerakoan.

ITURRIGORRIEN ESKAERA
Herriko Plazako saneamendu eta birmoldatzeko lanak zeinek egin erabaki behar zuten. Hiru enpreseak aurkeztu ziren: Amaral; Aikia eta Besaide enpresek osatutako aldi baterako elkartea; eta Fonor-



OSOKO BILKURA Udalbatzako kide guztiak elkartu ziren astehenean egindako osoko bilkuran.

kopurua txikia dela-eta, erakunde eta udalen lagunza eskatu du Iturrigorrik. Hala, alkate eta zinegotziak emaile izatera gonbidatu ditu, eta mankomunitateko gobernuak otsailean egingo duden bileran elkarretaratzea egingo dute.

MOZIOAREN INGURUAN EZTABAJDA
Galdera-eskaeren atalera iritsita, Eusko Abertzale Ekintzak mozioa aurkeztu zuen Portu eta Sarasolaren atxiloketen gainean. Alkateak irakurri zuen mozioa, baina, gai zerrendan ez zegoenez sartuta, ezin izan zuten bozkatu. "Portu eta Sarasolak jasandako torturak" salatu zituen mozioak, Espainiako gobernuaren eta PSOEren aurkako berba gogorrak erabiliz. Aretxabaletako PSE-EEko zinegotzi Ainhoa Sagarribai haserretu egin zen, mozioaren berri ez zutelako izan aurrez, eta tortura salaketak ikertzen dabiltzala esan zuen. "Tortura sistematikoa gertatzen dela esatea lotsagarria da", gaineratu zuen.

HIRIGINTZA > ZEBRA-BIDEAK

Araba ibilbidean bost zebra-bide jarriko dituzte, espaloien parean

Solohandi auzunean hasi eta Mitarte kalera bitartean dauden bost zebra-bide espaloien parean jarriko dituzte otsail bukaerarako

M.A. > ARETXABAleta
Herriko kaleetan dauden oztipo arkitektonikoak ezabatzeko joateko plana du abian Udalak, eta, urte berriarekin, Araba ibilbidean dauden zebra-bideak egoki-

tzen hasi da. Solohandi auzunean hasi eta Mitarte kalera bitartean dauden bost dira: Solohandi kaleko 8. atarte parean, Araba ibilbideko 28. atartearen, Bizkaia kaleko 1. atarte parean eta Belo-

rrieta kaleko 1. eta 3. atarteetan. Zebra-bide horietako batzuk, Belorrieta kale parekoak, egin barik daude, eta berriak izango dira. Gainerakoak, berriz, badaude, baina egokitu egingo dituzte. Horregatik, jaitsitako espaloia igotzen dabiltza, eta maila egin dute, zebra-bidearekin bat egin dezaten. Lanok otsaileko hirugarraren astean bukatuko dituztela uste du Udalak.



ARABA IBILBIDEA Espaloia egokitzenten dabiltza langileak, zebra-bideak egiteko. M.A.

Iber

Loteria
Paper denda
Liburuak

Otalora 2.
ARETXABAleta
Tel.: 943 79 04 39

Mobiliario
ARENaza

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAleta

PENSOSUNZUE s.a.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABAleta
Tel.943 77 00 33/79 42 56

AISIALDIA

Eskiatzera irteera antolatu du gaztelekuak
 Otsailaren 23an, zapatua, joango dira Valdezcarayra, 40 euroren truke

M.A. > ARETXABAleta
 Hiru tailer eta irteera bat antolatu ditu Atxagazte gaztelekuak otsailerako. Bihar, zapatua, gore tailerra egingo dute. Aratusteak gainean ditugula aitzakia hartuta, beldurra eta estetika odoltsua erabiliko dituzte gai, aurpegiak margotu eta ondo pasatzeko. Eta jakina, etzi, Aratuste-domeka itxita egongo da gaztelekuak.

Hilaren 9an eta 10ean, irratia tailerraren txanda izango da: zapatuan irratsaioa gertatuko dute gaztelekuak eta domekan Bergarako Txapa Irratira joango dira. Irratian zela egiten duten lan ezauguero dute, eta aurrez geratutako irratsaioa eskainik diente Bergara aldeko entzuleei. Eta otsailaren 16an eta 17an, zirku tailerra egingo dute. Aditu baten laguntza izango dute, eta zirkuko artista txiki bihurtuko dira gaztelekuko kideak.

ESKIATZERA IRTEERA
 Hilabetea bukatzeko, otsailaren 23rako eskiatza irteera antolatu dute. Egun pasa joango dira Valdezcarayko eski pistetara (Errioxa); hau da, zapatu goizean atera eta gauean itzuli. Eskoriatza eta Antzuolako gaztelekuko kidekin batera antolatu dute irteera, eta izena aurrez ematea komeni da.

Argibideak gura dituenak gaztelekuaren galde dezala, baina antolatzaleek jakinarazi dute norberak eroan beharko duela bazkaria. Eskiatza materiala ere norberak eroanez gero 20 euro bakarrik ordaindu beharko du eta materiala errentan hartu behar izanez gero, 40 euro.

JAIAK > ARATUSTEAK 08

Koadrilen desfilea eta herri bazkaria izango dira Aratuste-domekako izarrak

Kirol etxeen egingo dute herri bazkaria, eta eguztenerako txartel guztiak zeuden salduta; 600 lagun inguru elkartuko dira

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta
 Iritsi dira Aratusteak, aurten inoiz baino lehen, eta mozorroa azken ukituak ematen dabilta koadrilak eta herritarrok.

HERRI BAZKARIAN, 600 LAGUN
 Txistulariekin hasiko dira ospakizunak, eta 12:00ak inguruan desfilea hasiko dute koadrilek, Akelarre txarangak lagunduta. Copreci lantegi alboko lokal baten gertatu dituzte mozorroak, eta hantxe hasiko dute desfilea: Araba ibilbidetik Mitarte kalera egingo dute, Duranatik Lausittara, Murubide plaza eta Bedarreta auzoa pasatu eta Otalora kaletik gora Errekabarrenera.



DESFILEA Koadrilak, mozorrotuta, desfilea egiten. Iazko argazkia da. M.A.

Eguerdian, 14:30ean, herri bazkaria izango dute kirol etxeen. Txartel guztiak daude saldua, 600 inguru, eta giro bikaina sortuko dute koadrilek bazkaldu bitartean. 18:30ean, mozorro lehiaketako sariak banatuko dituzte. Eta afalostea Akelarre txarangak girotuko du.

MARTITZENEAN, UMEAK
 Aratuste-martitzena umeendako izango da. 11:00etan kalejira egingo dute Incansables txarangarekin. 18:00etan buruhandia etorriko dira, eta ostean euskal diskofestak girotuko du plaza. 20:30ean Txinaren hileta egingo dute Aratusteei agur esateko.

OHITURAK > SAN BLAS ETA SANTA AGEDA

Bihar, otsailak 2, joango dira Santa Ageda kintoak kantuan eta eskean baserrietara

Urtero legez, hilaren 3an ospatuko dute San Blas eguna Apotzagaetxebarriko ermitan, eta jakiak bedeinkatuko dituzte

M.A. > ARETXABAleta
 Bihar, hilak 2, joango dira Santa Ageda neska-mutilak baserriz baserri kantuan eta eskean. Etzi, Aratuste-domeka, txino-dantza egingo dute eguerdi partean, eta Santa Ageda dantza arratsaldean. Martitzenean ere egingo dute dantzan, Herriko Plazan.

SANTA ESKEAN, BIHAR
 100 urtean behin gertatzen dena gertatuko da aurten, Aratuste-domeka Santa Ageda eguna baino lehen izatea. Hala, Santa Ageda mutilek Aratuste-domeka pasatu eta gero joan beharko lukete kantuan eta eskean. Herriko batzuek diote urteko domeka guztietan egin beharko luketela dantzan hurrengo urteko Aratuste-domeka iritsi arte.

Kontuak kontu, 1989an jaio-tako kintoek erabaki dute bihar, otsailak 2, joatea santa eskean baserriretara. 06:30ak inguruan atera eta Kurtzebarri azpian dauzen auzoetan batuko dute goiz partean. Bazkalostearen Apotzagaetxebarri, Galartzeta eta Izurie-

tara iritsiko dira. Gainera, ez dira mutilak bakarrik ibiliko, neskek ere hartuko dute parte aurten, bai eskean, bai dantzaz egiteko orduan.

Domekan, ostera, dantzan egitea dagokie. Eguerdian txinodantza egingo dute Durana kalean, eta arratsaldean, agurra, banakoa eta gainerakoak, Herriko Plazan. Eta Aratuste-martitzena Santa Ageda eguna ere bada; hortaz, berriro egingo dute dantzan Herriko Plazan.

SAN BLAS EGUNA, DOMEKAN
 Otsailaren 3an, gainera, San Blas eguna da. Apotzagaetxebarri auzoko Salluente ermitan dago San Blasen irudia, eta ohitura da meza entzutera eta jakiak bedeinkatzen joatea bertara. Aurten ere esango dute meza Salluenten. 10:30ean izango da, eta bukatutakoan herritarrek eroandako jakiak bedeinkatuko dituzte. Apotzagaetxebarriraino ezin duenak igo izango ditu jakiak bedeinkatzenko beste bi aukera: 09:00etan Agustindarren komentuan esango duten mezan eta 11:30ean parrokiako meza nagusian.

Eta domeka baino lehen, bihar Kandelaria eguna ospatuko dute kristauak. Kandelak bedeinkatuko dituzte egunean esango dituzten bi mezetan: 09:00etan komentuan eta 19:30ean parrokian.

**> DEIA
 EAE-ANVren aldeko atxikimenduak jasotzea, gaur**

Gaur, otsailak 1, independentziaren eta Eusko Abertzale Ekintzaren aldeko aldarrakapena egin eta atxikimenduak jasoko dituzte. EAE-ANV antolatu du ekitaldia, eta Aretxabaletako hainbat kaletan jasoko dituzte atxikimenduak, 18:30ean hasita.

**> ELKARRETARATZEA
 'AHT geldituko dugu' leloarekin, elkarretaratzea gaur**

Gaur, egubakoitzta, elkarretaratza deitu dute *Herriaren indarrarekin AHT geldituko dugu* leloarekin. 19:00etan da, Haizea taberna pareko alda-pan. AHT Elkarlana taldeak deitu du, eta AHTren lanen jarraipena egiteko asmoa dauka egubakoitzetan.

**> IKASTAROA
 Fimoa zela erabili irakatsiko dute egunean**

Fimo izeneko orea zela erabili eta zer egin harekin irakatsiko dute otsailaren 7an eta 14an, 18:00etatik 20:00etara, udaletxe zaharrean. Loramendi EEk antolatu du ikastaroa eta bi aretxabaletar ibiliko dira irakasle lanean: Larraitz Garai eta Itsaso Pagoaga. Izena emateko epea hilaren 6an bukatuko da. Bazkideek 5 euro ordaindu behar dute eta gainerakoek, 7 euro.

**> IKASTAROA
 Ardo-dastatze ikastarorako aurrez eman behar da izena**

Ardo-dastatze ikastaroa antolatu du Loramendi Euskara Elkarreak. Otsaileko lau egubakoitzetan egingo dute, 8an, 15ean, 22an eta 29an, 18:00etatik 20:00etara. Izena, baina, aurrez eman behar da Loramendin, eta gaur da azken eguna. Bazkideek 20 euro ordaindu behar dute eta gainerakoek, 25 euro.

**> ATE IREKIAK
 Ateak zabalduko dituzte Basabeazpin, ikastola ezagutzeko**

Ate irekiak egingo dituzte Basabeazpin otsailaren 8an, egubakoitzta. Arizmendi ikastola ezagutaraztea eta Basabeazpiko eguneroko jarduna zelakoa den erakustea dute helburu ate irekiek. 18:00etatik 20:00etara izango da, eta edonor hurrera daiteke.



ADI KOOPERATIBISTAK!

SEGURU MEDIKU BEREZIA MCC-KO ONURADUNENTZAT

EUSKADIKO OSPITAL PRIBATU GUZTIETAN ZERBITZUA!

500 MEDIKU GIPUZKOA OSOAN.

Errekabarren 3 ARETXABAleta

Tel.: 943 77 11 76 / Faxa: 943 71 17 34 Posta-e: angelzubi@euskalnet.net

UDALA-ALOÑA MENDI > HITZARMENA

Lankidetza hitzarmena sinatu dute Aloña Mendik eta Udalak

Hitzarmenak urtebte
iraungo du; baina,
udal aurrekontuaren
arabera, lau urtez
luza daiteke

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Aloña Mendi elkartearren izenean Anton Intzak eta Udalaren izenez Lurdes Idoiaga alkateak bi erakundeon arteko lankidetza hitzarmena sinatu zuten urtarrilaren 26an. Hala, Oñatiko kirol jarduera bultzatu eta bermatzeako helburuarekin, urtebeteko hitzarmena sinatu zuten, udal aurrekontuak uzten duen neurrian, beste lau urtez luza daitekeena.

LAGUNTZA, LAU ATALETAN

Udalak, guztira, 110.000 euroko laguntza emango dio kirol elkar-teari; hain justu, kopuru hori lau ataletan banatzten da, eta baitzitaren ordainduoko da.

Urteroko ohiko kirol jarduneko 60.000 euroko laguntza emango du. Atal horretan sartzen dira, besteak beste, federazio gas-tuak, epaileen sariak, bidaia, arropak, ekipamenduak, asegu-rua eta osasun azterketak.

Era berean, ohiko txapelke-tatik kanpo antolatzen diren kirol jarduera bereziatarako, 19.000 euro bideratuko dira; eta, Ibarra eta Azkoagain futbol zelaietan



EKITALDIA Argazkian, Andoni Gartzia, Lurdes Idoiaga eta Anton Intza. G. ESKARTZA

egiten diren mantetze eta garbi-keta lanak ordaintzeko, 25.000 euro emango dizkio Udalak Aloña Mendiri. Bestalde, Aloñak Atzoko kalean duen bulego eta administrazio gastuei aurre egiteko, 6.000 euroko dirulaguntza izango du.

ALOÑAREN KONPROMISOAK

Bi erakundeen artean sinatutako hitzarmenean, Aloña Mendik Udalarekiko izango dituen bete-beharak ere zehazten dira.

Hain zuzen, kirol elkarteko ordezkariek Udaleko Kirol batzordean parte hartu beharko dute astero. Era berean, urtean zehar egindako ekintzak biltzen dituen txostena aurkeztu beharko dute udaletxean. Gainera, Aloñak, herriko haur eta gazteekin antolatzen dituen jardueretan eta jendaurrean antolatzen dituen txapelketa eta kirol eki-taldietan, euskara erabiltzeko konpromisoa hartu du. Bazkide eta kirolariei helarazten dizkien

gutunetan ere euskara erabiliko du. Gainera, euskararekin bate-ra espanyola erabiltzen den kasuetan, lehentasuna euskarari emanago diola ziurtatzen da.

JARRAIPEN BATZORDEAREN LANA

Bi erakundeek sinatutako lankidetza hitzarmenak dituen helburu nagusiak modu egokian bete daitezten, bost lagunek jarraipen batzordea osatuko dute. Bertan parte hartuko dute Oñatiko alkateak edo haren ordezkoak; Udaleko Kirol batzordeko presidenteak edo haren ordezkoak; Udaleko Kirol teknikariak; Aloña Mendi Kirol Elkarteko presidenteak edo haren ordezkoak; eta Udaleko Kirol Batzordean Aloñak duen ordezkarriak.

Era berean, beharrezko bal-din bada, jarraipen batzordearen batzarretan beste pertsona batzuek parte hartu ahal izango dute, gai zerrendan dagoen gai-ren baten inguruko iritzi profesionala emateko. Gainera, jarraipen batzordea urtean hiru aldiz bilduko da.

ESKOLA KIROLA, ALOÑAREN ESKU

Beste bi puntu ere zehazten dira lankidetza hitzarmenean. Alde batetik, Aloña Mendik lehenta-suma izango du Udalaren jabetzako kirol azpiegiturak erabiltze-ko; eta, beste alde batetik, elkar-teak eskola kirolaren antolaketan parte hartzeko kon-promisoa hartu du

ZIRKULAZIOA

Zebra-bide altxatuak Errekalde auzoan

Autoen abiadura
gutxitze
helburuarekin
jarriko ditu Udalak

M.B. > OÑATI

Errekalde auzoko bizilagu-nek egindako eskaera aintzat hartuta, Udalak zebra-bide gehiago jarriko ditu. Era berean, abiadura moteltze-ko zebra-bideak errepideak duen mailatik igo egin-go dira.

Hala, Errekalde auzoko 14. zenbakiaren eta Moiua kaleko 10. zenbakiaren parean zebra-bide berriak margotuko dituzte.

ABIADURA MOTELTEKO

Hain zuzen, Moiua kalektik Errekalde auzora doazen autoek hartzen duten abiadu-rari aurre egiteko, zebra-bide berriak errepideak duen mai-latik altxatu egingo dira. Gainera, Errekalde auzoko 5., 26., eta 29. zenbakietan dau-den zebra-bideak konpondu egingo dira.

ELKARTASUNA

Argentinako edukiontz zuria, zabalik

Materiala
eguaztenetan eta
eguenetan utz
daiteke lokalean

M.B. > OÑATI

Argentinara bidali den 19. kontainera prestatzen zebil-tzan bitartean, Bidebarrieta kaleko edukiontz zuria itxi-ta egon da. Bada, gaur bertan zabaldu egin da eta materia-la utz daiteke han.

Era berean, Argentinako Elkartasun Taldeko bolun-tarioak eguaztenero eta egue-nero Bidebarrietako lokalean egongo dira jasotako materia-la sailkatzen. Hortaz, 18:30etik 20:30era, materiala lokalean utz daiteke.

Bestalde, urtarrilean bida-li da Argentina aldera 19. kontainerra. Arropa eta jostai-luez gain, besteak beste, mar-goak, euritakoak eta senda-gaiak bidali dira.



LATZEN Argazkian, taldeko kideak.

ZERBITZUAK > AUTOBUSA

Autobus zerbitzu berezia Latzenek Eskoriatzan emango duen kontzerturako

Otsailaren 9an bi autobus ibiliko dira Oñati eta Eskoriatza arteko bidea egiten, ordu erdian behin

M.B. > OÑATI

Otsailaren 9an Latzen taldeak Eskoriatzan eskanik duen kontzertura herriko 600 gazte inguru joango dela aurreikusten denez, gaueko autobus zerbitzu berezia kontratatzea erabaki du Udalak. Zerbitzuak sortzen duen defizita Udalak bere gain hartuko du. Pesa garraio enpresak egin- go ditu zerbitzuok, 1.160 euroen truke.

AUTOBUSAK, ORDU ERDIAN BEHIN
Otsailaren 9rako iragartzen den zerbitzu berezia bi autobusekin beteko du Pesak. Hain zuzen, 19:30ean eta goizaldeko 03:30era arte, ordu erdian behin irtengo

da autobusa Oñatitik Eskoriatza-ra eta alderantzik. Era berean, autobus zerbitzua eten egingo da, gidarien atsedenerako, 23:30etik 01:00etara.

Bestalde, gaueko autobus zerbitzua erabiltzeagatik, 1,5 euro ordaindu behar da bidaia bakoi-tzarengatik; eta 3 euro, joan-etro-riko bidairengatik.

SARRERAK, SALGAI

Eskoriatzako Intxaurtxueta kirolegian iragartzen den kontzerturako sarrerak salgai daude Aker eta Boga tabernetan. Latzenekin batera, Bergarako Aby-Kem eta Arrasateko Gover-nors taldeek joko dute.

OSOKO BILKURA > JAURLARITZAREN INGURUMEN BAIMENA

Herriko bi enpresak ingurumen baimena eskuratzeko zaitasunak dituzte

Herenegun egin zuten ohiko osoko bilkuran, kirolegiko zerbitzuak emateko Goienasport enpresa kontratatu zuten; horrez gain, herriko bi enpresari alegazioak jarri zizkien Udalak, ingurumena kaltetzen dutelako

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Herenegun, eguztena, ohiko osoko bilkura egin zuten udaletxeen, eta berbagai izan zuten gai garrantzitsuenetako bat izan zen udalerriko bi enpresak zaitasunak dituztela Jaurlaritzak agindutako ingurumen baimena eskuratzeko.

MIRVAT ETA EDERLAN

Mirvatek eta Ederlanek ingurumaren gaineko txosten bana aurkeztu dute Jaurlaritzan, eta Udalak alegazioak egin dizkie horiei.

Udalak nabarmendu du Mirvat oso ondo zaindutako inguruaren kokatuta dagoela, Deba ibaia garbi dagoen leku bakarrean.

Horrez gain, Mirvat inguruko baserriean bizi direnak askotan kexatu dira enpresa horrek egiten duen zaratarenagatik.



INGURUNE BABESTUAN Mirvat enpresa Deba ibaiko zona zainduenean dago; horrek arduratuta dauka Udalak.

GOIENKARIA

Horren harira, Udalak ez du begi onez ikusi enpresa horren arduradunek Jaurlaritzan aurkeztutako agirian ondo ez azaldu izana eragiten dituzten kalteak, ezta kalteok neurten ere.

Ederlanen agiriari ere alegazioak egin dizkiote. Hura ere Deba ibaiaren alboan dago, eta, Udalaren esanetan, kutsadura atmosferiko nabarmena eragiten du. Horregatik, Ederlaneko

arduradunei eskatzen diete elementu kutsagarri horiek desagerrarazteko.

Bestalde, Udalak kirolegiko zerbitzuen adjudikazioa onartu zuen. Hiru enpresa aurkeztu

ziren lehiaketara, eta Goienasportek irabazi zuen. Hala, hemen-dik aurrera, Aretxabaletako enpresak emango ditu ikastaroak eta sorosle lanak egingo ditu igerileukan.

OSPAKIZUNAK > SANTA AGEDA

Kintoak prest daude Santa Agedarako

Astelehenean baserririk baserri ibiliko dira, eta martitzenean dantza egingo dute Herriko Plazan

I.B. > ESKORIATZA

Aurten bigarren aldiz neskak eta mutilak, biak, irtengo dira kantuan, dantzan eta eskean. Herriko kale eta auzo guztietan ibiliko dira kintoak. Hori Santa Ageda egunaren bezperan eta egunean egingo dute, bietan, aspaldiko ohiturak eskatzen duen moduan.

BI NESKA

Are gehiago, aurten, bi neskak mutilekin batera egingo dute dantza herriko plazan. Lehenengo aldia da neskek egun horretan Eskoriatzan dantza egiten dutena, eta horregatik, pozik daude eskoriatzar asko.

Garaia aldatzen dabiltsan seinala da hori; eta hurrengo urteetan ere errepikatzea gurako lukete hainbat eskoriatzarrek.

KANTUAN ETA ESKEAN

Aurten Santa Ageda eguna Aratusteen ondoren ospatuko dute. Hala ere, ez dute ohitura hori aldatzeko inolako asmorik.

Hala, astelehenean, Santa Ageda egunaren bezperan, baserririk baserri ibiliko dira kantuan eta eskean. Horren ostean, Aratuste-martitzenean, Santa Ageda egunean hain justu, herri barruan ibiliko dira kantuan; eta 19:00etan dantza egingo dute jendaurrean herriko plazan.



ANTZINAKO IRUDIA Eskoriatzar batzuek Santa Agedako aspaldiko argazkia ekarri digute argitaratzeko. 1958ko Santa Ageda egunean Uxarte baserrian (Mendiola) egindakoa da argazki hori, baina ez dakigu zeinek atera zuen. Goitik, ezkerretik esku maha: Jose Mari Arando, Luis Mondragon, Agustin Zugasti, Pablo Bengoa, Julian Arenaza, Felipe Arkauz, Felix Arrese, Santi Arkauz eta Isidoro Arrese. GOIENKARIA

LANAK > ELKARLANA

Amaralek urbanizazio lan batzuk egingo dizkio Udalari ordainean

Santa Ana auzoa eraberritzeko lanen atzerapena zela-eta, Amaral enpresak urbanizazio lan batzuk doan egingo dizkio Udalari

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Udalak eta Amaral eraikuntza enpresak izan duten ika-mika konpondutatz eman dute bi aldeek. Hain zuen ere, Amaral enpresak udalerrian hainbat urbani-

zazio lan egin beharko ditu, Udalak ezarritako zigorra barka diezaion.

Arazoa aspalditik dator. Izan ere, Amaral enpresak egin zituen Santa Ana auzoa eraberritzeko

lanak, eta agindutako epeak ez zituen bete. Arrazoi horregatik, 2006ko martxoan Udalak erabaki zuen Amaral enpresari atzerapenarengatik isuna ezartzea; 18.000 euroko isuna.

Hala ere, gaur egungo udalbatzak azaldutakoaren arabera, 2006ko martxoan Amaral enpresako arduradunei ez zieten jakinarazi isun hori jarri behar zietenik. Hortaz, Amaralek ezin izan zuen errekurtsorik jarri.

DIRU SARRERA GISA

Hain zuen ere, gaur egungo udalbatzaren esanetan, lanen zuzendaritzan ez zuten aztertu Amaral enpresari isuna jartzeko asmoa.

Udalak, ordea, 18.000 euro horiek 2007rako diru sarrera moduan aurreikusita zituen.

Orduan jakin zuen Amaralek ez zuela erabaki horren berri izan.

PROCEDURA BERRIRO HASI

Hori dela eta, gaur egungo udalbatzak procedura ia zerotik hasi behar izan zuen. Uztalean Amaralekoengana jo zuten aipatuta-

ko isunaren berri emateko. Horren aurrean, baina, Amaral enpresak alegazioak aurkeztu zituen Santa Ana eraberritzeko lanak bukatu zituela hainbeste denbora igaro ostean, ganoraz argudiatzeko eta defenditzeko zaitasunak izan zitzakeelako.

Horren harira, Udaleko lanen zuzendaritzak erabaki zuen ezin ziola atzerapenaren erru guztia Amaral enpresari bota, eta besotelako konponbidea bilatu beharko zutela.

AMARALEK, LANAK ORDAINEAN

Horregatik, Udaleko ordezkariek Amaral enpresako arduradunekin hainbat elkarritzeta izan dituzte. Horren arabera, azkeneko erabakia izan da isuna ordainarazi beharrean, Amaralek Udalarenak urbanizazio lan batzuk doan egin beharko dituela udalerrian.



ADIN GUZTIAK Adin guztiak herriarrak morrorotzen dira, baina txikienek (argazkian) dute gustukoen. GOIENKARIA

JAIAK > ARATUSTEAK 08

Aratustearako hainbat berrikuntza egin dituzte

Eskoriatzan Aratuste-zapatua indartzeko, Udalak eta tabernariekin hainbat ekimen antolatu dituzte

I.B. > ESKORIATZA

Aurtengo Aratusteetan hainbat berrikuntza izango dira herrian. Udalak, aspaldiko partez, mozo-roen lehiaketa antolatu du. Lehen egiten zuten, baina aspalditik utzita zeukan. Iaz, ordea, udalerriko tabernen apainketa eta giroa saritu egin zuten.

Aurten Udalak apustua egin du zapatuan ere herrian jai giroa egon dadin. Horretarako, egitaraua antolatu dute. Lehenik eta behin, 12:30ean, makillaje tailerra egingo dute herriko plazan. Horren ostean, 13:00etan, eguerdiko dantzaldia egingo dute Egan

taldearekin; eta 14:30erako prest izango dute herri bazkaria pilotalekuaren. Bazkarirako txartelak dagoeneko salgai daude Goxotxiki eta Inkermu tabernetan. Helduek 17 euro ordaindu beharko dituzte; eta umeek, berriz, 9.

MOZORROEN KALEJIRA

Bazkalduetako jaisteko, 18:00etan dantzaldia egingo dute berriro herriko plazan Egan taldearekin. Horren ostean, baina, mozorroak jendaurrean erakusteko unea helduko da: 19:30ean kalejira egingo dute pilotalekutik plaza bitartean. Horretarako, ezin-

bestekoa izango da 15 minutu lehenago izena ematea pilotalekuaren.

Kalejiran esku hartuko dute-nak lehiaketan sartuko dira. Helduendako saria 300 euro izango da; eta 16 urtetik beherakoendako, sorpresa. Sari banaketa 20:30ean egingo dute plazan.

TABERNARIEN EKIMENA

Bestalde, herriko 11 tabernatako arduradunek Tabernarixak martxan ekimena sortu dute, horiek ere Aratuste-zapatuko gaua indartzeko. 22:00etan hasita, plaza inguruko eta goialdeko gazteen tabernetan txartelak banatuko dituzte; horrek, sei lagunendako egonaldia landetxe batzen zozkatuko dute.

ETXEBIZITZAK > ERRENTA

Udal etxebizitzak errentan hartzeko izenematea zabalik

Intxaurtxueta kaleko 26. zenbakiko bi etxebizitza errentan jarriko ditu Udalak

I.B. > ESKORIATZA

Abenduaren 26ko osoko bilkuraren erabaki zuten Udalak Intxaurtxueta kaleko 26. zenbakian dituen bi etxebizitza alokagai jartzea.

Dagoeneko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu egin dute, eta martitzenean

zabaldu zuten izenematea udaltxean. Alegaziorik ez badago, 15 egun izango dira.

AURKEZTU BEHARREKOA

Honako dokumentazioa eraman beharko dute udaletxera: NAren fotokopia, azkeneko errenta aitorpena eta agiri bat etxebizitarik ez dutela egiazatzen dutena, Bergarako erre-gistroan eska daitekeena.

Horrez gain, ezinbestekoak izango da Etxebiden izena emanda egotea eta azken bi urteotan, gutxienez, Eskoriatzan bizi izatea.

> IRTEERA

Valdezcarayra egun batez eskiatzen joateko irteera antolatu dute gaztelekuko arduradunek

Eskoriatzako gaztelekuak, Aretxabaletako eta Antzuolako gaztelekuak batera, eskiatzen joateko irteera antolatu du. Hilaren 23an egingo dute, zapatuan, eta egun berean bueltatuko dira Deba-goienera lo egitera.

Irteeraren helburua da Valdezcarayko (Errioxa) pistetan eskiatzea. Interesatuek Eskoriatzako gaztelekura jo dezakete informazio gehiago batzera edota izena ematera. Nork bere materiala eramanez gero, 20 euro ordaindu beharko dituzte; eskiak edo bestelakoak alokatu behar izanez gero, berriz, 40 euro.



> JAIAK

**San Blas jaiak
zapatuan ospatuko
dituzte Basalden**

Otsailaren 3an da San Blas eguna. Orain arte egunaren ostean egin izan dituzte ospakizunak, baina aurten, domeka izanik, zapatara, otsailaren 2ra, aurreratu dituzte ospakizunak. Basalde auzoan meza izango da lehenengo, 12:00etan. Bertan, besteak beste, ogiak eta kandelak bedeinkatuko dituzte auzotarrak eta gerturatzen diren gainontzeko herritarrek. Meza ostean, salda eta txori zoa banatuko dituzte eta giroa alaitzeko herriko trikitilariek jardungo dute.

> GIMNASIA ERRITMIKOA
**Gimnastak, bikain
eskola arteko
txapelketan**

Eskola arteko txapelketan oso emaitza onak lortu dituzte Ariznoa taldeko antzuolarrek. Infantil mailan lehenengo izan zen Ane Miren Muguruzaren taldea; gazte mailan Itxaso Garmendia, Olaia Gasteain, Maialen Legorburu eta Ainiñe Lizarralderena; eta kadete mailan Onintza Legorburu, Ane Alberdi, Jone Larrañaga, Amaia Irastorza eta Uxoa Toldorena. Gazte mailan, bakarra, bosgarren izan zen Ainixe Lizarralde eta kadete mailan Onintza Legorburu bigarren.

> UDALA
**Zabalik dago bake-
epaile posturako
izen emateko epea**

Otsailaren 5era arte dago epea bake-epaile postua bete nahi dutenek izena emateko. Iaz hutsik geratu zen postu hori, eta denbora tarte honetan Urretxuko bake-epaileak bete ditu postu horri dagozkion eginkizunak. Orain, izena eman nahi dutenek udaletxera jo beharko dute eta eskaera agiria bete. Bake-epaile izateko ez da titulazio berezikrik eskatzen. Lau urterako izango da kargua.

LARREA**TABERNA**Kalebarren 17
ANTZUOLA

KIROLA > FUTBOL PARTIDUA XABIER BARKEROREN OMENEZ

Athletic-eko eta Antzuolako beteranoak aurrez aurre

Antzuolako beteranoek Athletic-eko beteranoak izango dituzte aurkari

Xabier Barkeroren omenezko partidua zapatuan izango da, 16:30ean, Eztalan

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Antzuolako Futbol Taldeko beteranoek Athletic-eko beteranoen aurka jokatuko dute Xabier Barkeroren omenez, bihar, zapatua, 16:30ean, Eztalan.

Andoni Azkargorta taldeko kideak esan digu zapzigarren aldi honetan ere gogoz daudela partidua jokatzeko: "Batzuek aspaldi utzi zioten futbolean jokatzeari, beste batzuek orain dela urte batzuk, baina denok jardungo dugu gustura. Lagunok Barkeron gogoratzeko modu polita da".



REALA Xabier Barkeroren omenezko azken torneoan Realeko beteranoak izan zituzten aurrez aurre antzuolarrek. GOIENKARIA

Serio jardungo dute, baina ondo pasatzea da asmo nagusia. "Entrenamenduak egin ditugu eta sasoian ipintzeko ere balio

izan digu. Hala ere, gure asmoa ez da gogor lehiatzea; ikuskizun polita eskaini nahi dugu", esan digu Andoni Azkargortak.

Oroigarriak izango dira gero talde irabazlearrendako, baita Barkeroren senideendako ere. Ondoren, luntxa egingo dute.

> JAIAK > INAUTERIAK

Dantzarien kalejira eta saioa domekan

Mozorrotuta ibiliko dira dantzariak kaleetan, hartza, tximinoa eta hezitzalea lagun dituztela

I.A. > ANTZUOLA
Inauteriak gaur hasi dira Antzuolan. Txikiiek, eskolan, ikuskizunak eta mozarro desfilea egin ostean, txokolate jana eta Potxin eta Patxin pailazoaren emanaldia izango dituzte, arratsaldean, frontoian.

Domekan helduko diete berriz Inauteriei. Oinarin dantza taldekoak, 10:00etatik, kalejiran ibili-

ko dira mozorrotuta, herrian barrena. Antzuolako Inauteriako pertsonaia Hartza, tximinoa eta hezitzalea izango dituzte lagun.

Ondoren, 12:30ean, dantza saioa eskainiko dute Herriko Plaza. Ekitaldian, dantza taldearen alde lan handia egin duten Gervasio Legorburu eta Karmele San Sebastian omenduko dituzte.



IRATI AGIRREAZALDEGI

Jolasgune berritua, laster gertu

Eskolaren aurrean dagoen umeendako jolasgunea laster egongo da erabiltzeko gertu, konponketak egin ostean. Parkeko zoladura berritu, segurtasun zola jarraia ipinita, eta ziburuak konpondu egin dituzte. Gainontzeko jolasguneak noiz eta nola berritu aztertzen dihardute, eta hurrengoa Beheko auzokoa izango da, seguru aski.

ANTZUOLA

Apaintekat eta
isolamendua
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga

**Zoruen kutxilatu
eta
bernizatzea**

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR

taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga

Apaintekat eta
industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA



MOZORROA Makillaje saioetan ikasitakoak gaur ipiniko dituzte praktikan herrian.

JOSETXO ARANTZABAL

JAIAK > ARATUSTEAK

Eskolakoek zirkua hartu dute ardatz mozorrotzeko

Gaur Elgetan umeen dantzak, jokoak, txokolate jana, buruhandiak, disco festa, zezensuzkoa eta gaztetxeen bi talderen kontzertua egongo dira

LARRAITZ ZEBERIO> ELGETA
Iristsi dira atzera ere Aratustea eta gaur, barikua, dute egun han-dia Elgetan jai horiek gustuko dituztenek.

Herriko eskolako umeek emango diete hasiera Aratuste-ei; izan ere, 15:00etan hasita herriko kaleetan barrena kalejira egi-tea dute iragarrita. Zirkua auke-ratu dute aurten eskolakoek mozorrotzeko; beraz, animalia-hezitzalez, pailazoz, trapezistaz

eta abarrez beteko dute herria. Dantzak ere prestatu dituzte, eta kalejira amaitutakoan egingo dituzte Herriko Plazan. Eguraldi txarrarekin, ekitaldi horiek Espaloian egingo dituzte.

Guraso Elkarteak eta Udalak ere bat egin dute Aratusteekin, eta 16:00etarako jokoak antolatu dituzte umeendako. 17:00etan txo-kolate jana egingo dute eta ordu erdi geroago buruhandiak irten-go dira. Aurten, bigarren urtez,

disko festa egingo dute Espaloian; 18:00etatik 19:00etara izango da hori. Eta amaitzeko, 19:30erako zezen-suzkoa antolatu du Udalak Herriko Plazan.

BI TALDE GAZTETXEAN
Gau partean ere egongo da eskaintzarik Elgetan. Gaztetxeak kon-tzertua antolatu du, eta 22:30ean hasiko da. Bi talde aritu dira, Kataluniako Tremendamente eta Markinako Txato Plato.

Ez da, beraz, herrian anima-ziorik faltako. Hortik aurrerakoak norberak jarri beharko ditu. Herritarrek gertatutako mozo-roen maila ikustea geratzen zai-gu orain.

ONDAREA > ARGAZKIAK

Robert Caparen negatiboetako batzuk Elgetako frontean ateratakoak izan daitezke

'The New York Times' aldzikariak negatiboen kutxetako baten argazkia argitaratu du, eta bertan, Elgetan ateratako argazkiak daudela ageri da

A.B./L.Z.> ELGETA
Robert Capa argazkilariak Espai-niako Gerran ateratako negatibo bilduma aurkitu zuten 1995ean Mexikoko etxalde baten. Argaz-kiak zituen familiaik Caparen ondorengoekin negoziatu du, eta berriki New York hirian dagoen International Center of Photo-graphy erakundera eraman ditu-te 3.000 negatibo inguru.

Horri buruzko erreportajea atera du *The New York Times* aldzikariak eta negatiboen kutxe-tako baten irudia agertzen da ber-tan. Etiketa baten *Elgeta-Elorrio-Eibar* irakur daiteke. Pentsatze-ko da, beraz, Caparen argazkien artean Elgetako frontean ateratakoak daudela. Euskal Herrian frontean ateratako argazki gehiago egon daiteke, gainera.

GALDUTZAT EMATEN ZEN LANA
Robert Capa gerra argazkilariak nazien inbasioaren ondoren gal-dutzat eman zuen argazki bildu-ma hori eta 1954an hil zen Vietnam-en. 50 urtez ezkutuan egon oste-an, ikusteko dago orain negatibo horiek zein egoeratan dauden.

Baliteke, beraz, Elgetako fron-tean ateratako argazki gehiago egotea.

OMENALDIA > JONE MUXIKA

Jone Muxikari omenaldia egingo diote hilaren 10ean

Helduendako bizikleta irteera eta umeendako bizikleta jaialdia egingo dituzte, besteari bestea

L.Z. > ELGETA
Txirrindulari Elkarteak eta Udalak antolatuta, omenaldia egingo diote hilaren 10ean, domeka, Jone Muxika txirrin-dulari elgetarrari.

Egitarrak zabala prestatu dute, goizean goizetik hasiko dena. 09:30ean bizikleta ibilaldi luzea egingo dute: Elgeta, Elorrio, Durango, Zornotza, Durango, Elorrio, Kanpanzar, Asentzio eta Elgeta. Umeei zuzenduta, berriz, 10:30ean abiatura bizikleta irteera egingo dute Elgetatik Asentziora. Iritsitakoan, 11:15ean, bizikleta festa egingo dute Asentzion.

Umeendako bizikleta ibilbide-ak prestatu dituzte antolatzai-leek.

BAZKARIA ESPALOIAN

Asentziotik bueltan, Espaloian egingo diote omenaldia Jone Muxikari. Jarraian, 14:00etan, bazkaria egingo dute. Bazkari-rako izenematea hilaren 6ra arte dago zabalik udaletxeen eta Espaloian. Umeendako menua zortzi euro da; nagusiendakoa, berriz, 20 euro.

Jone Muxikak ziklo-kros denboraldi polita egin du. Bada, merezitako omenaldia egingo diote herritarrek.



OMENDUA Jone Muxika elgetarra.

GOIENKARIA

> JAIAK
**Domekan, hilak 3, meza esango dute
Arantzetako San Blas ermitan, 13:00etan**

Oraingo domekan, otsailaren 3an, da aurten San Blas eguna eta Arantzeta auzoan prest dituzte urtero ospakizunak. Elgetako abade Juan Cruz Juaristik esango du meza auzoko ermitan, 13:00etan hasita.

Jarraian, San Blas opilak bedeinkatuko ditzu. Auzotarrek, gai-nera, urtero legez, salda beroa eta pintxoak gertatuko dituzte.

> IKUS-ENTZUNEZKOIA
**Eguenean, hilaren 7an, egingo dute DVDAren
aurkezpen ekitaldia, 20:00etan, Espaloian**

Udalak Elgetaren gaineko DVDAren aurkezpena egingo du. Galda-re enpresak egin du lana eta 30 minutuko iraupena dauka. Bertan, herria eta bere ezaugarriak ikusten dira. Turismo promozioari begira egindako lana da. Mila ale aterako ditzu eta salgai jarriko dituze bost eurotan. 10.440 euroko aurrekontua izan du egitasmoak.

> KONTZERTUA
**Anje Duhalde musikariak kontzertua egingo du
Espaloia Kafe Antzokian hilaren 9an**

Errobi taldeko sortzaile eta urte askoan Akelarre taldeko abesla-ri izandako Anje Duhalde kantautore euskalduna Elgetan izan-ko da hilaren 9an. Kontzertua egingo du Espaloia Kafe Antzokian, 22:30ean hasita. Sarrerak dagoeneko salgai daude hamar eurotan (zortzi euro bazi-kideendako).

JAIAK > ARATUSTEAK 08

Mozorro lehiaketa antolatu du Udalak Aratusteetako zapaturako

Arratsaldeko bost eta erdietan kalejira hasiko dute herriko kirolegian eta, ondoren, txokolate jana eta disko festa egingo dituzte Herriko Plazan

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO
Aramaioko Udalak guztia prest dauka Aratusteei ongietorria egiteko, eta espero dute bihar arratsaldean Aramaioko kaleak mozorroz beteta ikuste.

Mozorro lehiaketa antolatu dute, eta parte-hartzaileek kalejira egin beharko dute kirolegian hasi eta Herriko Plazaraino. Arratsaldeko bost eta erdietan hasiko da kalejira. Lehiaketan taldeka edo banaka har daiteke parte, baina taldeka mozorroen kasuan, lau lagunek baino gehiagok mozorrotu beharko dute. Gaia librea da.

Guztira sei sari banatuko dituzte. Taldekako mozorro onenaren sarian haurren eta hel-

duen taldeak bereiziko dituze. Bietan ere, lehenengo postuan gelditzen direnek 90 euro jasoko dituzte sari gisa eta bigarrenetik, berriz, 36 euro. Mozorro orijinalena ere sarituko du. Hori taldeka edo banakoa izan daiteke. Kategoria horretan lehenengo saria 48 euro izango da eta bigarrena 30 euro. Izena emateko azken eguna gaur da. Lehiaketan parte hartu nahi dutenek liburutegian bete beharko dute izena emateko orria.

Mozorrotuen kalejira Herriko Plazara iristen denean, sari banaketarekin batera txokolatea edateko aukera izango da. Ondoren, giroa berotuta, disko jai egingo dute.



ARATUSTEAK Kalejira egingo dute bihar, kirolegian hasi eta Herriko Plazaraino.

ARTXIBOA

ARATUSTEETAKO MARTITZENA

Martitzenean ere mozorroak izango dira protagonista Aramaion. Kasu horretan, Aramaio-

ko kaleak txinatarrez beteko dira, San Martin eskolako haurrak aurten txinatar jantziko dira-eta. Ordu biak inguruhan herensuge

arteak kalejira egingo dute esko latik Herriko Plazara. Bertan, azken asteotan entseatu dituzten txinatar dantzak egingo dituzte.

AUTOBUSAK

Autobusek ordutegi berria dute, gaur hasita

Astelehenetik egubakoitzera

ARAMAIO-ARRASATE-ARAMAIO

Arrasatetik irteerak:
07:00 - 10:00 - 11:00 - 12:00 -
15:15 - 17:45 - 18:30 - 20:30

Aramaiotik irteerak:
07:50 - 09:10 - 10:15 - 11:15 -
13:50 - 17:15 - 18:10 - 20:10

GASTEIZ-ARAMAIO-ARRASATE-GASTEIZ

Gasteiztik irteerak:
08:30 - 13:10 - 16:30 - 19:30

Arrasatetik irteerak:
07:00 - 12:00 - 15:20 - 18:30

Aramaiotik irteerak:
07:15 - 12:15 - 15:35 - 18:45

UDALA > MENDI ETA BASO BATZORDEA

Durakogain eta San Adrian arteko mendia landatuko dute

Aurten egingo dituzten landaketetan pinuak eta bertako zuhaitzak tartekatuko dituzte: erdi eta erdi

A.B. > ARAMAIO

Aramaioko Udalda da seguruenik bailaran baso eta mendi gehien dituena. Guztira, 500 hektarea dira ustiatzen dituztenak. Aurten Durakogain eta San Adrian bitarteko mendian egingo dituzte landaketak eta datorren urtean Ganborraldeko mendian jarraituko dituzte landaketa lanak.

Durakogaineko basoa landatzeko aurrekontua 77.000 euro inguru da. Orain, basoa ixten dihardute eta otsailaren amaieran hasiko dira zuhaitzak landatzen. Mendi Batzordeak azaldu du pinuak eta zuhaitz autoktonoak landatuko dituela; gutxi gorabehera, erdi eta erdi. "Pinua da diru gehien ematen duena, eta hemengo zuhaitzak garestiagoak dira, dirulaguntza gehiago ematen dituzten arren. Baino hemengo

zuhaitzak berreskuratu nahi ditugu eta, era berean, gure inguruko mendiak pixka bat jantzi", azaldu du Errastik. Durakogaineko tontorraren inguruan landatuko dituzte hemengo zuhaitz gehienak. Izan ere, asteburuetan jende asko ibiltzen da inguru horietan mendian. Gainontzean, berriz, pinua landatuko dute.

ESANAK

"360.000 euro jaso genituen, baina horren erdia 20 urtean basoa lantzeko lanetan joaten da"

"Pinuak diru gehiago ematen duen arren, bertako zuhaitzak berreskuratu nahi ditugu eta inguru mendia jantzi"

Jon Errasti > Mendi batzordea

Durakogain eta Ganborraldeko pinuak joan den urtean bota zituzten. 42 hektarea horietan landatutako pinuengatik 360.000 euro inguru jaso zituen Udalak. Baino horren benetako irabazia askoz txikiagoa dela azaldu du Errastik: "Bat-batean 360.000 euro jasotzen dituzu, baina diru horren erdia, adibidez, 20 urtean basoa zaintzeko lanetan joaten da".

14 ZUHAITZ MOTA

San Adriango ermita inguruhan, bestetik, bi hektareako lursail batean 14 zuhaitz mota landatuko dituzte, guztia hemengoak. Asmoa da, gero, eskolako haurrak bertara joan ahal izatea zuhaitzak bereizten ikastera.

ARABAKO BASOGINTZA ELKARTEA

Aramaioko Udal Arabako Basogintza Elkartearen barruan dago. Elkarte horrek bitartekari lanak egiten ditu Udalak Diputatziotik dirulaguntzak jaso ditzen. 2007 eta 2017. urte bitarteko Baso Kudeaketa Iraunkorrerako Plan Teknikoa landute, eta orain, bertan ezarritako irizpideak jarraituko ditu Aramaioko Udalak.

> IKASTAROA Informatika ikastaroa antolatu dute abeltzaintzat

Mendinetek oinarrizko informatika eta Internet ikastaroa antolatu du otsailaren 13an hasi eta martxoaren 13ra arte. Ikastaroak Murgiako liburutegian izango dira, astelehenetik barikura, 11:00etik 14:00etara, eta, hain zuzen ere, 65 ordu iraungo dute. Matrikulazioa doan da.

Izena emateko epea otsailaren 8an itxiko dute. Ikastaroan parte hartu nahi dutenek 945 43 01 67 telefonora deitu behar dute.

> HITZALDIA Herriko ondarearen inguruko hitzaldia dago gaur Sastiñan

Orixolek antolatu duen argazki erakusketa aitzakia hartuta, Udalak hitzaldia antolatu du Aramaioko ondarearen inguruhan. Hitzaldia Sastiñan izango da, gaur, 19:00etan. Hizlariak Periko Uribarrena eta Javier Fernandez izango dira.

Orixol elkartearren argazki erakusketa, bestetik, zabalik egongo da barian 18:30etik 20:30era eta zapatu eta domekan 12:00etik 13:30era eta 18:30etik 20:00etara.

Jolasak egingo dituzte pilotalekuaren ume eta gazteek, 16:30ean

Herri afarirako 60 txartel jarri dituzte salgai Labidean

Kuluxka taldeak girotuko die afalostea Garro jauregikoei

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA
Bihar, zapatua, ospatuko dituzte Inauteriak Gatzagan. Azken urteotan legez, jolasak egingo dituzte arratsaldean eta herri afaria gauean.

GUZTIAK MOZORROTUTA
Inauteri-zapatuko ekitaldiak elkarrekin antolatu dituzte Gurel guraso elkartea eta Udalak. Bazkalostean mozorrotuko dira umeak, eta jolasak eta dantzak izango dituzte arratsaldean, 16:30ean, hain zuen, pilotalekuaren. Jolasekin nekatutakoan eta hotzari aurre egiteko, txokolate beroa eskainiko diete gurasoek Garro jauregian.

Ilunkaran helduak agertuko dira mozorrotuta, eta poliki-poliki Inauteri giroan sartzen hasiko dira. 21:30ean Garro jauregian elkartuko dira txiki eta heldu, eta Udalak antolatutako herri afariari ekingo diote: "60 bat lagunendako atera ditugu txartelak, eta Labidea denden dau-

JAIAK > ARATUSTEAK 08

Umeendako jolasak eta herri afaria, Inauteriak ospatzeko



MOZORROTUTA Ume eta gaztxoak mozorrotuta pilotalekuaren, txokolate beroa noiz banatuko zain.

MIRARI ALTUBE

de salgai. Beste batzuetan moduan, bete egingo dela uste dugu", adierazi du Ainara Zubillagak, Kultura zinegotziak.

Hona hemen izango duten menua: hestebeteak, entsalada eta oilaskoa patatekin eta ijiot besoa izozkiarekin. Afalostean ez dute

inolako presarik izango gatzagarek, eta girotzeo Kuluxka taldea etorriko da. Erromeria giroko kantuak eskainiko dituzte Garro

jauregian bertan, dantzan egin edo kantuekin eztarrria berotzeko. Eta askok goizaldera arte luzatuko dute Inauteri-zapatuko jaia.

HIRIGINTZA > ARAU SUBSIDARIOAK

Arlabango plan berezia eta arau aldaketan proposamenak aztertzen hasi da Udala

Udalbatzako kideak, proposamenok aztertutakoan, Toledo taldeko aditurekin elkartuko dira

M.A. > LEINTZ GATZAGA
Arlaban gaineko plan berezia eta hiri antolamenduko arau aldaketak proposatu zituen aurreko agintaldiko udalbatzak 2007ko martxo inguruan. Hain zuen, hasierako onespina egin zitzaien proposamenoi, baina onartu barik geratu ziren orduan; izan ere, Eusebio Villar buru duen udalbatzak ondo aztertu gura ditu proposamenok, behin betiko era-bakiak hartzen hasi aurretik.

OSTATU ETA AISIALDIRAKO GUNEA
Joan zen martxoan argitaratu zituzten Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean bi deialdiak: Arla-

ban gaineko plan bereziarena eta Gatzagako lur ez urbanizagarriari dagokion arau subsidiarioen aldaketaren. Ikusgai jarri zituzten dokumentuok orduan, eta ondoren batzarra egin zuen Udalak herritarrekin. Arlaban ingururako –Gure Ametsa, Gatzainuzketa...– zituen asmoak azaldu zizkien herritarrei, hau da, Arlaban gaina behar bezala antolatzeko asmoa. Toledo taldeak egin zuen azterketa lana, eta erabaki zuten turismoaren alorra zela egokiarena bertarako. Eta bost esparru zehaztu zituzten Arlaban gainean, tartean ostatu eta aisialdirako gune bat egitea. Era berean, baserriei eragingo dieten aldaketa batzuk proposatu zituzten.

PROPOSAMENAK AZTERTZEN
Ekainean bukatu zen planari alegazioak aurkezteko epea, eta pare bat jaso zituzten udaletxeen. Udalari dagokio alegazio horiek erantzutea, eta dagoeneko hasita dago



GAZTAINUZKETA Arlaban gainean dauden mendi etxeak.

MIRARI ALTUBE

lanean. "Lehenengo, udalbatzako kideok aztertu behar ditugu arauen aldaketaren gaineko proposamenak, eta gero Toledo taldeko aditurekin elkartuko gara", jakinarazi du Villar alkateak. Gainera, hainbat kontu ez dituzte guztiz argi ikusten udalbatza-

ko kideek, eta kezka horiek eroango dizkiete Toledo taldekoie. "Denbora aurrera doa eguneroko lanek jan egiten gaituztelako, baina badakigu arau aldaketen kontua garrantzitsua dela, eta ez daukagu ahaztuta", argitu du alkateak.

JAIAK

Inauteri-martitzena eskolako umeendako

M.A. > LEINTZ GATZAGA
Herritarrek zapatuan ospatuko dituzte Inauteriak, baina umeek martitzenean jarraituko dute ospakizunekin. Txikienak, Gatzagako herri eskolan daudenak, martitzen goizean mozorrotuko dira, eta San Migel plazara joango dira. San Fermin eguna hartu dute gai mozorrotzeko, eta eguraldiak laguntzen badu, behintzat, dantzan egingo dute plazan. Hurrengo egunean, eguztenean, jai izango dute.

Nagusia goek ere, 6 urteetik gorakoek, Inauteri-martitzena ospatuko dute. Luis Ezeiza herri eskolan dabiltzanak eta Arizmendi ikastola-koak Eskoriatzan elkartuko dira martitzen goizean. 10:30ean umeen jaialdia egingo dute Herriko Plazan. Eta ostean, txistorra mokadutxoa banatuko diete guztiei.

Hibai Garai > Arraska taldeko kidea

"Skate-parkea Mojategiko kirolgune barruan egotearen kontra gaude"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Behingoz, Arrasaten behar den moduko skate-parkea egin dute. Baina aurreko udal gobernuak Mojategiko kirol instalazioetan egitea erabaki zuen, eta Arraska taldekoak haserre dira, hori hanka-sartze galanta izan zela uste dutelako. Berba eginda konponbidea badela uste dute haiak.

Zein da gaur egun skatean ibiltzen zaretenon egoera?

Txarra, oso txarra. Izan ere, sekulako skate parkea daukagu Mojategin, baina ordaindu ezean ezin gaitezke bertan ibili.

Lehenago ere egin ziren skategune batzuk Arrasaten.

Bai, Santa Barbaran egurrezko Ubak egin zuten, baina hemen egiten duen giroarekin usteldu egin zen denborarekin. Zaldibarren ere egon ziren porlanezko Umoduko arrapala txiki batzuk, baina haiak ere kendu egin zituzten, eta azken urteotan Santa Barbarako umeen jolasgune ondoan beste pare bat arrapala izan ditugu, askorako balio ez zutenak, egia esan.

Gainera, umeak ondoan ibiltzen dira jolasean, eta ez da skatean lasai ibiltzeko leku aproposena.

Aurreratu dugu ez zaudetela ados Mojategin egin duten skategunearekin.

Ez gaude ados, ez. Hasteko, skategunera sartzeko ordaindu egin behar da, kirolegi barruan dagoen zerbitzua delako, eta guk ez dugu horrelakorik beste inon ikusi. Ez dago estalita, euria egiten badu ezin gaitezke ibili eta kirolegiko ordutegia errespetatu behar dugu. Udalak urteko kuota bat egiteko proposamena egin digu, baina guretako ez da irtenbidea.

Azken batean, skategunea kirol instalazioen barruan dagoela da arazoa?

Hori da, skategunea itxita dago, eta aire zabalean egon beharko luke. Kirolegi barruan



Arrasateko Arraska skate elkarteko kide Hibai Garai.

egonda ordutegi mugatua dauka; ordaindu eta euria hasten badu, ezin gaitezke ibili... Azkenean, Mojategi barruan egoteak oztopoak baino ez ditu. Eta, irtenbide oso-oso erraza dauka.

Eta zein da irtenbide hori?

Gainontzeko herriean moduan, skategunea kirolegitik kanpo egotea. Argiztapena kaleko argien modukoa izatea eta gunearren mantentze-lanak Arraskak egin behar baditu, gu arduratuko gara horretaz.

Udalak dio Madrilen badela kirolegi barruan dagoen beste skategune bat, eta han ere ordaindu egiten dutela.

Madrilek izan behar badu gure eredua, ez gabiltza ondo.

Zelakoak dira hemen inguru-ko skateguneak?

Ez dute Mojategikoarekin zerikusirik. Skategune irekiak dira, ez da ezer ordaindu behar. Eta, sarrera ordaindu behar den skateguneak estalita daude, egurrezko arrapalak dituzte eta mantentze-lanez arduratzan diren langileak egoten dira.

Skategunean kirolegiko arauak bete behar dituzue, babes neurriak hartu, besteak beste.

Hori beste kontu bat da, segurtasunarena. Kirolegikoek behartu egiten gaituzte kaskoarekin eta bestelako babes neurriekin ibiltzera, eta, geure ustez, hori norberak erabaki behar du, eta ez behartutako zerbait izan. Ulergarria da gaztetxoek min har ez dezaten neurri batzuk hartzea, baina nagusien kasuan, norberak erabaki dezala.

Dagoeneko batzarren bat egin duzue Udalekoekin.

Bai, baina nik ez nuen horrelako jarrera itxirik espero. Kontziente izan behar dugu skatera gazteendako beste aukera bat dela, eta erraztasunak jarri behar ditugula horretarako; ez sarrera ordaintzera behartu.

"Skategunea kirolegiko eremuaren barruan egoteak oztopoak baino ez ditu"

"Gertu gaude skate eremuko mantenuaren ardura Arraska elkarrean izatea"

"Sarrera ordaintzen den skate eremuak estalita daude, egurrezkoak dira eta mantenua dute"

ARRASATEKO SKATEGUNE DELA-ETA, AUKEA-K DUEN IKUSPUNTUA

"Arrasateko skategunea ezin da alderatu beste herrietako skate eremuekin", dio AUKEAK

Arraskako arduradunek azpimarratu dute berba eginda badagoela skateguneko arazorako konponbidea, eta AUKEAK ere bat egiten du ideia horrekin; hori bai, jarrerak azken batzarreko baino hobea behar duela azpimarratu dute AUKEAtik: "Arraskako ordezkariekin izandako azken bilera, skate taldekoek giroa guztiz gaitzotu zuten bertan erakutsi zuten jarrera inposatzaileagatik, eta horrek atzeratu egin ditu gai horren inguruan egon daitezkeen soluzioibideak".

Skategunea Mojategi barruan dago, eta hori kontuan hartuta bilatu beharko dituzte irtenbideak: "Arrasateko skate-parkea ezin da alderatu aipatzen diren beste herrietako skate eremu guztiak (parke publikoak dira guztiak; libreak, beraz). Eta Arrasateko egoera antzeka duen kasu bakarrean

(kirolegiaren barruan skate-parkea duen herria), prezioa du sarreran (igerileku, kantzen, frontoien eta bestelako eremuen moduan). Horrekin batera, AUKEAK gezurtuta egiten du Udalak sarrera kobotuta skategunean egin den inbertsioa erreperatu nahi dela: "Udal instalazioa erabiltzeak ordaintan dagokion tasa ordaintza dakar. Eta, eguneko abonamen-dauz gain badira sarrera aukera gehiago, eta merkeagoak".

Arraskakoak haserre egotearen beste arrazoia bat da kaskoa eta bestelako babes neurriak erabiltzen behartzen dituztela: "Kirolegiko kirol eremu guztiekin duten moduan, erabilerari eta osasunari dagozkion gutxienezko arauak ditu skate-parpeak ere. Elkarbizitzari eta bizitzari dagokionez, onarritzkoak. Ezin ditugu desberdindu adin txikikoei eta helduei jarduera honetan eskatu beharreko neurriak".

Eta, skategunea erabilgarri egongo den ordutegiaren gainean, hauxe erantzuna: "Aurreko puntu ez bezala, instalazioaren ordutegia finkoa den arren, *moldagarria* izan liteke hainbat baldintzatan. Eskatzen diren egokitzapenak aurrera egiteko ezinbestekoa da gai honen inguruan harte-emanetan jartzea. Eta okerra da ordutegi eta hesien antolaketa teledirijituen esparruarenengatik denik. Ez du zerikusirik. Ordutegiak eta hesiek instalazioaren parte diren heinean dute zentzua".

Horrela, Arraska elkartek dioenarekin bat eginda: "Horretaz guztiaz hitz egiteko edo beste edozein alorretan elkarlanean aritzeko gertu gaude AUKEAn ere, baina ezinbestekoa da jarrera ona eta zuzena izatea, eta benetan elkarlana helburu izatea".

> ESKIA

Elur mota guztietañ eskiatzeko ikastaroa antolatu dute

Gipuzkoako Federazioak antolatuta, martxoaren 1ean eta 2an elur mota guztietañ eskiatzeko ikastaroa egingo dute. Bareges-La Mongie edo Luz Ardidengo estazioetan egingo dute ikastaro hori. Izena otsailaren 21a baino lehenago ematen duenak 155 euro ordaindu beharko ditu; eta 15 eta 21 urte bitartekoek %65eko deskontua izango dute. Informazio gehiago: 943 46 14 40.

> ERRUGBIA
**Arrasateko seniorrek
Santanderen
jokatuko dute bihar**

Joan den astean deskantsua izan eta gero, oraingo asteburuaren lanera itzuliko dira Arrasateko taldeko seniorrak. Hala, Arkaitz Ibarguenen taldeak Kantabriara egingo du bidaia, Santander taldearen kontra jokatzera (16:00). Gainontzoko taldeek ez dute asteburuan norgehiagokarik jokatuko.

> FUTBOLA
**Preferentean ez dute
jardunaldirik
jokatuko asteburuan**

Aratusteak direla-eta, asteburuan deskantsua izango dute preferenteko taldeek.

Datorren astean Hernanin jokatuko du Mondrak eta Idiazabalen Aretxabaletak. Aloña Mendik laugarren postuan dagoen Ordiziaren bista izango du Azkoagainen.

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Ford Mugarri eta Bergara ez daude parranda handitarako

Aratusteak tarteko,
Arrasatekoek gaur,
egubakoitza, jokatuko
dute Iturripen (20:45)

Bergararrek hil edo
biziko norgehiagoka
jokatuko dute bihar
Urdanetaren kontra

XABIER URTZELAI > BERGARA
Parrandarako asteburua da datorena, Aratusteek mororrotu eta norberaren egunerokoa ordu batzuez ahazteko balio dute-eta. Parranda hasi orduko, Arrasateko eta Bergarako taldeek jokatuta izango dute asteburuko jardunaldia, Ford Mugarrik gaur berrian jokatuko duelako (20:45) eta Bergarak bihar arratsaldean (17:00). Irabazi edo galdu, merezi dute taldeen egunerokoa ahaztu eta kalean gora eta behera ibiltzea; hori bai, bi puntuak eskuratuta hurrengo eguneko bihar-muna bestelakoa izango da.

ERREAKIONATZEA

Hori da Ford Mugarrik behar duena, denbora luzea darama eta partidurik irabazi barik. Liga hasi berri, taldeko arduradunek aurreikusi zuten liga amaieran taldeak sufritu egingo zuela, jokalari gutxirekin ekin zioten-eta denboraldiari. Eta gidoia betetzen dabil. Poliki-poliki, hasieran har-



ERASOAN Argazkian, Joseba Arnese jaurtiketa egiteko gertu.

JOSETXO ARANTZABAL

tutako abantaila txikitzen doa. Urduliz izango da gaur Iturripen, hirugarren postuan dagoen taldea; ez da, bada, bidea zuzentzen hasteko kontrario aproposena.

Bergarak, berriz, hil edo biziko norgehiagoka jokatuko du bihar arratsaldean Labegaraie-

tan. Urdaneta mahoneroak baino postu bat atzerago dagoen taldea da, puntu batera. Hala, joan den asteko Basauriren kontrako porrota kolpe gogorra izan bazen (31-32), zapatuau galdua Bergarak atzerapauso galanta egingo luke kategorian jarraitu ahal izateko ahaleginan. Bi talde horiek hiruna partidu irabazi dituzte aurten, eta laugarrenra irabazteko lehiatuko dira. Joaneko partiduan, 27-26 nagusitu zen Urdaneta. Ordutik hona, baina, Bergarak ezustea bat baino gehiago eman du Euskadiko txapelketan.

MENDIA > ALOÑA MENDIREN III. MENDI ASTEA

Boulder txapelketarekin hasiko dute bihar Aloña Mendiren III. Mendi Astea

15:00etan hasita, ibarreko eskalatzaile guztiak daude gonbidatuta boulder txapelketara

Martitzenean hasita hainbat espediziota ikus-entzunezko emanaldiak egingo dituzte

X.U. > OÑATI
Boulder txapelketarekin hasiko dute bihar Mendi Astea (15:00etan, kirolegian); aste barrurako, berriz, martitzenean hasita egitarau zabala antolatu dute. Hain zuzen ere, martitzenean, hilak 5, Jose Carlos Tamayo Karakorum mendilerroan egindako hainbat espediziota

oinarritutako lana aurkeztuko du (19:30, kultur etxea). Eguaztenean, hilak 6, Adolfo Madina-beitiak Amin Brak-eko 1.300 metroko paretan egindako esklada erakutsiko du, *Namkor bidea* izenekoa.

Hilaren 7an, berriz, Torelloko (Bartzelona) mendiko zinemaldian aurkeztutako bi film

emango dituzte: *Coast to coast* –Afrikan zehar parapenteante egindako zeharkaldia– eta *The Smell of the mountain top* –alpinismoaren gaineko emanaldia–. Film horiek 20:00etan hasiko dira, kultur etxeen.

Hilaren 8an, egubakoitza, Iñaki Otxoa de Olzak *Cicatrices del paraíso* lana aurkeztuko du Oñatin. Alpinista iruindarrak, Dhaulagirira egindako azken espedizioa oinarri hartuta, hango irudi eta gogoeta ezberdinak bertaratuko ditu.

Eta amaitzeko, otsailaren 4tik 17ra bitartean argazki erausketa egingo dute kultura etxeen.



AMIN BRAK 1.300 metroko horman egindako eskaladaren berri, hilaren 6an. ARTXIBOA

PILOTA > DEBARROKO TXAPELKETA


Arrasatek antolatuko du ibarreko txapelketa

Debabarrena eta Debagoineneko hamabi talde izango dira lehian, kadete, gazte eta senior mailetan; finalak Uarkapen jokatuko dira, ekainaren 15ean

E.M. > ARRASATE
Debarroko txapelketaren 61. eki-taldia antolatzeko ardura Arrasateko AGT pilotak taldeak izango du aurten. Atzo, eguna, pilotak taldeetako ordezkariek bilera egin zuten Arrasateko Txalaparta elkartean.

Mauri Zubillaga Arrasateko entrenazaleak azaldutakoaren arabera, hamabi taldek jardun-go dute Debarroko txapelketan: Debabarrena ordezkatzut, Itziar, Deba, Elgoibar, Eibar, Soraluze eta Elgeta. Eta Debagoinetik, berriaz, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Bergara eta Antzuola.

Elgeta Debabarrenako taldeztat jotzen da txapelketan, eta, iaz elgetarrek antolatu zutenez, oraingoan Debagoineneko talde bati zegokion antolaketa. Arrasateko pilotak taldearen asmoa honakoa da: txapelketa otsailaren 20 aldera hastea eta finalak



PROMESAK Ibarreko pilotari onenak lehian arituko dira txapelketan.

GOIENKARIA

sanjuanak baino lehen jokatzea. Ziurrenik, ekainaren 15ean izango dira finalak, Uarkapen.

LIGA SISTEMA JARRAITUTA

Ibarreko pilotazaleek astero izango dute hitzordua otsailaren erdialdetik aurrera. Partidu gehienak eguzatenetan jokatuko dira, eta, ohikoa denez, txapelketa liga sistema jarraituta

jokatuko da. Talde guztiak elkarren kontra jokatu beharko dute, joaneko eta itzulerako jardunaldiaren. Kadete, gazte eta senior mailetako bikoteak osatu beharko dituzte eta maila bakoitzeko lau bikote onenak sailkatuko dira finalerdi tarako. Esan bezala, Debarroko txapeldunak maila bakoitzean ekainaren 15ean era-bakiko dira, Arrasaten.



GOIENKARIA

Eskoriatza taldea, bigarren itzulian zulotik ateratzeko ahaleginetan

Euskadiko areto futboleko txapelketaren barruan, Eskoriatzak La Bellota talde legazpiarra hartuko du bihar, zapatua, Intxaustuetan, 17:45ean. Jokatutako 15 partiduetatik bakarra irabazi dute eskoriatzarrek eta sailkapeneko azken tokian ditugu. Bigarren itzulian miraria behar dute zulotik ateratzeko. La Bellota taldea sailkapeneko laugarren tokian dago eta azken jardunaldian 5-3 irabazi zion Sasiako B taldeari. Bestalde, hirugarren mailan, Aretxabaletak Izotz Allerru Jaizkibel taldearen aurka jokatuko du zapatuan Musakolan, 18:00etan. Aloña Mendiko lehen eta gazte mailetako taldeek etxetik kango jokatuko dute oraingo asteburuan.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Bigarren maila
Realia-Eibar
Zapatua: 18:30. Anoeta.

Beteranoak, lagun arteko partidua
Antzuola-Athletic.
Zapatua: 16:00. Estala.

Kadeteen Euskadiko liga
Arenas-Abetxabaleta
Domeka: 11:30. Gobela.

Ohorezko mailako gazteak. Kopa eta jaitsiera
Urola-Aloña Mendi
Zapatua: 12:00. Argikao.

Ohorezko mailako infantilak, txapeldunen fasesa
Beasain-Aretxabaleta
Arizmendi
Zapatua: 12:00. Igartza.
Bergara-Kostkas Miren
Bihotza
Domeka: 11:30. Ipintza.

Emakumezkoen liga, igorera fasesa
BTLS-Anaitasuna
Zapatua: 15:30. Ipintza.

Infantil maila (F-11), txapeldunen fasesa
Bergara-Aloña Mendi
Zapatua: 11:30. Ipintza.

Infantil maila (F-8), txapeldunen fasesa
Kurtzebarri-Antzuola
Zapatua: 10:15. Ibarra.

Lehenengo maila
Clinica Dental Aldaz-Aloña
Mendi
Domeka: 11:00. Lasarte.

Hirugarren maila
UDA-Izotz Allerru Jaizkibel
Zapatua: 18:00. Musakola.

Gazte maila
Azpeitiko AF-Aloña Mendi
Zapatua: 13:00. Azpeitia.

Infantil mailako neskak (F-8), kopa txapelketa
Aloña Mendi-Arizmendi
Egubakoitza: 17:30. Ibarra.

ARETO FUTBOLA
Euskadiko Txapelketa
Eskoriatza-La Bellota
Zapatua: 17:45. Intxaustuetan.

Lehenengo maila
Clinica Dental Aldaz-Aloña
Mendi
Domeka: 10:00. Lasarte.

Hirugarren maila
UDA-Izotz Allerru Jaizkibel
Zapatua: 18:00. Musakola.

Gazte maila
Azpeitiko AF-Aloña Mendi
Zapatua: 12:00. Majori.

SASKIBALOA

LEB liga
Bruselas GBC-Tenerife Rural
Egubakoitza: 20:30. Illumbe.

ESKUBALOA
Euskadiko Txapelketa
Ford Mugarrirr Arrasate-Urduliz
Egubakoitza: 20:45. Iturripe.

PILOTA
Udaberriko Txapelketa
Egubakoitza: 20:00.
Antzuola (Bergarako UDAl Pilotalekuaren kontzertua dago eta)
Bergara-Oriatzen (bigarren mailako kadeteak)
Bergara-Illunpe 2 (senior maila)

Euskadiko Txapelketa, emakumezkoak
Tecn. Elgoibar-Verkol Aloña Mendi
Zapatua: 16:00. Olazagako.

Gipuzkoako Txapelketa, mutilen gazte maila
Usurbil-Aloña Mendi
Egubakoitza: 18:30. Oiardo.

BKL Haritz-Arrasate
Domeka: 10:00. Antzizar

Urola-Aloña Mendi
Zapatua: 16:30. Ispila

Gipuzkoako txapelketa, mutilen kadete maila
Jauja Akitape-Berezao Aloña Mendi
Egubakoitza: 18:30. Mutrikua

Irurena Oet-Bergara
Zapatua: 12:00. Majori.

ERRUGBIA
Senior maila, gizonzkoak
Santander CR-Arrasate
Zapatua: 16:00. La Albericia.



Eskubaloia: Ford Mugarrirr-Urduliz, gaur

Urteko lehen garaipena eskuratzen saiatuko dira arrasatearrak gaur, egubakoitza, Iturripen. 20:45ean daukate hitzordua.

> FUTBOLA

Beterano mailako Athletic taldeak Antzuolaren kontra jokatuko du zapatuan Estalan

Xabier Barkeroren oriomenezko futbol partidua jokatuko dute zapatuan Antzuolako eta Athleticeko beteranoek. Hitzordua 16:30ean izango da, Estala futbol zelaian. Athleticen partetik Julen Guerrero, Estanis Argote, Patxi Ferreira, Imanol Etxeberria, Andoni Lakabeg eta Ismael Urtubi etorriko direla aurreratu dute antolazaleek. Partiduaren ostean luntxa izango dute Arinen.

> FUTBOLA


Aratusteak direla eta, oraingo aste bukaeran ez da egongo preferente mailako futbol jardunaldirik

Mondra, Aretxabaleta eta Aloña Mendi futbol taldeek atsedena izango dute oraingo asteburuan. Aratusteak direla eta, ez da futbol jardunaldirik egongo. Hurrengo jardunaldia otsailaren 9an eta 10ean jokatuko da eta ibarreko taldeek partidu hauek izango dituzte: Aloña Mendi-Ordizia, Idiazabal-Aretxabaleta eta Hernani-Mondragon.

Era berean, Aratuste jaiengatik, lehen erregional mailako Bergarako eta Antzuolak ere ez dute partidurik izango. Mutrikun eta Azpeitian jokatuko dute hurrengo astean, hurrenez hurren.

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> GOYA SARIAK

Aitor Arregi oñatiarraren 'Lucio' dokumentala hautagai > **45**




> SAKELAKOAK

Marketinerako euskarri modura erabil daitezke telefonoak > **51**

> IBAI ZANGITU

Ikus-entzunezko modulua egiten ari da aretxabaletarra. Futbolzale amorratua eta Realzalea, Arizmendiko nesak entrenatzen ditu > **50**



ARGAZKIA: IKER BARANDIARAN

Aratustea Debagoienean

AITZIBER ARANBURUZABALA > BERGARA

Aspaldiko urteetan ez bezala, sekula baino lehenago heldu dira aurten Inauteriak. Debagoienean ere izango dira bai, mozorrotzeko aukerak, herri guztietan antolatu dituzte-eta ekitaldiak. Herritarrek eta udalek bat egin dute egitarau oparoak prestatzen, giroa ezin hobea izateko helburuarekin.

Lehenengo ospakizunak atzo, Eguen-gizenean, izan ziren, besteak beste: Eskoriatzan Urdelardero Eguna eta Bergarako San Martin eskola-koen Hartzaren Eguna. Gaur, egubakoitza, berriz, Elgetan ospatuko dituzte. Eta bihar, zapatua, da herri gehienek aukeratu duten mozorro

egun izarra: Bergarak, Arrasatek, Oñati, Eskoriatzak eta Leintz Gatzagak. Domekan, bestalde, Aretxabaletan eta Antzuolan izango dira mozorroak nagusi. Asteburuetako ospakizunez gain, aspaldiko ohiturari jarraituz, martitzenean ere herri askotan izango dira gozatzeko ekitaldiak; gehienbat, haurrentzako eskainitakoak.

Aratusteen egitarauetan ez dira, baina, mozorroekin lotutako ekitaldiak bakarrik izango, Aratusteen aitzakiarekin kultura ekitaldi ugari daude-eta egunotan Debagoienean: musika kontzertuak, antzerki eta pailazoen emanaldiak, haurrentzako ikuskizunak, dantzaldiak eta abar. > **44**

Aratusteak Debagoienean

(43. orrialdetik dator)

Asko dira datozen egunetarako antolatu dituzten ekitaldiak. Hori horrela, Debagoieneko herrietan izango denaren argazki nagusi bana atera dugu.

ARRASATEN, BAZKARI ERRALDOIA

Aratuste-martitzeneko giroak behera egin zuela-eta, zapatuko egitaraua indartzeari ekin zion Arrasaten herritar talde batek iaz. Hori horrela, Udalaren laguntzarekin zapatuko Aratustean alde. "Jendea mozorrotzera animatu nahi dugu; hori horrela, Bedelkar herriko merkatarien elkartearrekin batera, *The Txortains* txarangak alaitutako mozorroen kalejira antolatu dugu herriko erdigunean zehar. Parte hartu nahi duenak 19:00etan San Martin plazara hurbildu besterik ez du; aurrez izena eman beharrak ez dago. Mozorrorik onenak herriko taberna edo dendean gastatzeko 160 euroko saria eskuratuko du Bedelkarren esku. Sari banaketa 00:30ean izango da San Martin plazan", azaldu du Maider Osak, Kultura teknikariak.

Jaia 11:30ean hasiko da, Aitor Laskurainek, *Txantxi-k*, Herriko Plazan egingo duen pregoiarekin. Horrela azaldu du Harriztik, antolatzaile taldeko kideak: "Iaz hark egin zuen, eta, asko gustatu zitzaigunez, aurten ere hari proposatu genion. Zer esan behar duen ez dakigu, guretako ere sorpresa da!". Ondoren, Batukadarekin kalejira egingo dute; 14:30ean Uarkapen herri bazkaria izango da. "Iaz 350 txartel atera genitueta, aurten 500 jarri ditugu salgai. Eta hiru egunetan guztia saldu zirenez, beste 200 atera genituen gero. Horiek ere segituan saldu ziren, baina ezin ditugu gehiago atera, Uarkapen ez dago-eta lekurik", esan du Harriztik; eta giroa segurtatuta dagoea gaineratu du: "Gehienak mozorrotuta izango gara: koadrilak, familia... denetik bilduko gara. Aurten, mozorro edo muntaia politak izango direlakoan gaude, askori entzun diegu-eta aurrez prestatzen hasitakoak direla. Horietako batzuek saria izango dute; izan ere, jende artean ezkutatuta egongo diren epai-mahaikideek hiru sari banatuko dituzte: koa-

drila, taberna eta karroza one-nari, hain zuzen ere".

Biharko ekitaldiez gain, martitzenean haurrentzako ekitaldiak izango dira.

BERGARAN, MOZORRO KALEJIRA

Azken 20 urteotako ohiturari jarraituz, Udal Musika Bandak eta orkestrak Aratusteetako konzertua egingo dute gaur, Bergarako Udal pilotalekuaren, 22:30ean. Hori horrela, biharko ospakizunetarako motorrak berotuko dituzte; izan ere, Bergarako Udalak, aurten ere, apustu berezia egin du zapatuko Aratustean alde. "Jendea mozorrotzera animatu nahi dugu; hori horrela, Bedelkar herriko merkatarien elkartearrekin batera, *The Txortains* txarangak alaitutako mozorroen kalejira antolatu dugu herriko erdigunean zehar. Parte hartu nahi duenak 19:00etan San Martin plazara hurbildu besterik ez du; aurrez izena eman beharrak ez dago. Mozorrorik onenak herriko taberna edo dendean gastatzeko 160 euroko saria eskuratuko du Bedelkarren esku. Sari banaketa 00:30ean izango da San Martin plazan", azaldu du Maider Osak, Kultura teknikariak.

Eta aste bukaerako ospakizunak borobiltzeko, etzi, domekan, Txan magoa izango da Udal Pilotalekuaren, 17:30ean, eta *Filamento farolero* kale antzerkia, berriz, Munibe plazan, 19:00etan. Horiez gain, martitzzen arratsaldean ere beste ekitaldi batzuk izango dira.

ÖÑATIN, LUZAIDEKO INAUTERIAK
Luzaireko Inauteriei buruzko ikuskizuna izango da bihar Öñatin. "Hiru urte dela egin genuen azkeneko aldiz Inauteri herriko baten *antzezpena*. Hurrengo urterako jenderik ez zela-eta, bertan behera utzi behar izan genuen. Aurten, taldeko dantzari ohi batzuek proposatu ziguten elkarrekin antolatzea. Eurak izan dira,



ELIZ-GIZONAK Erromatik Aita Santuak bidalitako bi ordezkari Bergarako kaleetan.

GOIENKARIA

bada, ekimenaren gidari nagusiak; eta oso gustura gaude egin duten lanaz", azaldu du Jesus Iriar *Txutxin-ek*, Oñatz dantza taldeko kideak.

12:00etan abiatuko da 130 lagunek osatutako kalejira, Olakuartik, eta Herriko Plazan amaituko dute ibilbidea. "Musikariekin batera, 8-10 bat pertsonaia joango dira bidea zabaltzen, horien artean: gotzaina, alkatea, mezzaluntzailea, gauzaina, militarra... Atzetik 60 bikote dantzari joango dira", azaldu du *Txutxin-ek*. Eta zera gaineratu du: "Guz-

tira 7-8 bat dantza egingo ditugu, horietako lau ibilbidean zehar; gainontzeako Oñatz dantza taldeko dantzatuko ditugu arratsaldeko ekitaldia borobiltzeko". Arratsaldeko ibilbidea kirolegian abiatuko dute, 17:30ean, eta erdiguneko kaleetan ibiliko dira. 19:00etan plazara helduko dira.

Biharko ekitaldiez gain, martitzzen arratsalderako ere antolatu ditu Kultura Sailak.

ARETXABALETAN DOMEKAN

Urtetako tradizioa dute Aretxabaletako Aratusteek; horren era-kusle dira mozorro lehiaketak 20 urtetik gora dituela eta beste herrietatik jende asko joaten dela. Lehiaketan parte hartzen dutenak ere asko dira; horretarako ezinbestekoa dute 12:00etan Copreci lantegira hurbildu eta handik abiatuko den desfilean parte hartzea. Sariak bi kategoriaren banatzen dira: 16 urtetik gorakoendako 300 euro eta 100 euro bitarteko 5 sari; 16 urtetik beherakoendako, berriz, 150 euro eta 60 euro bitarteko beste bost. Sariak Herriko Plazan banatuko dituzte, 18:30ean.

ESKORIATZAN ERE LEHIAKETA BIHAR

Martitzenean ekitaldiak izango diren arren, Eskoriatzan ere bihar izango da egun handia. Mozorrotzea bultzatzeko asmoarekin, aurten desfile eta lehiaketa antolatu du Udalak. Pilotalekutik 19:30ean abiatuko den desfilean izatea ezinbestekoa da lehiaketan parte hartu nahi izanez gero.

Aurtengo beste berrikuntza bat herritarren mozorro argazkiak Udaleko webgunean argitaratuko dituztela da. Nahi izanez gero, bada, bidali kultura@eskoriatza.net helbidera.

ELGETAN GOIZTARRENAK

Elgetan izango dira ibarrean mozorrotzen lehenengoak, gaur dute-eta jai handia. Egunean zehar gaztetxoak mozorrotuko dira eta gauean, berriz, helduak. Mozorroez gain, musikak ere leku du egitarauan: gaztetxeen Kataluniako Tremendamente eta Markinako Txato Plato taldeen konzertua egongo da, 22:30ean, eta Espaloian, disko-festa.

ANTZUOLAN OMENALDIA BIHAR

Etzi, domekan, izango da mozorro eguna Antzuolan. Aurten ere, herriko Aratusteetako ikur diren tximino, hartz eta hezitzailearekin batera, dantzariak dira protagonistak. Horiez gain, aipamen berezia merezi dute herriko dantza taldean urtetan lanean jardun duten Gervasio Legorburu eta Karmele San Sebastianek, biek ala biek omenaldia jasoko dute-eta, 12:30ean, Herriko Plazan.

ARAMAION ERE LEHIAKETA BIHAR

Aramaion bi egunetan mozorrotuko dira. Era guztiako mozorroak ikusiko dira bihar, 17:30ean, kirolegitik abiatuko den kalejiran. Parte hartzen dutenak saria eskuratzeko aukera izango du. Martitzenean, berriz, txinatarrak nagusituko dira herrian, hori da-eta eskolakoek aukeratutako mozorroa.

LEINTZ GATZAGAN ERE BIHAR

Gatzagarrak bihar mozorrotuko dira eta herri afaria egingo dute elkarrekin ospatzeko.

Horrenbestez, gustukoena aukeratzea proposatuko dizuegu orain; eta dudarik baduzue www.youtube.com atarian sartu eta bilatzailean *Mondraueko karnabalak* idatzi. Gonbidapen bitxiak aurkituko dituzue!



BENIDORM Aretxabaletako kaleak munduko edozein toki bilakatu daitezke domeka-aratuste egunean.

GOIENKARIA

ZINEMA > GOYA SARIAK

Aitor Arregiren 'Lucio'-k Goya irabaz dezake

Aitor Arregi eta Jose Mari Goenagaren lana dokumentalen sailean izango da lehian

Saria jasotzeo aukera gutxi ikusi arren, Arregirendako nahikoa sari bada hautagai izatea

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI
Espainiako Zinema Akademik Madrilen banatuko ditu Goya sariak domekan, otsailaren 3an, Campo de las Nacionesko Bilbao jauregian.


Dokumentalen sailean, Aitor Arregi oñatiarrak Jose Mari Goenagarekin batera egindako *Lucio* dokumentala dago Goya saria jasotzeo hautagaien artean.

Aitor Arregi berak esan du sari banaketa galan egongo dela: "Hemendik hamar bat lagun joango gara, baina sari banaketara bost bakarrik sartu ahal izango gara, pena hori daukagu. Seguru aski bi zuzendariak, produzioko beste bi lagun eta Lucio bera sartuko gara".

LAU HAUTAGAI

Sari banaketa 21:30ean hasiko da eta aurreikuspenen arabera 23:00ak alderako jakingo dute zein den aurtengo dokumentalen saileko irabazlea. TVE katean emango dute gala, baina ordu erdiko atzerapenarekin.

Guztira lau dokumental izango dira Goya saria jasotzeo lehian: Javier Bardemek ekoiztu eta Win Wenders-ek, Leon de Aranoak, Isabel Coixetek, Mariano Barrosok eta Javier Corcuerak zuzendutako *Invisibles*; Carlos Sauraren *Fados*; Fernando Mendez Leitek Elias Querejeta ekoizleari buruz egindako *El productor*; eta Arregi eta Goenagaren *Lucio*.



LUCIO Goya sarien galan izango da Lucio Urtubia protagonista ere. GOIENKARIA

"AUKERA GUTXI"

Aitor Arregik ez du aukera askorik ikusten saria eskuratzeko: "Uste dut guk dugula aukera gutxien. Dokumentalen kalitateari erreparatu gabe, bozkatze-ko garaian izenek zeresan handia dute eta gureak du izen txikien. Nork daki, nik %5-10eko aukera dugula uste dut. Dena dela, lasai gaude, jadanik saria baita hautagaien artean egotea kankoan gelditzen diren beste dokumental on batzuk kontuan hartuz gero", esan digu Arregik.

Aukera gutxi ikusi arren, *Lucio* lanarekin Goya saria eskuratzu gero, garaikurra jasoko lukete dokumentalaren egileek, baita ospea edo izen ona ere; ez, ordea, diru saririk. Aitor Arregik azaldu duenez, "Goya saria irabaziz gero ez dago diru-saririk. Bainha saria irabazteak curriculuma osatzeko garrantzi handia dauka Espainia mailan. Hurrengo batean beste lanen bat egin nahi izanez gero, finantzazioa errazago lortzen da Goya sari bat esku artean izanik".

MUSIKA

Fangoriaren kontzertua izango da Jam aretoan

Otsailaren 9an izango da emanaldia eta sarrerak salgai ipini dituzte

I.A. > BERGARA
Datorren zapatuaren, otsailaren 9an, Fangoria taldearen kontzertua izango da Bergarako Jam aretoan.

Alaskaren eta Nacho Canuten taldeak besteak beste *El Extraño Viaje* azken laneko abestiak eskainiko dizkie zaleei.

SARRERAK
Kontzertuko egunean Jam aretoko ateak 21:00etan ireki-ko dituzte.

Sarrerak egunean bertan eros daitezke Jam aretoan 25 euroren truke. Bainha badago sarrerak aurrez eskuratzeko aukera ere. Ibarrean Jam aretoan bertan eta Arrasateko Lazkano musika dandan daude salgai. Bestela, internet bidez www.tictackticket.com helbidean. Aurrez erosiz gero, 21,50 euro balio du.

ANTZERKIA > 'CINCUENTONES' OÑATIN

Aktore ezagunak Santa Anan gaur 'Cincuentones' lanarekin

Unibertsitatean elkar ezagututako hiru lagunek garai bateko eta egungo kontuak izango dituzte berbagai umore giroan, 50 urterea iritsita

I.A. > OÑATI
Gaur, egubakoitzta, otsailak 1, J.P. Producciones-en eskutik Joan Casasek idatzi eta Jose Antonio Ortegak zuzendutako *Cincuentones* antzezlana ikusteko aukera izango da Oñatiako Santa Ana aretoan, 22:30ean.

ETB2 kateko *Mi querido Klichowsky* telesaioko eta hainbat filmetako aktore Juanfran Topera, Kike Diaz de Rada eta Paco Obregon dira protagonistak.

ASPALEKO HIRU LAGUN
Diktadurako azken urteetan unibertsitatean elkar ezagutu zuten hiru lagunen papera jokatuko dute aktoreek.



AKTOREAK Diaz de Rada, Topera eta Obregon dira aktore protagonistak. GOIENKARIA

Izen handiko abokatua da bat, enpresa arloan goia jo duen publicista bestea eta unibertsitateko irakaslea hirugarrena.

Elkar ikusi gabe hainbat urte pasa ostean, 50 urterea, ustez bizitzako ulerik onenera, iritsita bazkari baten bueltan elkarrekin topo egindo dute.

Umore giroan garai bateko kontuak eta egungoak izango dituzte hizketarako gai.

Ikasle garaian borrokan lehen lerroan ibilitakoak egun eroso bizi diren hiru gizon dira; burgesiaren adierazle garbiak.

Komediar kutsukoa da antzezlana, baina zuzendariak dio sentimendu tragikoak direla antzerki komikoaren oinarria. Hori da, hain zuzen ere, lan horren muiña, pertsonaien zaitasunetatik umorea ateratzea eta ikusleari barre eragitea.

LITERATURA > LEHIAKETA

Amodiozko gutunen lehiaketa 38 lan aurkeztu dituzte

Epaimahai gazteak hartu du erabakia eta otsailaren 4an elkartuko da nagusia

I.A > BERGARA
Bergarako Jardun elkarteark antolatuta amodiozko gutunen lehiaketa egin dute, aurten, hamaseigarren aldiz. Lanak jasotzeko epea amaituta, epaimahaikoak erabakia hartzeko elkartuko dira orain.

Guztira, 38 gutun jaso dituzte. Gehienak Gipuzkoatik bidalitakoak: 24, hain zuzen ere; Arabatik lau bidali dituzte; Bizkaikatik hiru eta gainontzekoak Nafarroatik, Lapurditik eta Ciudad Realetitik.

EMAKUMEEN GEHIAGO
Parte-hartzaileen artean emakumezkoak izan dira nagusi; 20 emakumeek eta 15 mutilek idatzitako eskutitzak jaso dituzte Jardunen. Parte-hartzaileetako batek hiru lan aurkeztu ditu.

Adinari dagokionez, antolatzaileek esan digute parte-hartzaileek gazteenak 15 urte ditue-

la eta helduenak, 77. Hala ere, idazle gehienak 20 eta 40 urte bitartekoak izan dira.

Lanak esku artean dituzte epaimahai gaztekoak eguztenean elkartu ziren irabazleak erabakitzeko. Bergarako hiru ikastetxetako bost ikaslek osatu dute epaimahai hori eta 26 urtez azpiko parte-hartzailerik onenari emango diote saria, baita SMS onenari ere.

Epaimahai nagusia, lehenengo bi sariak eta bergarar onenaren saria erabakiko dueña, otsailaren 4an elkartuko da. Oihan Zubizarreta iazko irabazoleak, Iratxe Ibarra bertsolariak, Anton Uriarte abeslariak eta Leire Bilbao idazleak osatu dute epaimahaia.

MEZU GUTXIA
SMS bidezko maitasun mezuen lehiaketak seigarren aldia du aurtengoa. Guztira 14 mezu bidali dituzte 18 eta 34 urte arteko partaideek.

Antolatzaileen esanetan oro har partaidezta txikia izan da bi lehiaketetan.

Sariak datorren otsailaren 14an egingo duten ekitaldian banatuko dituzte.

INMOBILIARIA
Ibarlariar 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorostoi.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Zabalotegi 80 m². Eguzkitsuua.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsuua.
- Martoko 92 m². Prezio ona.
- Aranerreka 95 m². Eguzkitsuua.
- Ibarlariar, 40 m². Berria.
- Bidekurutza 60 m². Berria.
- Martoko 52 m². Berria.
- Ibarlariar 74 m². Ondo.
- Osintzu 51 m². Aukera ona.
- San Juan. Bitamillaria.
- Zubiaurre 70 m². Berria.
- Matxiateg 61 m². Prezio ona.
- Zabalotegi 60 m². Berria.
- Barrenkale 82 m². Berria.
- Bidekurutza 82 m². Prezio ona.

Antzuola:

- Buztinzuri 76 m². Prezio ona.
- Aiherra 123 m². Duplex.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Teleforo Aranzadi 2

T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

BERGARA

- Matxiategi, 61 m², oso onto
- Artzamendi, 80 m², oso onto
- San Pedro, 88 m², onto
- Ibarlariar, 80 m², oso onto
- Artekale, 70 m², oso onto
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsuua
- Mugerria, 60 m², berria, aukera ona
- Zubietza 70 m², onto
- Matxiategi, 65 m², onto
- Arizuri, 97 m², garajearekin
- Matxiategi, 73 m², berritzeko
- Bidekurutza, duplexa, berritzua
- San Anton Abad, 70 m², oso onto
- Etxebitzia berrien erakuntza Madura, Masterreka eta Zubiaurren.
- Zurradero, 81 m², oso onto

SORALUZE

- Baltegieta, 83 m², berria

ANTZUOLA

- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki azuoa, 85 m², erdi berritua.

ELGETA

- San Roke, 75 m², ia berria.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 05

sailkatuak@goiiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIKA DOAN JARRIKO DITU; GAINERAKOAK 22 EURO ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO.
PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENENKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 30 EURO.

Debagoiena. Emakumea gertu ume zein nagusiak zaintzeko, baita etxeak, tabernak eta lokalkak garbitzeko ere. Telefono: 600 69 92 03.

Debagoiena. Emakumea gertu umeakedo nagusiak zaintzeko, etxeak lanak egin edo garbitza lanetarako. Luz Idithy. 943 03 45 06.

Debagoiena. Emakumea prest nagusiak edo umeak zaintzeko. 663 65 78 43.

Debagoiena. Esperientziadun emakumea gertu taberna eta elkarla garbitu, haurrak zaindu edota etxeak lanak egiteko. 696 11 01 94.

Debagoiena. Garbiketa lanak egindo nituzke orduka. Telefono: 637 21 97 04.

Debagoiena. Neska euskalduna gertu garbitasun lanak egiteko eta umeak zaintzeko. 609 00 50 94 edo 943 79 41 71.

Debagoiena. Peoi lanak egindo nituzke: garbiketan, makinen mantentze-lanetan... Esperientzia daukat. 656 66 49 75.

Debagoiena. Zaharrak zainduko nituzke. Gerriatira ikastaroa eginda daukat. Sukaldari laguntzale eta garbitzaile lanak ere egindo nituzke taberna edo etxeetan. 666 21 88 95.

Eskiatzeko botak salgai. 40-41 neurriko LANGE 130 World Cup MF modeloa. Lehiaketa-koak, umeentzako. Oso egoera onean. 120 euro. 676 97 54 44.

Garajeko atea salgai. Erabili gabea, berri-berria. Prezio bikainen, Neurriak: 3.16x3 metro. Gaineakoa: 0,50 metro. Fabricatzailea: Puertas Nueva Castilla. Jabier. Deitu ezazu telefono honetara: 605 75 96 11.

Lursaila salgai. Arrasaten 1.000 metro koadro dauzka. Ura dauka, eta 15 metro koadroko exbola. Argindarra sartzen aukera. 945 12 46 22.

Olympus E-410 argazki kamera digitala saltzen dut. ED 14-42 mm eta 40-150 mm-ko objektiboen. Erabilgabekoe dago. 650 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 660 80 09 71.

Pendrive salgai. 8 GB USB 2.0, berria. Deitu ezazu telefono honetara: 615 74 08 05.

Xenon kit salgai. Automobilendako eta motorrendak baliatu du. (NHH7 modeloa. 100 euro. Telefonua: 678 33 05 19).

Arrasate. Lokala salgai erdialdean. Deitu ezazu telefono honetara: 665 72 25 12.

Bergara. Trastelekuak salgai kalean. Neurriak: 5,80x1,80. Deitu 18:00etik aurrera. Deitu ezazu telefono honetara: 678 43 31 07.

303. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Erdialdean lokala ematen dut errentan. 665 72 25 12.

304. ERRENTAN HARTU

Arrasaten Neska kuadrila batek lokal bat alokatu nahi du Arrasaten. 695 74 27 95.

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Emakumea behar da etxeak lanak egin eta umeak zaintzeko. 696 79 43 89.

402. ESKAERAK

Antzuola. Emakume autonoma gertu atarteak garbitzeko, lokalak garbitzeko... Telefonoa. 667 80 63 97.

Arrasate. Emakumea euskalduna gertu haurrak zaintzeko. 667 87 99 16.

Bergara. Emakumea gertu etxeak lanak egin eta haurrak zaintzeko. 647 51 52 80.

Gasteiz. Neska behar dugu etxeak osatzeko Gorbeia kalean. Beronkutta zentrala dauka. 300 euro gehi gaustauak. 652 72 18 87.

Honda CB 600 motorra salgai. 1998ko. Berri-berriak. 25.000 km. 4.300 euro. Deitu ezazutelefono honetara: 699 37 15 16.

Husqvarna TC 250 motorra salgai. Urtebetekoa. Oso egoera onean. 626 37 67 32 edo 06 99 38.

Kawasaki Versys motorra salgai. 5.500 euro. Negozia gariak. Aritz. Deitu ezazutelefono honetara: 687 78 58 47.

Nissan Almera salgai. 2.2 di. 16v. Sport. Deitu ezazu telefono honetara: 646 03 39 45.

Opel Corsa 1.2 SRI 5p, 2002ko. Kilometro gutxirekin. Egoera onean. Deitu ezazu telefono honetara: 636 71 14 65.

Volvo 460 GLT autoa salgai. Berri-berri dago. 3.000 euro. 629 91 40 50.

ABIAK

9 HARREMANAK

902. HARREMANAK

Emakumezkoak ezagutuko nuke. 39 urteko gizonezko arrasaterria naiz, eta emakumezkoak ezagutuko nuke edozein harremanetarako. Ezkongabea naiz, eta ez dut seme-abalarik. 943

79 02 37 edo 699 47 76 24.

Gizonezko ezagutuko nuke. 60 urteko emakumezko naiz, alarguna, eta gizonezko bat

ezagutu nahi nuke edozein harremanetarako; 60 eta 70 urte bitarteko. Bidaia

zein dantza egiten eta zinera joatea ere. Feli.

Deitu ezazu telefono honetara: 650 06 00 68.



Antzuolan kokatutako enpresak, Goizper taldekoak, plastikoaren injekziorako moldeak egiten ditu, produkziorako baliabide modernoenak erabilita.

Momentu honetan, eta lantegia indartzeko, ondorengo langilea behar du:

ABIADURA HANDIKO ZENTROETAKO LANGILEA

Beharrezko da mekanizazio makinetan esperientzia edukitzea, batez ere abiadura handiko makinetan. Horretaz gain, beharrezkoak dira ekimena, inplikazioa eta lanak sortutako gorabeheren aurrean esfortzu bereziak egiteko prestasuna izatea.

Euskal jakitea eta Antzuola inguruan bizitza baloratuko dira.

Egiazatzen den esperientziaren araberako ordainsaria eskainiko da eta proba garaia igarotzen denean, kontratu mugagabea.

Interesatuek bidali curriculuma e-posta honetara: rrhh@moldegama-tech.com; edo posta bidez helbide honetara: Antigua kalea 4, 20577 Antzuola.

Emandako datuek isilpeko trataera izango dute, Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako, abenduaren 13ko 15 / 1999 legeak ezarritako irizpideen arabera.

ABIADURA HANDIKO ZENTROETAKO LANGILEA

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Garaje salgai San Lorentzen. 659 63 19 86.

Bergara. Garaje salgai Zubiaurren. 37 m². Deitu ezazu telefono honetara: 606 65 97 82.

202. EROSI

Arebabaleta. Garaje erosiko nuke Lausita inguruan. Telefonoa: 679 16 41 65.

203. ERRENTAN EMAN

Oñati. Bidebarrietan garajea alokagai. Deitu ezazu telefono honetara: 695 75 85 26.

Debagoiena.

Emakumea gertu garbitza edo beste lan batzuk egiteko. Deitu ezazu telefono honetara: 678 40 57 04.

Debagoiena. Emakumea gertu garbitza edo beste lan batzuk egiteko. Deitu ezazu telefono honetara: 678 40 57 04.

Debagoiena. Emakumea gertu garbitza edo beste lan batzuk egiteko. Deitu ezazu telefono honetara: 678 40 57 04.

Debagoiena. Emakumea gertu garbitza edo beste lan batzuk egiteko. Deitu ezazu telefono honetara: 678 40 57 04.

Debagoiena. Emakumea gertu garbitza edo beste lan batzuk egiteko. Deitu ezazu telefono honetara: 678 40 57 04.

Debagoiena. Emakumea gertu garbitza edo beste lan batzuk egiteko. Deitu ezazu telefono honetara: 678 40 57 04.

Debagoiena. Emakumea gertu garbitza edo beste lan batzuk egiteko. Deitu ezazu telefono honetara: 678 40 57 04.

Debagoiena. Emakumea gertu garbitza edo beste lan batzuk egiteko. Deitu ezazu telefono honetara: 678 40 57 04.

Debagoiena. Emakumea gertu garbitza edo beste lan batzuk egiteko. Deitu ezazu telefono honetara: 678 40 57 04.

Debagoiena. Emakumea gertu garbitza edo beste lan batzuk egiteko. Deitu ezazu telefono honetara: 678 40 57 04.

Debagoiena. Emakumea gertu garbitza edo beste lan batzuk egiteko. Deitu ezazu telefono honetara: 678 40 57 04.

Debagoiena. Emakumea gertu garbitza edo beste lan batzuk egiteko. Deitu ezazu telefono honetara: 678 40 57 04.

Debagoiena. Emakumea gertu garbitza edo beste lan batzuk egiteko. Deitu ezazu telefono honetara: 678 40 57 04.

Debagoiena. Emakumea gertu garbitza edo beste lan batzuk egiteko. Deitu ezazu telefono honetara: 678 40 57 04.

Debagoiena. Emakumea gertu garbitza edo beste lan batzuk egiteko. Deitu ezazu telefono honetara: 678 40 57 04.

Debagoiena. Emakumea gertu garbitza edo beste lan batzuk egiteko. Deitu ezazu telefono honetara: 678 40 57 04.

Debagoiena. Emakumea gertu garbitza edo beste lan batzuk egiteko. Deitu ezazu telefono honetara:

hildakoak

- **Sor Antonia Pomares Etxegarai.** Eskoriatzan, urtarrilaren 23an. 90 urte.
- **Patxi Garitano Alberdi.** Antzuolan, urtarrilaren 24an. 72 urte.
- **Jesus Elkoro Idigoras.** Arrasaten, urtarrilaren 24an. 95 urte.
- **Ramona Unzueta Aranzabal.** Aramaion, urtarrilaren 24an. 98 urte.
- **Eduardo Roitegi Ayala.** Eskoriatzan, urtarrilaren 24an. 76 urte.
- **Jose Luis Betelu Cantero.** Oñati, urtarrilaren 26an. 66 urte.
- **Jose Ramon Corral Sasieta.** Arrasaten, urtarrilaren 27an. 63 urte.
- **Antonio Lugarizari Zabala.** Bergaran, urtarrilaren 26an. 86 urte.
- **Martin Gantxegi Urisabel.** Bergaran, urtarrilaren 26an. 92 urte.
- **Alex Romaratezabala Rementeria.** Bergaran, urtarrilaren 27an. 44 urte.
- **Lucio Arluzea Pipaon.** Bergaran, urtarrilaren 29an. 87 urte.
- **Felix Maria Iturriño.** Bergaran, urtarrilaren 30ean. 54 urte.
- **Cipriano Mujika Alustiza.** Bergaran, urtarrilaren 30ean. 90 urte.

URTEURRENA

Maria Maiztegui Jaureguialzo

Lehen urteurreneko meza zapatuan, otsailaren 2an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiangeruaren elizan.
Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.



URTEURRENA

Manolo Etxebarria Areso

Mari Luz Lamarainen alarguna
Arrasaten hil zen 2007ko urtarrilaren 31n, 95 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 3an, 12:00etan, Elgetako Andra Mariaren Jasokundeko elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Antonio Letona Badiola

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 3an, 12:30ean, Arrasateko San Frantzisko elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

XXV. URTEURRENA

Angel Fernandez Ruiz

Txoriei mintzo ta baita erreka, zuhaitz, baso, haize ta zeruko izarrei ere, honengatik zorrotzat hartua baiña... jendearen bihotzeten hago.



Hire lagunak Oñati, 2008ko otsailaren 1ean.

ESKER ONA

Tomasa Leceta Ugalde

Jose Lizarralderen alarguna

Antzuolan hil zen 2008ko urtarrilaren 22an, 86 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Antzuolan, 2008ko otsailaren 1ean.

ESKER ONA

Jesus Elkoro Idigoras

'Zaldispe', Felisa Gorosabelen alarguna

Arrasaten hil zen 2008ko urtarrilaren 24an, 95 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2008ko otsailaren 1ean.

ESKER ONA

Martin Gantxegi Urisabel

Isabel Larrañagaren alarguna

2008ko urtarrilaren 26an hil zen, 92 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2008ko otsailaren 1ean.

ESKER ONA

Patxi Garitano Alberdi

Antzuolan hil zen 2008ko urtarrilaren 24an, 72 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Antzuolan, 2008ko otsailaren 1ean.

II. URTEURRENA

Maite Mayo Larrea

Alzelai gozotegikoa

Bigarren urteurreneko meza domekan, otsailaren 3an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.

Egunero pizten da zure argia gure bihotzeten. Zure irudia, hitzak eta maitasuna gurekin ditugu beti. Urrun egon arren, alboan zaitugu.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Dionisio Txintxurreta Jauregi

'Mardo'

Oñati hil zen 2008ko urtarrilaren 25an, 76 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko etxekoen izenean.



Oñati, 2008ko otsailaren 1ean.

Babeslea:

OROLORE Hileta eta Beilateki zerbitzuak
Amillaga auzoa 27. 20570 Bergara
Tel.: 617 44 21 55 - 943 76 94 73 - Fax.: 943 76 94 76
maribi@orolore.com



Bidaia ezin hobea



OROLORE
Funeraria-Tanatorio
Hileta eta Beilateki zerbitzuak

ESKELAK

GOENKARIA eskelak jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zatoz ordezkaritzat batera, eguaazten eguerdia baino lehen:

Arrasate Goiena: Otalora lizenziaduna 31. 943 25 05 05 / **Gómena**: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05. **Bergara** Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.
Ortu Bikion publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65. **Aretxabaleta**: Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. **Aramalo**: Kintelena janari denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.
Elgeta: Mariasun janari denda: Salbador 26. 943 76 81 90. **Antzuola**: Itzaltiburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: 100 euro. Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedunak: 90 euro.
Prezia berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOENKARIAN,
bietan, argitaratzuz gero, **120 euro.** Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedunak: 110 euro.

Goienkaria: astero, 50.000 irakurle Gipuzkoan (CIES).



bila-bila 7



hitz gezidunak

	* Irudiko urtaroa	▼	Aurkariak	▼	Bizkaiko herria	▼
	Adurra dariona	▶	Ohiturak		Jaiotiko gaitza	
	Beteak	▶				
	Idi, hitz elkarketan					
Koipea	▼	Gipuzkoako herria	▶			
Gazteen multzoa		Errep., txori mota				Etxeko abere
Harrapa ezan!	▶		... de Janeiro	▶	Potasioa	▶ ▼
Kanpo, landa	▶		Zoro		Nitrogenoa	
		Bizkaieraz, eramana	▶			
		Iridioa	▼			
Eztenak	▶				Kontso-nantea	▶
Iratzeak	▶				Sufrea	
					Gar	▶ ▼


soluzioak

A	I	N	A	M	E	L
A	G	U	T	R	O	P
A	N	Z	L	H	E	U
S	E	A	B	R	T	D
O	L	I	S	A	R	Z
S	D	X	I	A	F	A
A	R	G	E	N	T	I
A	B	R	I	T	O	D
A	R	I	T	O	D	O
A	R	I	T	O	D	E

jeroglifikoak: Familiaak

G	A	R	O	A	K	S	U
Z	I	R	I	A	K	T	
A	T	E	R	O	A	N	A
N	O	D	R	I	O	K	
G	A	Z	T	E	D	I	A
G	I	B	A	R	R	A	
G	A	S	E	A	K		
A	D	U	R	T	I		
U	A	F					


9	6	2	8	7	4	5	1	3
7	1	5	6	3	9	4	2	8
8	4	3	5	2	1	7	9	6
6	9	1	3	5	7	3	5	9
2	8	4	1	6	2	1	6	2
5	3	7	9	8	5	9	4	1
1	5	8	4	9	6	2	3	7
4	7	9	2	1	3	6	8	5



sudokua

		8	4		6	2		
4		9			6			5
3			7	5				1
	3		9		8			6
	9		3		2			7
8			5	1				6
7		5			4			8
		2	8	4	5			

hieroglifoak



51
AK

hizki salda

Alemaniako mundialean ibilitako bost selekzio

A	B	R	I	T	O	D	O	E
A	R	G	E	N	T	I	N	A
S	D	X	I	A	L	F	A	I
E	A	I	L	F	R	A	D	Z
O	L	I	S	A	R	B	I	T
S	E	A	B	R	T	U	D	N
A	N	Z	L	H	E	U	O	A
L	A	G	U	T	R	O	P	R
A	I	N	A	M	E	L	A	F

bono fotoa



Elgetaren sorrera XIV. mendean kokatzen da Alfonso XI.a erregeak hiri-gutuna Valladoliden eman zionean. Zein urtetan?

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkorberezibar

Super BM

Super BMk emandako
50 euroko erosketa-txartela
zokzetatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!



ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOAK

Ekarri txartela MARTITZEN EGUDIRIKO
Goienako edozein egoitzara

Wipp detergentea

32 garbiketa

9,29 €

Bi eramanda, bigarrenak 4,65 €

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAIKO IRABAZLEA

Bergarako AIDA PAYArendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

Galderaren erantzun zuzena: Apotzaga.

AMETS

BENGOA

BRANKA

EDERRA

EXPRESS

IAMAI

ITZALA

MONTE

OKOROTEGI

OSTANTZ

RUMBA

TXOKO

ARRASATEN GIRORIK ONENA!



ARRASATEKO ARATUSTEAK 2008

Ibai Zangitu > Ikus-entzuneko modulua egiten ari da

"Imitazioak egitearena hainbeste telebista ordu ikustetik datorkit"

Ikus-entzunezko goi mailako modulua ari da egiten Ibai Zangitu aretxabaletarra Gasteizen.

Aurretik Informatikako goi mailako modulua ere egingo du Arrasaten. Saltsa askotan dabilen

mutila da hura. UDAn jokatzen du futbolean eta nesken futbol entrenatzalea ere bada. Imita-

zioak ederki egiten ditu, eta oraindik ere gelditzen zaio parrandarako denbora.

JASONE ZABALA > ARETXABAleta

Leku askotara heltzen den mutila dugu Ibai Zangitu. Ikus-entzunezko goi zikloaz gain, herriko hainbat ekintzatan dago sartuta: futbolean, Gazte Asanbladan, imitazio lanetan, kabiru koadrilarekin ekin-tzak prestatzen. Horren guztioren gainean jardun dugu harekin.

Hainbeste saltsatan ibilita, gelditzen zaizu denborarik Reala-ren egoeraren inguruan pensatzeko?

Bai! Realeko bazkide ere banaiz, eta egunero jarraitzen dut. Badiolaren proiektua ilusioz hartu nuen, baina orain zalantza batzuk dauzkat... Hala ere, espero dut datorren urtean berriro lehenengo mailan beste taldeei lana ematen egotea, gure leku hori dela argi dagoelako.

Ikus-entzunezko goi zikloa ikasten zaude, eta honezkeru bidali dizute enkarguren bat, ezta?

Gasteizen ari naiz Ikus-entzunezko modulu bat ikasten. Horren harira, You Tube-n bideo bat egin dut. Arrasateko Aratustezale batzuek deitu zidaten ea bideoa egingo nuen herriko Aratustea bultzatzeko asmoz. Hilabetera, egindako bideoa ikusi eta gero, Aretxabaletako Aratusteen-tzat antzerako zerbaitegitea pentstu nuen.

Zuen koadrilaren izena Kabi-ru da. Nolatan izen hori?

Aspaldi bururatu zitzagun. k23! idazten dugu; originala iruditu zitzagun, eta, gainera, Aretxabaletan asko erabiltzen denez, gure moduko aretxabaletar peto batzuentzat izen egokiena horixe zen! Bide batez esan nahi diet Zelabaixota koadrilako gure etsaiei, datorren urteko desafioan egurra jasoko dutela, zahar-tzen ari direlako!

Noiztik Zelabaixota koadrila-rekin desafioka?

Duela hiru urte, irail aldera hasi ginen desafioka Zelabaixota koadrilarekin. Ordutik hona bi desafio eta Untzilara hiru igoera egin ditugu.

Jaizalea ere bazarela entzuna dut.

Zapatuetan etxeako atea ez didate goizeko seiak arte zabal-tzen eta kalean geratu behar izaten dut! Dena den, familiako gauza dela uste dut, nire guraso eta arreba ez dira-eta ni baino askoz formalagoak!.



PERTSONALA

Herrria: Aretxabaleta. **Adina:** 21 urte. **Ikasketak:** Infor-matikako goi zikloa amaituta, eta Ikus-entzunezko zikloa amaitzen. **Irakurri duzun azken liburua?** Ez naiz oso irakurzalea! **Biziorik baduzu:** Coca-cola eta izotza. **Maniarik?** Partiduetan zelaira lehenengoe-

tarikoa irtetea. **Bidaiatzeko leku bat:** Londres edo Rio de Janeiro. **Bizitzeko tokibat:** Aretxabaleta. **Amets bat:** Realia liga irabazten ikustea. **Film bat:** V de Ven-detta. **Futbol jokalari bat:** Messi. **Ondoien imitatzen duzun pertsonaia:** Josean Tolosa.

Horrekin guztiorekin, badu zu denbora Gasteizen Ikus-Entzunezko modulua ikaste-ko?

Bai, noski. Gasteizerako eguneroko joan-erorría autoz egiten dut, eta, gainera, klasean oso giro polita dago; bestela ikusi baino ez dago klasekook eginda You Tube-n jarri ditugun bideoak. Arazoa eguenetako parranda egin eta gero izaten dugu, eguba-koitzetan klasera joan behar dugulako.

Futboleko jokalari eta entre-natzaile ere bazara. Zer da gogorragoa?

Fisikoki, jokatzea, adinak ez duelako barkatzen! Baino aulkitzxoan egonda, entrenatzale lane-tan urduriago egoten naiz. Arizmendiko neskak entrenatzzen ditut. Oso onak dira, baina partiduak erabakitzeko orduan, azken minutuak orduak bezain luzeak egiten zaizkit.

Entzuna dut oraindik ere tar-tetxo bat baduzula imitazioak egiteko. Nondik datorkizu?

Imitazioak egitearena hain-bestete telebista ordu ikustetik datorkit. Gaztetatik eduki izan dut txorakeriak egiteko erraztasuna, eta urteek aurrera egin ahala handitzen joan dela esan daiteke. Ederki imitatzen ditut: Erregea, Aznar, Nihat, Tolosa, argentinarak, kubatarrak, mexikarrak, galiziarrak... Antzerki batzuk ere egin izan ditut Aretxabaletako antzerki talde batekin.

Gazte Asanbladan ere bazau-de sartuta.

Azkenaldian mugimendu gutxi egon da, eta lehenengo asmoa herria mugitzen hastea da, ea aretxabaletar gehiago animatzten diren batzarretara etortzen, eta, horrela, herrien gazteentza-ko dauden hutsuneak betetzen saiatu.

Hori guztia gutxi balitz, aita-ren elkartean ere bazabiltza lanean.

Aurretik lanean zebilen muti-lak utzi egin zuen lana. Urte eta erdi dela nabil bertan hainbat lan egiten: gauero hozkailua bete eta zakarrak, plastikoak eta kartoia-ak ateratzen ditut. Horrela diru pixka bat irabazten dut.

Etorkizunean non eta nola ikusten duzu zure burua?

Auskalo! Nahiago dut momentua bizitzea.

TELEFONOAK > Deiak jasotzeko zein egiteko erabiltzen dugu sakelako telefonoa, baita SMS mezuen trukerako ere. Badute, ordea, beste erabilierarik, eta horretaz dihardu Batura Mobile Solutions-eko zuzendari Gotzon Arzelusek.

Poltsikoko telefonoa, marketinerako euskarria

Empresak eta erakunde publikoak konturatzen hasi dira eskuko telefonoak aukera ezin hobea eskaintzen diela euren bezeroekin komunikazioa hobetzeko. Horren adibide dira publicitate eskaintzez gain, zerbitzu informazioa bidaltzen duten era-kundeak. Esaterako, Osakidetzak SMS mezuak bidaltzen ditu hitzorduak gogorarazteko eta horrekin hutsegite ratioak txikitzeo. Basketxeek ere mezuak bidaltzen dituzte kreditu-txartelekin egin-dako operazioak bezeroekin konfirmatzeko. Udal batzuk ere eskaintza kulturalak, kirolegie-tako abisuak, gazteendako edo etorkinendako oharrak... emateko eskuko telefonoaren aldeko apustua egiten hasiak dira. Enpre-sa txikiiek ere erabiltzen dituzte SMS mezuak bezeroekin bat egi-teko. Esaterako, tailer batek autoa konponduta dagoela abisatzeko edo dendarra egindako eskaria gertu dagoela esateko.

SMS MEZUAK NEURRIAN BIDALI
Hala ere, sakelako telefonoa une oro aldean daramagun neurrian, hain da marketin ikuspegitik euskarri erakargarria, askotan enpresek ez dute behar bezala



Gotzon Arzelus >
Baturako zuzendaria

"Sakelako telefonoa une oro aldean daramagun neurrian, marketinerako euskarri erakargarria da"

neurtzen SMS bidalketa noiz eta zenbatean behin egin. Ondorioz, erabiltzaileak nekatu egiten dira horrenbeste publizitate jasotzeaz.

Euskarriari behar den etekina ateratzeko oso garrantzitsua da ekintzak ondo planifikatzea eta baliozko informazioa ematea (nahiz eta publizitatea izan).


Bestalde, ordenagailuetan webguneak ikusten diren moduan, eskuko telefono gehienetan ere aukera dago Internet sarean nabigatzeko.

Hala ere, ez da oso ohikoa, batik bat webgune gehienak ez daudelako eskuko telefonoetara egokituak. Gainera, erabiltzaleendako garesti samarra da Internet konexioa eskuko telefonoan (nahiz eta azkenaldian konexio tarifak asko jaitsi diren).

GIDAK POLTSIKOKO TELEFONOAN

Horregatik, erdibideko aukera dira joko-en antzerako teknologia erabiliz eskuko telefonoendako kaleratzen hasi diren gidak. Esaterako, Gipuzkoako Foru Aldundiaren genero biolentziaren aurkako gida, Gipuzkoako guardia-kopla farmazien egutegia, Donostiako turismo gida... Gidak eskuratuta, konsultak doan eta edozein uetan egin ditzakete erabiltzaileek.

Lehenago edo geroago, enpre-sa eta erakunde guztiek euskarri horren aldeko apustua egin beharko dute. Are gehiago, e-posta eskuko telefonoan izatea normaltzen eta Internet konsultatzeko ohitura hedatzen denean. Aurreikusita dago epe ertainean horrek lagunduko duela paperaren kontsumoa murritzten, pape-rean egiten diren komunikazio ekintza batzuk eskuko telefono bidez egingo baitira.



MEZUAK Eskuko telefonoak aukera eskaintzen die enpresei eta erakundeei bezeroekin komunikatzeko.

GOIENKARIA

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog.komertzialak

www.goiena.net/blogak

/aebpn
/aiastui
/arantxa
/aretxargi
/argi-plastik
/arregi
/atai
/azkarate
/bastida
/briz-
aseguruak
/BZ-sistemas
/bolosukaldeak
/denetik

/dragon-oriental
/dukiena
/ego
/ezuzkigraf
/ekilore
/ekin
/elejalde
/ezkutuorly
/galgorri
/gallastegi
/ganesh
/garaia
/gertu
/gorkataxi

/gorla
/gurea
/gutzizeder
/hamakataberna
/itxaseder
/irudisport
/ixaun
/izeder
/jcracing
/lamaino-etebeberri
/lorelan
/korozabaleta
/kizkur
/markiegi

/maulanda
/mayte
/merkeopari
/multiopticas
/ohiak
/ogizun
/okipark
/optico
/otzeta
/pando
/perfipar
/puerta-ingles
/richimaior
/tabernaberri

/udalatx
/udalaitz
/urdeki
/ugar tearotza
/urbeta
/urko
/vitoria
/zaindusz
/ziripot

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.amgautoak.com
www.baster-aldejateak.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.goikobenta.com
www.haurtxoa.com
www.kizkur.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.lilura.com
www.toldoslete.com
www.uxarte.net
www.biark.net



berriak

> ERREPORTAJEA
**Asteleheneroko
erreportajearen, itsu
baten gorabeherak**

Datorren asteko erreportajearen, Julen Iriondok itsu baten bizimoduaren gorabeherak eskainiko ditu Goiena Telebistan. Itsu batek dituen oztopoak eta oztopo horiei irtenbidea emateko dituzten moduak ere erakutsiko ditu Iriondok. Horretarako, Rafael Kortabarria oñatiarrarekin izan da. Astelehenean, 21:45ean, itsu baten egunekotakoa gerturatuko digu, baina, Iriondo kazetariak.

> JAZZ GAUA
**Datorren astean
'Jazz gauak' emango
dute GOITBn**

Zarauzko Erlorako telebistak ekoiztutako saio bat ikusteko aukera izango da datorren astean Goiena Telebistan. Hain zuzen ere, *Jazz gauak* saioa eskainiko dute. Izenak berak dioen moduan, jazz estiloko abestiekin lagunduta gauak sortzen dituen sentsazioez gozatu ahal izango da. Gainera, debagoiendarrak bat izango da jazz gauaren protagonista, Ruper Ordorika abeslari oñatiarra.

> ARRASATE IRRATIA
**Inauteriak eta Santa
Ageda, besteak beste,
datorren astean**

Aratusteak eta Santa Ageda ospatuko ditugu datorren astean. Hori horrela, irratia ere jai giroan murgilduko da. Besteak beste, herriko gaztetxoenengana jo eta mozorroen gaineke moda edo tendentziak zeintzuk diren aztertuko dituzte astearen hasieran. Eta astelehenean, Santa Ageda bezperan, irratian ere kantuan ibiliko dira, gaztetxoek zein Santa Ageda Koruak lagunduta.

> ARRASATE IRRATIA
**'Teknoberriak' saioa
astelehenean eta
Pagagnini, barikuan**

Astelehenean, *Teknoberriak* izeneko saioaren kapitulu berria emitituko dute irratian. Oraingo honetan, Imanol Soriano arrasatearrak blogak izango ditu berbagai, 11:30ean hasita, 107.7an.

Bestalde, asteburuan Ylana talde arrakastatsuak *Pagagnini* antzezlana ekarriko du Amaia antzokira; domekan da hitzordua. Bada, hori ikustera joateko sarrerak zozkatuko dituzte: 943 25 05 05 edo *irratia@goienna.com*.


'ILUNPEAN' > EGUBAKOITZA, 22:15

Antton Olariaga marrazkigile ospetsua 'Ilunpean' saioan

'Zakilixut' komikiaren aita eta Arrasateko Santamasetako horma-irudien egilea da Antton Olariaga

GOIENKARIA > ARRASATE

Antton Olariaga marrazkigilea Usurbilen jaio zen 1946an. Arte Ederretako ikasketa egin zituen Valentzian eta Bilbon. Euskaltzale sutsua, *Zeruko Argia* aldizkarian hasi zuen bere ekarri oparoa euskalgintzan. Haren marrazkiek iraultza ekarri zuten euskal prentsara. Izan ere, 1970eko hamarkadan, euskal prentsan marrazkiak eta grafismoak oso urriak ziren eta agertzen zirenek diseinu zaharkitua zuten. Olariagaren marrazkiek ondoan duten testuaren gainekeo ikuspuntu pertsonala eskaintzen dute.



ANTTON OLARIAGA *Zakilizut* komiki zintaren aita da.

IKER BARANDIARAN

'ARATUSTEAK' > ASTELEHENEAN ETA EGUAZTENEAN

Aratusteen gainekeo saioak izango dira protagonista GOITBn datorren astean

GOIENKARIA > ARRASATE

Aratusteak direla-eta, jai horien gaineke bi saio eskainiko ditu Goiena Telebistak datorren astean. Lehena astelehenean izango da, 22:15ean. Bertan ikusi ahal izango dira Bergarako Udal Musika Bandak Aratusteak

direla-eta emango duen kontzertua. Hori, esan bezala, astelehenean izango da.

Eguaztenean berriz, *Jaiak* saioa eskainiko dute, 21:47an. Ibarreko bi herritako kontuak jasoko dituzte saio horretan: hain zuzen ere, Aretxabaletan

eta Arrasaten izango dira GOITBko kazetaria. Arrasateko gorabeherak zapatauan grabatuko dituzte eta Imanol Gallego arituko da aurkezle lanetan. Domekan, berriz, Aretxabaleta-zuzenduko dira Goiena Telebistako langileak, Aretxabaletako giroa bertatik bertara ezagutzera eta, nola ez, telebistarako saioa grabatzera. Aretxabaletan aurkezle lanetan Katalin Antxia arituko da.

Ez ahaztu, baina, Aratusteek gure ibarrean utzik dituztenak ikusteko aukera izango duzuela datorren astean GOITBn.

tele begi

Edorta Arana > www.goienna.net/blogak/hamaika

Garraio lanetan

Albistegiaren aurreko saioaz asmatzea, izan lehiaketa, sitcoma ala txutxu-mutxuena, garrantzitsua da informazio-saiora jende multzo bat eramateko.

Antzerako da berrien osteko saioaren kasua: ordutik aurrekoaren arrakasta markatuko du.

Azken denboraldian, *Camera Café, El Hormiguero* eta *El Intermedio* ari dira lan hori betetzen. Albistegitik datorren jende multzoa, geroko pelikulara edo prime-timeko programa zentralera garraitzen.

Kafe makinaren esketek ondo baino hobeto egiten dute lan hori. Baina, ikasturte honetarako, Pablo Motosena eta Gran Wyoming-ena aipatu gura ditut. Izan ere, begien bistakoa da zein desberdina den bakoitzak helburu modura daukan jendea. *El Hormiguero*-ren kasuan, jende gazteagoa, diskurtsoen jokoan baino ikustekoan zentratuko dena bilatzen dute. Wyomingek, aldiz, berbak, hitz jokoak, ziria eta eztena ibiltzen ditu.

Zorrotza eta burutsua. Motosen ganberrokerien aldean, irreberentzia nagusitzen da hemen. Esan beharrik bai, zein gustatzen zaidan gehiago?

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua. Vasco-Navarro trenaren gainekeo erreportaje, musika kontuak, *Kantaka* saioan; hirugarren adinekoen gainekeo (dieta kontuak, besteak beste) *Zaharrak berri* saioan, eta beste.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik eguazteneera

10:00-12:00 Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarprena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborriak
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoan
Zozketak
Zorion agurrrak
(parte hartzeko:
943 25 05 05 (irratia@goienna.com)
11:55 Arrasateko albisteak, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarran ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)

GOITBko programazioa

EGUBAKOITZA, 1

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Animalia. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Musikantoi. 16:15 Ur eta lur. 16:45 Albisteak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Erreportaje. 18:45 Albisteak. 19:15 Izkusmira. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportaje. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Gertutik. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Musikantoi. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Klip 28. 00:15 Emisio amaiera.

ZAPATUA, 2

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. 11:00 Izkusmira. 11:30 Izkusten. 12:00 Astekoak. 12:15 Klip. 12:30 Gertutik. 13:00 Eltze beroa 13:30 Erreportaje. 14:00 Berbaire. 15:00 Kantari. 17:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Udzaken kolore. 19:30 Klip@. 20:00 Ur eta lur. 20:30 Animalia. 21:00 Berbaire. 22:00 Udzaken kolore. 22:30 Ilunpean. 23:00 Musikantoi. 23:30 Lazmina. 00:00 Emisio amaiera.

DOMEKA, 3

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. 11:00 Kantari. 12:00 Ur eta lur. 12:30 Berbaire. 13:00 Izkusten. 13:30 Jazmina. 14:00 Animalia. 14:30 Eltze beroa. 15:00 Musikantoi. 15:30 Udzaken kolore. 14:00 Ilunpean. 16:30 Marrazki bizidunak. 19:00 Eltze beroa. 20:00 Ur eta lur. 20:30 Erreportaje. 21:00 Musikantoi. 21:30 Animalia. 22:00 Astekoak. 22:00 Gertutik. 23:00 Teknopolis. 23:30 Ilunpean. 00:00 Musikantoi. 00:30 Emisio amaiera.

ASTELEHENENA, 4

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportaje-TtipiTTapa. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Ilunpean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Berbaire. 16:15 Berbaire. 16:45 Berriak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Hitzbitan. 18:15 Izkusten. 18:45 Berriak. 19:15 Gertutik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportaje. 22:15 Kirolari. 22:45 Berriak. 23:15 Harmailatik. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Klip. 00:15 Emisio amaiera.

MARTITZENA, 5

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Horry. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportaje. 14:15 Harmailatik. 14:45 Berriak. 15:15 Gertutik. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Kirolari. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 28 Klip. 18:15 Musikantoi. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak: Horry. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire. 22:15 Animalia. 22:45 Berriak. 23:15 Izkusmira. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Erreportaje. 00:15 Emisio amaiera.

EGUAZTENA, 6

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Eltze beroia. 14:45 Berriak. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Animalia. 16:15 Teknopolis. 16:45 Berriak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Gertutik. 18:15 Harmailatik. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Zaharrak berri. 20:45 Berriak. 21:15 Izkusten. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Zu kazetari. 22:15 Ur eta lur. 22:45 Berriak. 23:15 Teknopolis. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Jazmina. 00:15 Emisio amaiera.

EGUENA, 7


13:15 Emisio hasiera. 13:20 Zaharrak berri. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Marrazki bizidunak. 14:15 Zu kazetari. 14:45 Berriak. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Animalia. 16:17 Teknopolis. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Gertutik. 18:15 Harmailatik. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazkiak. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportaje. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire. 22:15 Musikantoi. 22:45 Berriak. 23:15 Izkusten. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Ilunpean. 00:15 Emisio amaiera.

Goienkaria **37.020** irakurle



GOIENKARIA: askogatik, irakurriena*

El Diario Vasco **23.700** irakurle




Gara **5.800** irakurle




Berria **5.300** irakurle



Marca **2.475** irakurle



Noticias De Gipuzkoa **1.800** irakurle




El País **990** irakurle



El Correo **220** irakurle



Deia **165** irakurle



Mundo Deportivo **120** irakurle



- GOIENKARIA da Debagoienean gehien irakurtzen den hedabidea, askogatik.
- Debagoiendarren %67,4k astero irakurtzen du GOIENKARIA.
- 2005ean, 33.825 irakurle zituen GOIENKARIAk Debagoienean; hortaz, 3.195 irabazi ditu.
- Gipuzkoan 50.000 lagunek irakurtzen dute GOIENKARIA.

Eskerrik asko, irakurle.

*CIES-EK EMANDAKO DATUAK (PORTZENTAJEETATIK ATERATAKOAK)

Goienkaria

Otsailak 1-7

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa
eguzteneko egurdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 12

Jaiak



BERGARA

> San Blas eta Santa Ageda jaiak ospatu-ko dituzte Murinondo auzoan

Gaur, egubakoitza, hasi eta domekara bitartean, auzo-afaria, mus txapelketa, salda eta txorizo jana, umeendako jolasak... egongo dira Murinondon; eta Santa Ageda egunean, martitzenean, San Blas Ermitako elkartea batuko da.

Ikuskizuna



OÑATI

> 'Handitan' antzezlana egingo du Glu-Glu taldeak, familia guztiarendako

Glu-Glu antzerki taldeak umeei zuzendutako *Handitan* antzezlana egingo du. *Handitan zer izan nahi duzu?* galderari erantzuten saiatuko dira antzezlaneko hiru protagonistak. Bihar da, zapata, Santa Ana aretoan, 17:00etan.

Kontzertua



ARRASATE

> UK Subs eta The Vibrators punk talde historikoen kontzertua 3.60an

UK Subs eta The Vibrators punk talde ingeles mitikoeak kontzertua egingo dute gaur, 3.60 aretoan, 22:30ean. UK Subs Charlie Harper, Nicky Garret eta Alvin Gibbs jatorrizko kideekin etorriko dira. Total Chaos taldeak ere joko du.

Ikuskizunak

ARRASATE

> 'Hautsitako leihoa' dokumentala aurkeztuko dute

Hautsitako leihoa dokumentala hiru gazte aurkezen dizkigu, adingabeak eta kale borrokarekin lotutako delituengatik atxilotuak eta zigortuak.

Eguaztenean, hilak 6, Kulturaten, 18:30ean.

Jaiak

BERGARA

> Santa Ageda bezperan, Aranzadikoen kantu kalejira

Santa Ageda bezperan, datorren asteluhenean, kantu kalejira egingo dute Aranzadi-ko ikasle, irakasle eta guraso-ek, aspaldiko tradizioari eusteko.

Otsailaren 4an, asteluhena.

ESKORIATZA

> Santa Ageda bezperan eta egunean, kintoen ospakizuna

Herriko kintoak kalerik kale ibiliko dira Santa Ageda bezperan, asteluhenean, koplak abesten. Santa Ageda egunean, dantza egingo dute plazan.

Dantza emanaldia 19:00etan hasiko da.

OÑATI

> Santa Ageda koplak abestuko dituzte Elkar Hezi eskolakoek

Koplak abestera irtengo dira Elkar Hezi ikastetxeko ikasle, irakasle eta gurasoak Santa Ageda bezperan. Ibilbide hau egingo dute: eskola, Kalegoiena, Etxaluze, Santa Marina, Portu, Foruen plaza eta Errementari plaza.

Kalejira 10:30ean hasiko da.

OÑATI

> Koplak abesten irtengo dira Errekalde eskolakoak

Errekalde eskolako ikasle, irakasle eta aita-amak Santa Ageda koplak abesten kalejiran irtengo dira asteluhenean. Arten, gainera, berritasunak egongo dira: hain zuzen, 5. eta 6. mailako ikasleek prestatu dituzten kopla bereziak abestuko dituzte.

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera, eskolatik plazaraino kalejira, 18:00etan.

ANTZUOLA

> Omenaldia dantza taldean urteetan ibili diren bi herrikoak

Aratuste-domekan, Oinarin dantza taldearekin lanean eta berau indartzen urte askoan lan egin duten antzuolarrei omenaldia egingo diete dantza taldekoek. Izan ere, 30 urtetik gora ibili dira umeei dantzan irakasten. Antzuolako sorgin dantza eta trokeo dantza egingo diete, besteak beste.

Otsailaren 3an, domeka, Herriko plazan.

Musika

BERGARA

> Bandak eta Orkestra Sinfonikoak kontzertua egongo dute

Bergarako Udal Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak Aratusteetako kontzertua egingo dute. Honako piezak joko dituzte: *Moment for Morricone* (E. Morricone), *Tequila* (C. Rio), *The mask of Zorro* (J. Horner) eta *Mexico Lindo*. Sarrerak salgai daude kultura etxeen eta Lazkano oinetako dendaran.

Gaur, egubakoitza, da kontzertua, pilotalekuan, 22:30ean.

ELGETA

> Rock kontzertua egongo da gaur, egubakoitza

Aratusteak direla eta, gaztetxekek kontzertu berezia antolatu dute gaurko, egubakoitza. Kataluniako Tremendamente eta Markinako Txatoplatto taldeek joko dute.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 23:55ean.

BERGARA

> Fangoria taldeak kontzertua egingo du Jam aretoan

Alaskaren Fangoria taldeak *El extraño viaje* delako diskoa aurkeztuko du Jam aretoan. Sarrerak salgai daude ohiko lekuetan 21,50 eurotan; kontzertuaren egunean, txarteldegian erosita, 25 euro kostatuko dira.

Otsailaren 9an, zapata, Jam aretoan, 21:00etan.

ABADIÑO

> Arrasateko bi taldek Abadiñoko gaztetxean joko dute

Arrasateko Never Surrender eta Enboskadak eta Kaskamotzak taldeek kontzertua egingo dute Abadiñoko gaztetxean datorren aste bukaeran.

Otsailaren 8an, egubakoitza.

Lehiaketak

BERGARA

> XIV. Txorimalo Lehiaketa deitu du Jardun elkarteak

Txorimalo lehiaketa deitu du Jardunek. Edozeinek parte har dezake, bakarka edo taldea. Hiru adin-talde egin dituzte: 12 urtetik beherakoak, 12-60 urte artekoak eta 60 urtetik gorakoak. Lehiaketa martxoaren 15ean egingo dute. Honako sariak daude: lehenengo adin-taldean, lehenengo hirurendako, Gasteizera patinatzera saria; bigarren taldean, irabazoleandako, 90 euro dirutan edo materialetan, eta bigarrenendako, 60 euro dirutan edo materialetan; eta hirugarren taldean, 90 eta 60 euroko sariak.

Argibideak eta izenematea, Jardunen (943 76 36 61 edo 943 76 08 19), martxoaren 7a baino lehen.

Antzerkia

BERGARA

> Pirritx eta Porrotx pailazoek ikuskizuna egingo dute

Pirritx eta Porrotx pailazoek eta euren lagun Mari Mototsek *Eskerrik asko!* delako ikuskizuna egingo dute. Mari Mototsek minbizia dauka eta mototsak jausi egiten zaizkio. Pirritx eta Porrotx ospitalera joaten zaizkio bisita egitera.

Ikuskizun horretarako sarrerak agortuta daude.

Bihar, zapata, pilotaleku, 16:30ean eta 18:30ean.

ARRASATE

> Kuko, Truko eta Bolenwaider pailazoek ikuskizuna

Kuko, Truko eta Bolenwaider pailazoak Amaia antzokira etorriko dira, *Munduan zehar* ikuskizunarekin, eta munduan barrena bidaiatuko dute,

altxor baten bila. Barrea eragingo diete umeei euren gorabehererek.

Martitzenean, hilak 5, Amaia antzokian, 17:00etan.

OÑATI

> 'Cincuentones' antzezlana egingo dute J.P. taldekoek

Mi querido Klikowsky telesaileko Janfri Topera, Kike Diaz de Rada eta Paco Obregón aktoreek *Cincuentones* umorezko antzezlana egingo dute gaur, egubakoitza. Diktadurako azken urteetan unibertsitatean batera ibili ziren hiru lagun bizitzaren onenean daude orain: bat abokatua da, beste bat enpresaburua, eta hirugarrena, irakaslea. Hirurek aldaketa garaia bizi dute, bizitza pertsonalean, batez ere. Sarrerak salgai daude kultura etxeen, 10 eurotan.

Santa Ana antzokian, 22:30ean.

PROPOSAMENA

BERGARA

> Txan magoak aho zabalik utziko ditu umeak domekan

Euskal Herriko magorik ezagunetakoak, Txan magoak emanaldia egingo du Bergarako Aratuste-domekan.

Saio Magikoa izeneko emanaldia egingo du Txan magoak. Sarrerak 3 euro balioko du, eta erosi nahi duenak kultura etxeen edo Udal pilotaleku leihatilan eskuratut ahal izango ditu. Kultura sailetik jakinarazi dutenez pertsona bakoitzak ezingo ditu sei sarrera baino gehiago eskuratut.

17:30ean izango da saioa, Udal pilotaleku.



nire aukera



Arantzazu Loidi
Garapen pertsonal irakaslea
Eskoriatza

**"Familian ematen
dut aste bukaera"**

Aste bukaera batzuetan, lan egitea egokitzent zait. Garapen pertsonalera-ko psikopedagogia ikastaro trinkoak ematen ditut, eta, batzuetan, aste bukaeretan iza-tent dira. Kasu horietan, saia-tzen naiz astean barrena den-bora librea hartzen.

Libre ditudan aste bukaera-koak familian ematen ditut. 5 urteko mutikoa daukagu, eta haren gustuko plana egiten saiatzen gara. Hala, umeak dituzten lagunekin batzen gara, kanpoan edo gure base-rrian; irteerak egitea ere asko gustatzen zaigu. Orain hasi gara ere umearekin ikuskizunetara, zinemara... joaten.

**Zein da bereziki gustuko
duzuen plan bat?**
Orain arte, asko joan izan gara parkeetara. Orain, plan antolatuak egiten hasi gara. Irteerak egitea asko gustatzen zaigu, eta sarri joaten gara. Donostiarra: han ahizpa bat daukat, eta umea pozik ibiltzen da lehengusuekin. Bestela, Arantzazu eta Urbia inguruak bereziki gustatzen zaikit. Hondartzera ere bai, baina udazkenean eta neguan, udan baino gehiago.

Zuretako tarte bat daukazu-nean, zer egiten duzu?
Paseatzea asko gustatzen zait, eta hemen, Bolibarren, ibiltzen naiz. Kalera joan behar dudanean ere, oinez joaten naiz. Irakurtzea, zinema, bertsolaritza... ere gustuko ditut, baina azkena-dian, ez dut horietarako hainbeste astirik.

**Kalera irteeta gustatzen
zaizu?**
Sekula ez naiz kalean asko ibiltzekoa izan, gauean-eta. Umearekin, baina, bai, ibiltzen naiz batzuetan.

**Baserrrian ere izango duzue
zer egina, ezta?**
Ortua daukagu, eta han lan egiteko ere aste bukaera aprobetxatzent dugu, bai. Lagunak baserrian hartzent ditugu batzuetan ere: oso leku apropsoa da jendea hartzeko, baxkariak egiteko...

Zinema

ARRASATE AMAIA ANTZOKIA

Soy leyenda
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30
Astelehenak: 20:30.
Donkey Xote
Domeka: 17:00.
14 kilómetros
Eguena: 20:30

ELGETA ESPAŁOIA ANTZOKIA

**Barbi maitagarriaren
lurraldea, sirenaren
munduan**
Domeka: 17:30.
Match point
Eguaztena: 21:30.

ONATI KULTURA ETXEA

Deseo, peligro
Egubakoita: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehenak: 19:30.
**Betizu eta urezko
zintzarría**
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.
Coast to coast
**Smell of the
mountain top**
Eguena: 20:00.

EIBAR UNZAGA

Los crímenes de Oxford
Egubakoita: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00,
19:30, 22:15.
Astelehenak, martxetena eta
eguztena: 19:30, 22:15.

GASTEIZ GURIDI

John Rambo
17:00, 19:45, 22:30.
Mortadelo y Filemón 2
17:30, 20:00, 22:30.
Los crímenes de Oxford
17:30, 20:00, 22:30.
**El amor en los tiempos
del cólera**
17:00, 22:30.
En el valle de Elah
17:30, 20:00, 22:30.
Hacia rutas salvajes
18:00, 21:00.
Mal gesto
20:00.
Expiación
17:30, 20:00, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

**La escafandra y la
mariposa**
17:30, 20:00, 22:30.
Déjate caer
17:30, 20:00, 22:30.
Caramel
18:00, 20:15, 22:30.
**4 meses, 3 semanas
y 2 días**
18:00, 20:15, 22:30.
Ahora o nunca
17:30, 20:00, 22:30.
Juno
18:00, 20:15, 22:30.
Michael Clayton
20:00.
Savage Grace
17:30, 22:30.

VELMO CINEPLEX-GORBEIA


Alien vs. Predator 2
20:20, 22:20, 00:20.
Los crímenes de Oxford
12:15, 16:00, 18:10, 20:20,
22:30, 00:45.
John Rambo
12:15, 16:30, 18:30, 20:30,
22:30, 00:30.
American gangster
17:15, 18:40, 20:15, 21:30,
23:15, 00:20.
Mortadelo y Filemón 2
12:15, 16:00, 17:00, 18:00,
19:00, 20:00, 21:00, 22:00,
23:00, 00:00, 00:50.
Monstruoso
12:15, 16:10, 18:10, 20:10,
22:10, 00:10.
Soy leyenda
20:30, 22:35, 00:40.
**El amor en los tiempos
del cólera**
19:40, 22:10, 00:40.
Alvin y las ardillas
12:15, 16:20, 18:20.
La brújula dorada
12:15, 15:45, 18:00.
Ahora o nunca
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15,
00:15.

Promesas del este

12:15, 15:40, 17:40.
Michael Clayton
20:15, 22:30, 00:45.
El orfanato
12:15, 16:20, 18:25.
Encantada
12:15, 16:30.
Las 13 rosas
19:45, 22:10, 00:35.
Bee movie
12:15.
La búsqueda 2
12:15, 17:00.
Superdog
12:15, 15:55, 17:55, 19:55, 21:55,
23:55.
**Mr. Magorium
y su tienda mágica**
12:15.
Gauerdiako saioak, egubakoitz
eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehenak, ikuslearen eguna
(jaiegunak izan ezik).

ÁBACO BOULEVARD

Alien vs. Predator 2
16:00, 18:05.
Expiación
16:30, 19:15, 22:15, 01:00.
Mortadelo y Filemón 2
16:15, 17:00, 18:20, 19:30,
20:30, 22:15, 22:40, 01:00.
Monstruoso
16:15, 18:15, 20:15, 22:15,
00:30.
American gangster
16:00, 19:00, 22:00, 01:00.
Los crímenes de Oxford
15:50, 18:10, 20:30, 22:45,
01:00.
Soy leyenda
20:15, 22:25.
**El amor en tiempos
del cólera**
16:20, 19:10, 22:00, 00:45.
La criatura perfecta
20:25, 22:30.
La búsqueda 2
17:00, 19:30, 22:10.
Alvin y las ardillas
16:15, 18:20.
John Rambo
16:30, 18:30, 20:30, 22:30,
00:30.
Ahora o nunca
16:00, 18:10, 20:20, 22:30,
00:45.
Gauerdiako saioak, egubakoitz
eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.



Los crímenes de Oxford **

Zuzendaria: Alex de la Iglesia.
Aktoreak: Elijah Wood, John Hurt,
Leonor Watling.
España, 2007.
110 min.

Alex de la Iglesias, *Los crímenes de Oxford*-ekin, merkatu internazionalera bideratutako ekoizpen bat egin nahi izan du: istorioa Inglaterran kokatzen da eta, nahiz hemen espainolezko bertsioa bakarrik estreinatu, inglesez filmatutako lana da.

Filmaren itxura ona da, hau da, Alex de la Iglesias, behin baino gehiagotan era-kutsi izan duen bezala, badi-ki filmatzen eta kamerari etekina ateratzen: irudi indar-tsuak lortzen ditu, esate baterako, planu-sekuentzia distiratsu bat; orokorrean, irudiek dotorezta dute; aktore onak agertzen dira; Roque Bañosen musika ederra da... Osagai horiekin guztiak, erakargarria izan zitekeen film bat daukagu, baina, tamalez, itxuraren azpitik, ezer gutxi dago.

Los crímenes de Oxford-ek ez du istoriorik ezta pertsonaiarik, eta horrela ezin da lan on bat lortu. Pertsonaiak ez daude ondo garatuta, azalekoak dira, trazu gutxirekin eginikoak dira, eta istorioan zehar ez dute eboluzionatzen. Istorioa benetan hutsa da: pertsonaien hitz itxurosoak era-biltzen dituzten arren, eta filosofiarri eta matematikari buruz hitz eginten duten arren, ez dute pisu dramatikorik; eta garatzen den intriga, nahiz eta komplexutasun itxura ematen duen, nahiko eskasa da.

Azken baten, *Los crímenes de Oxford*-ek ez dut esango aspertzen duenik, estetika eta teknikari dagokionez ekoizpen landua da, irudi eta erritmo egokiak ditu, baina filmak, istorioaren aldetik, ez du indarrik, eta azkenean, ikusleak –bueno, neurri behintzat, horrela gertatu zitzaidan– batere larritu gabe eta interes handirik gabe jarraitzen du pantailan gertatzen den gutzia.

Antonio Zabala

Eskasa: * Baleko: ** Ona: *** Oso ona: **** Bikaina: *****

En el valle de Elah ***

AEB, 2007. Zuzendaria: Paul Haggis. Aktoreak: Tommy Lee Jones, Charlize Theron, Jason Patric. 121 min. 13 urtetik gorakoendako. Irakenei gudari egoen eta etxeen ematen duen lehenengo aste bukaera, Mike Deerefield desagertu egiten da, eta baimenik gabe joan izana lepor-tzio diote. Chloë Sevigny ezkontzen da, baina Nola ederrarekin maitemintzen da...

Match point ****

Erresuma Batua, 2005. Zuzendaria: Woody Allen. Aktoreak: Jonathan Rhys Meyers, Scarlett Johansson, 123 min. 18 urtetik gorakoendako. Anbizio handiko gazte batek, Chris-ek, gizartea igotzea du helburu, eta filmak igeroa hori eta izango dituen ondorio larrak kontatzentzen ditu. Chloë Sevigny ezkontzen da, baina Nola ederrarekin maitemintzen da...

Los crímenes de Oxford ***

España, 2007. Zuzendaria: Alex de la Iglesia. Aktoreak: John Hurt, Elijah Wood, Leonor Watling. 110 min. 13 urtetik gorakoendako. Emakume edadetutako hildak agertzen da Oxfordeko bere etxean. Bi gizonek topatzen dute gorupa: bat Arthur Saldom Logika irakaslea da, eta bestea, Martin, ikasle iritisberria.

4 meses, 3 semanas, 2 días

Errumania, 2007. Zuzendaria: Cristián Munguía. Aktoreak: Ion Sapardu, Anamaria Marinca, Laura Vasiliu, Vlad Ivanov. 91 min. 18 urtetik gorakoendako. Otilia eta Gabita ikasleendako logela baten bizi dira. Errumaniko unibertsit-

Mortadelo y Filemón. Misión: salvar la Tierra **

España, 2008. Zuzendaria: Miguel Bardem. Aktoreak: Eduard Soto, Pepe Viyuela, Berta Ojea. Guziendako. Inoizko lehortu larriena duurak. Horrek batera, gizkile talde bat ur errebera guztiak gatstatzen ari da. Munduko agente sekretu onenak batzartu egiten dira zergi erabaki-tzeko, baina Botijola gaizkileak batzarra zapuztu nahiko du.

Soy leyenda ***

AEB, 2007. Zuzendaria: Francis Lawrence. Aktoreak: Will Smith, Alice Braga, Dash Mihok. 103 min. 13 urtetik gorakoendako. Robert Neville zientzialariak ezin izan du birus beldugarri bat geldiarazi. Orain, Neville da New York hirian diraen gizaki bakarra; beharbada, mundu osoan ere bai...

El amor en los tiempos del cólera

AEB, 2007. Zuzendaria: Mike Newell. Aktoreak: Hector Elizondo, Unax Ugalde, Benjamin Bratt, Javier Bardem. 139 min. 13 urtetik gorakoendako. Kolonbiako Cartagena hirian mendetik gorako istorioa kontatzentzu du film honek. Gizon batek berrogeita hamar urteetik gora itxaroten di bere benetako maitearekin.

Savage Grace

España-Francia-AEB, 2007. Zuzendaria: Tom Kalin. Aktoreak: Julianne Moore, Stephen Dillane, Eddie Redmayne, Elena Anaya. 96 min. 18 urtetik gorakoendako. Barbara Daly Brooks Baekeland abera-tsarekin ezkontzen da, eta AEBetako goi-mailako gizarteko kide bihurtzen da. Bainha semea, Tony, jaiozten denean, Barbara konturatu da senarrak ez duela umea maite.

Expiación ***

AEB-Erresuma Batua, 2008. Zuzend.: Joe Wright. Aktoreak: Keira Knightley, Benedict Cumberbatch. 123 min. 13 urtetik gorakoendako. Briony Tallis 13 urteko idazleko ahizpa nagusienaren maitealeari zerikusirik izan ez zuen kremen bat leporatzen dio.

14 kilómetros

España, 2007. Zuzendaria: Gerardo Olivares. Aktoreak: Adoum Moussa, Illiaissou Mahamadou Alzouma. 95 min. Guztiedako. Immigrazioa da mendebaldeko gizarteak kudeatu beharko duen gai handiena XXI. mendean. Buba Kanou, Violeta Sunny eta Mukela Kanou ezagutuko ditugu, eta Afrikako errealitatea erakustikoa dugu.

Donkey Xote

España, 2007. Zuzendaria: José Pozo. Aktoreak: José Luis Gil, Andreu Buenafuente, David Fernández. 86 min. Guztiedako. Rucio astoak Don Quixoteren benetako istorioa kontatzentzu du: ez zen zoroa izan, aitzitik, gizon adimentsua, pasio-

handikoa eta saiatua. Don Quixote eta Sancho armamutila Rucioarekin eta Rocinante zaldiaren iritzen dira bidaian.

La criatura perfecta
Erresuma Batua-Zelanda Berria, 2006. Zuzendaria: Glenn Standring. Aktoreak: Dougray Scott, Saffron Burrows, Leo Gregory. 90 min. 13 urtetik gorakoendako. Orain hiru mende, gurearen antzeko mundu baten, alkimista baten genetikaren sekretua aurkitu zituen, baina gaitoxasun larri batzuk piztu zituen. Horree gain, gizaki arraza berri bat ere sortu zen, botere handiko gizakiak.

Caramel

Frantzia-Libano, 2007. Zuzendaria: Nadine Labaki. Aktoreak: Nadine Labaki, Yasmine Al Massri. 96 min. Guztiedako. Beiruit, bost emakume edertasun zentro baten batzen dira. Layalek Rabih maite du, baina Rabih ezkondu dago;

'Debarroa', ibarreko jokoa

LANDA GARAPEN ELKARTEAK Deba

Garaia eta Debemen elkarteeek bi bailaren gainekeko mahai-joko bat egin dute

500 GALDERA Geografia, nekazaritza,

kultura, ingurune, ohiturak eta festen gaineke 500 galdera ditu

DATOZEN ASTEETAN Jokoa ez dago

oraindik salgai, datozen asteetan erosia ahal izango dela azaldu du Deba Garaiak

MIRIAN BITERI > BERGARA

Deba Garaia eta Debemen landa garapen elkarteeek *Debarroa* mahai-joko bat egin dute. *Oka eta Trivial* jokoek arteko nahasketa dela azaldu du Deba Garaia elkarteko teknikari Agurtzane Diazek.

Bost arlotan banatuta dagoeña ere aipatu du: geografia, nekazaritza, kultura, ingurunea eta ohiturak zein festak. Arlo bakotzak ehun galdera ditu. Guztira, 500 galdera ditu mahai-jokoak eta sei lagunek joka dezakete batera.

Galdera gehienak Debagoienaren eta Debabarrenaren gainekeoak dira. Dena dela, batzuk orokorrakoak dira. "Ez dira bi esku-deetara bakarrik mugatzen", adierazi du Diazek.

Taulak Deba ibaia eta bi ibarretako 14 herriak jasotzen ditu. *Oka* joko klasikoaren antza du, ibilbide bat jarraitu behar dute eta jolaskideek. Oilotik oilora eta barazkitik barazkira joateko aukera ematen du. Hainbat laukitan zigorak ere badaude.

Trivial-en antza ere badu, dadao bota eta fitxa mugitu ondoen, galderak erantzun behar dira-eta. Gehienetan hainbat aukera dago erantzuteko. Geografiaren arloan, adibidez, honako hau galdetzen du: *Herri hauetako zein ez du banatzen Karakate-Irukurutzetak?* Elgoibar, Arrasate, Soraluze eta Bergara ematen ditu aukeran. Kasu horretan, *Arrasate* izango litzateke. Nekazaritzari dagokionez, Euskal Label zer den ere galdetzen da.

GERTUTASUNA

Mahai-jokoak nekazaritzaren inguruko sentsibilizazioa bultzatzeko egin dela adierazi du. Hala, 2005. urtean abian jarritako *Debarroa, menditik itsasora* proiektuaren barruan dago. Azken horren harira, elkartek dagoeneko hainbat material didaktiko jorratu dute gazteendako eta nagusiendako.

Orain familia osoak elkarrekin jokatzeko jokoa asmatu dute. Diazetan ustez, galderen gertutasunak joko erakargarria izatea egiten du.



MAHAI-JOKOA Irudian, landa garapen elkarteko teknikari Agurtzane Diaz, *Debarroa* mahai-jokoarekin jolasten.

M.B.

ahobero

"Espainiako gaizkileak Europako ekialdekoak edo Andeetakoak bezain krudelak dira"

F. Jimenez Losantos > Esataria

Horixe da COPE irratiko esatariak asteon esan duena. Horrez gain, "okerrena peruar, eslovakiar, serbiar, ukrianiar... toki guztiak ikasi dute". Eta bera da txintxoena. Zeinengatik ikasiko ote zuen.

iturri onetik

Arkada Social punk-oi! taldeak kontzertua egindo du otsailaren erdialdean Arrasaten

Arrasateko Arkada Social taldeak dagoeneko ez ditu kontzertuak ematen, baina noizbehinka taldekideak batu eta agertokietara igozten dira.

Otsailaren erdialdean errepikatuko da hori: Arrasateko beste musika talde baten aldeko kontzertu erraldoian esku hartuko du arrakasta handia izan duen punk-oi! talde horrek. Ikusi ez dute nendako aukera apropioa.

piperraутса

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperraутса

Billary

Uste dut *Washington Post* egunkariak asmatu diela izena. Ondo asmatu ere, alajaina! Bai, Clinton bikoteaz ari naiz, Bill eta Hillary. Emaztea da presidentetarako hautagaia, baina senarra ari omen da gero eta toki handiagoa hartzen kanpainako ekitaldian. Obama hasiberriaren aurrean esperientzia erakutsi nahi, nonbait. Oraintsu Hego Karolinan ez zaie oso onto irten, agian ez dira horretan tematuko.

Hala ere, Argentinan gertatu zen –Nestor Kirchner presidenteak emazte Cristina pasatu zion kargua- eta gehiagotan gerta daiteke. Emakumeen presentzia politikan areagotzen ari den seinale, dudarik gabe. Baina baita politika eta errentagarritasuna uztartzen dituen joerarena ere: abizen-marka ezaguna probestu, bi baten prezioan eman...

ai, eñe!



Liburu itxura duen lanpara asmatu dute

Irakurtzeko lanpara apropioa izan daiteke. Stephen Kingen eleberri baten tamaina bera du eta 99 euro balio du.

<http://www.ohgizmo.com>

UDESIGN-SHOP.COM

UDESIGN
follow your style

Zabaldu berria!

